# Goienkaria

2007ko abenduaren 21a > Egubakoitza > VII. urtea > 314. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




**"Guraso bakarreko familiak gero eta ugariagoak dira Debagoienean"**

**Maialen Romero**
Asfamogi elkarteko arduraduna > 09

**G2a** **Mendiluze bertso txapeldunarekin berbetan** > 43-44

**ONDAREA**
**Arantzazu bideragarri egiteko hitzarmena sinatu dute asteon** > 04

**ESKORIATZA**
**Ikasleek ingurumenarekiko kezkak helarazi dizkiote alkateari** > 34

**EUSKAL SELEKZIOA**
**Ibarreko hainbat kirolarik Bilboko bilkurara joateko dei egin dute** > 41

**MANKOMUNITATEA** > 2008KO AURREKONTUA

# Inbertsioen erdia bideratuko dute lur azpiko edukiontzietara

**10 MILIOI** Aurrekontu osoa hamar milioi euro da; 2007koarekin alderatuta, %18,6 txikiagoa

**ADOSTASUNA** Hamalau udal ordezkarietatik hamabik onartu zuten proposamena; Oñatiko biak abstenitu egin ziren

**UDALEN EKARPENA** Udalek jarri beharreko kopurua %9,5 igo da, Sasietako zabortegiko gastuen igoerak eraginda > 05



**AMA ETA SEMEA** Saioa Arando Etxahun semearekin, jaiotza-inskripzio orria eskuan duela. GOIENKARIA

## Euskal Herrian euskaraz erregistratu den lehen umea, Debagoienean

Etxahun du izena Aretxabaletan bizi diren Unai Iturriotz eta Saioa Arandoren semeak. Eurak izan dira Euskal Herrian lehenak jaiotza-inskripzioa euskaraz egiten, asko kostata: legeak eskubide hori ematen duen arren, baliabideak falta zirela esaten zieten epaitegian. Azkenean, eta prozesua luzea izan bada ere, lortu dute euren eskubidea zena betetzea. > 05

**FERIAK** > SANTAMASAK

## Santamas feria bihar Arrasaten

Ganadu eta barazki eta fruta azokak eta artisau erakusketa egongo dira, beste gauza askoren artean, 10:00etan hasita > 54

**HISTORIA** > TRENA

## Trena kendu zutela 40 urte dira

1967ko abenduaren 31n zeharkatu zuen azkeneko aldiz Vasco-Navarro trenak bailara > 02-03

## Urtarrilera arte, irakurle!

Oporrak hartuko ditugu urtarrilaren 2ra bitartean eta GOIENKARIAren hurrengo zenbakia urtarrilaren 11n argitaratuko dugu. Ordura arte, ondo ibili Gabonetako oporraldian!

**AURKIBIDEA**


**Asteko gaia** > 02-03
**Debagoiena** > 04-06
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Kantari** > 50
**Kantari** > 51-52
**Non-zer** > 54-55








**URTEURRENA** > 40 URTE BETETZEN DIRA BURDINBIDEAK IBARRA ATZEAN UTZI ZUELA

# Vasco-Navarro 1967ko Gabon zaharrean eten zen

**MENDE ERDIKO IRAUPENA** Trenak mende erdi baino ez zuen iraun gurean; 1918ko irailaren 3an zeharkatu zuen lehenengoz ibarra

**UTZIKERIA** Egin beharreko berriztapen nahikorik ez zen egin burdinbidean eta errepideak lekua hartu zion Vasco-Navarrori

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Hilaren 31n, Gabon zahar gauean, 40 urte beteko dira Vasco-Navarro izeneko trenak ibarra azken aldiz zeharkatu zuela. Espainiako Garraio Ministerioak hala erabakita, zerbitzua bertan behera geratu zen behin betiko 1968ko urtarrilaren 1eko gauerdian, eta mende erdiko ibilbidearekin amaitu zuen.

Trenbide haren hastapenak ez ziren errazak izan. Lizarratik Gasteizera eta handik Durangora trena egiteko asmoz sortu zen, 1887an, The Anglo-Vasco-Navarro Railway izeneko enpresa; trenbide hartan du jatorria Bergara-Gasteiz tarteko trenak. Hasieran Ingalaterrako laguntza izan bazuen ere, Gasteiz eta Leintz Gatzaga arteko zatia baino ez zen egin, enpresak porrot egin zuen-eta. Estatuak enpresa bereganatu zuen, baina ez zuen lanekin jarraitu trenbidean, eragina zuten aldundien babesa jaso arte.

### 1918KO IRAILAREN 3AN

Oztopo guztien gainetik, azkenik, 1918ko irailaren 3an, trenak Gasteiz eta Bergarako Mekolalde auzoa lotu zituen lehen aldiz. Alegia, 59,5 kilometroko burdinbidea. Inauguratu zenetik, Mekolaldera zihoazen Vasco-Navarroren trenak Gasteiz-Iparra geltokitik abiatzen ziren, Madril eta Irun lotzen zituen Ferrocarril del Norte trenbidearen ondotik. Handik iparreko norabidea hartzen zuen eta Leintz Gatzagako inguruetan malda gailendutakoan, eta Araba eta Gipuzkoa arteko muga igarotakoan, trena Eskoriatzarantz jaisten zen maldan behera. Hori zen Vasco Navarroren tarterik gogorrena, aldapa gogorrak eta bihurgune oso itxiak eta bizkorrak zituen-eta.

Eskoriatzaraino hamabost tunel txiki eta Deba ibaiaren gaineko hiru zubi zituen trenbideak. Esandako herria igaro eta segituan, nabarmen egiten zuen hobera ibilbideak. Aretxabaletan, Arrasaten, Elorregin, Bergarako Labegaraietan eta herrigunean geldiuneak egin ostean, Mekolaldera iristen zen. Tarte hartan hamahiru aldiz igarotzen zen Deba ibaiaren gainetik eta lau tunel zeharkatzen zituen.

### MEKOLALDE, BIDEGURUTZEA

Han bat egiten zuen Durangotik Zumarragara joaten zen Ferrocarriles Vascongados enpresako trenbidearekin. Handik aurrera, bidaiari jarraitu behar zioten trenek trakzioa aldatu behar zuten, trenbidearen zabaleragatik. Burdinbidearen zabalera metro bat zen.

### OÑATI

Vasco-Navarro inauguratu ondoren, Oñatirako adarra eraikitzen hasi ziren. Ibilbideak 6,7 kilometro zituen. Elorregitik abiatzen zen, Gasteiz-Mekolalderekin lotzen zen toki berean, eta Zubillagan geratu egiten zen. Oñatira iritsi aurretik, bost bider gurutzatzen zuen izen bereko ibaia. Eta 1923ko irailaren 30ean



**FAGOR ONDOTIK** Bidaiarien trena Aretxabaleta eta Arrasate artean; eraikitzen ari diren pabiloiak Fagorrenak dira. FAGOR ARTXIBATEGIA

arkitektoak
aitor zubia azkue
xabier zabala urriategi
uzuri larrañaga zubizarreta
z2ab
zetabi
arkitektura
bulegoa s.l.p.
tel/faxa: 943 76 53 09
zetabi@zetabi.eu
telleria 21 , C-06 bergara





arkitektura proiektuak
sendibakarreko etxeak
lokal komertzialak
hirigintza lanak
etxebizitzak
berritzeak
gremioak



**Explotación de Ferrocarriles por el Estado**

**Ferrocarril Vasco-Navarro**

*La Dirección de Ferrocarriles por el Estado, invita a V___ a efectuar un viaje de ida y regreso de Vitoria a Vergara en los trenes especiales organizados con motivo de la inauguración del servicio eléctrico de Vitoria a Mecolalde, con arreglo a los siguientes:*

**ITINERARIOS**

| TREN DE IDA | | | ESTACIONES | TREN DE REGRESO | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| HORAS DE | | | | HORAS DE | | |
| LLEGADA | PARADA | SALIDA | | LLEGADA | PARADA | SALIDA |
| — | — | 15-45 | Vitoria (Ciudad) . | 20-25 | — | — |
| 15-53 | 1 | 15-54 | Durana . . . . . . | — | — | — |
| — | — | — | Retana . . . . . . | — | — | — |
| 16-2 | 1 | 16-3 | Urbina . . . . . . | — | — | — |
| 16-7 | 25 | 16-32 | Villarreal . . . . . | — | — | — |
| 16-35 | 1 | 16-36 | Landa. . . . . . . | — | — | — |
| 16-40 | 2 | 16-42 | Salinas . . . . . . | 20 | 1 | 20-1 |
| 16-54 | 1 | 16-55 | Marín. . . . . . . | — | — | — |
| 17-13 | 5 | 17-18 | Escoriaza . . . . . | 19-29 | 1 | 19-30 |
| 17-23 | 5 | 17-28 | Arechavaleta . . . | 19-23 | 1 | 19-24 |
| 17-35 | 12 | 17-47 | Mondragón . . . . | 19-15 | 1 | 19-16 |
| 17-53 | — | 17-53 | San Prudencio . . | — | — | — |
| — | — | — | Altos Hornos . . . | — | — | — |
| 18 | | | Vergara (Villa) . . | — | — | 19 |

*Vitoria 20 de febrero de 1938*
*II Año Triunfal.*
*La Dirección.*

NOTA: La Jefatura de la Explotación del Ferrocarril, no responde de ninguna clase de perjuicios que pudieran ocasionarse al portador de esta invitación.






FERROCARRILES DE VIA ESTRECHA

FEVE

**AVISO AL PUBLICO**

**Suspensión del servicio del Ferrocarril Vasco-Navarro**

A partir de las cero horas del **día 1 del próximo mes de enero de 1968,** cesará definitivamente el servicio en el **Ferrocarril Vasco-Navarro,** incluidos los ramales de **Estíbaliz y Oñate.**

Por consiguiente, desde la citada fecha no se admitirán facturaciones de ninguna clase, ni se expenderán billetes en o para ninguna de las estaciones de la indicada Línea.

**Madrid, 16 de diciembre de 1967.**

Irudietan, Mekolaldeko geltokia; elektrifikazioaren inaugurazio bidaiarako gonbidapena; eta zerbitzuak eteteko iragarpena. EUSKOTREN-TRENEN EUSKAL MUSEOKO ARTXIBATEGIA

bide-adarra inauguratu zuten Elorregiko geltokian. 1938ko otsailaren 20an, Gasteiz-Mekolalde eta Elorregi-Oñati zatien trakzio elektrikoa martxan jarri zuten, eta lurrun lokomotorak laguntza zerbitzuetarako utzi. Korronte zuzeneko 1.500 volteko tentsioa aukeratu zuten ibilbideak elikatzeko.

Gerra garaian, zerbitzua oso murritza izan zen. Ejerzito Nazionalaren tropek hornitzeko erabili zuten gehienbat. Gerra ostean, bestalde, geraleku berriak eraiki ziren ibilbidean zehar. Hala, 1943an Oñati ondoko San Pedroko geralekua jarri zen abian eta 50eko hamarkadan, Eskoriatzan Kastañaresen, Aretxabaletan Landeta-Maristen eta Arrasaten Ulgorren.

Hurrengo hamarkadan Vasco-Navarroren egoera kezkagarria izaten hasi zen. Azpiegiturak ez ziren berriztatzen eta, ondorioz, trenak mantsoago ibiltzen ziren. Horrek errepideak ibilgailuz betetzea eragin zuen. Udan debagoiendarrez gainezka joaten zen trena, Gamarrako igerilekuetara eta Landako urtegira joateko.

1965ean, FEVE sortu zenetik, Vasco-Navarroa itxiko ote zen zurrumurruak zeuden. Eta horiek egia bihurtu ziren 1967ko abenduaren 16an, egun hartan iragarri zen-eta zerbitzua behin betiko etengo zela.

#### ZERBITZUAREN ONURAK

Trenaren gaineko informazioa jasotzeko Juanjo Olaizolarena jo dugu. Olaizola, *Vasco Navarro Trena*-ren egilea da, eta Azkotiko Trenaren Euskal Museoko zuzendaria. Haren esanetan, beste toki batzuetan ez bezala, industria trena baino lehenago iritsi zen Debagoienera: "Industria indartsua zegoen ibarrean. Behar handia zegoen eta Vasco-Navarro eraiki aurretik, Union Cerrajera egon zen trena martxan jartzekotan", esan du. Trenarekin komunikazioak hobetu zirela ere gaineratu du, bidaiariak zein merkantzia garraiatuz.

**Garai hartako Aretxabaletako abadeak eskutitz bat bidali zuen Euskadiko Kutxara, trena berrezartzen ahalegin zedin**

Zerbitzua eteteak, bestalde, kalte ugari ekarri zituela gaineratu du. 70eko hamarkadan errepideak herri erditik pasatzen zirela gogora ekarri du, horrek zekarren ondorioekin. "Komunikazio bide onena kendu zuten", azpimarratu du Olaizolak.

#### BERRESKURATZEKO SAIAKERA

Galera hark eragin zuzena izan zuen Debagoienean. Trena kendu eta gutxira, Aretxabaletako abade Angel Garmendiak eskutitz bat bidali zuen Euskadiko Kutxara, garraio mota hori berrezartzen saia zedin. Zuzendaritza batzordeak erronka onartu zuen eta Fagorreko kooperatibak deitu zituen, Mekolalde eta Eskoriatza arteko trenbidea berreskuratzeko.

1968ko uztailaren 10eko data zuen proiektuan, 24 geltoki izango zituen tranbia aurreikusten zen. Baina gehiengoaren babesa bazuen ere, saiakerak ez zuen aurrera egin. Izango al du egun aurreikusita dagoen egitasmoak?

TRANBIA

## Euskal Trenbide Sareak tranbian lan egiten jarraitzen du

Debagoieneko garraio publikoa hobetzeko asmoz, tranbia jartzeko bigarren saiakera dago gaur egun mahai gainean. 2005eko otsailaren 25ean, Debagoieneko tranbiaren gaineko proiektua ezagutzera eman zuten Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Diputazioak.

Bada, azken hilabeteetan horren gainean ezer gutxi jakin izan bada ere, Euskal Trenbide Sareak (ETS), Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sareen kudeatzaileak, proiektuan lan egiten jarraitzen duela aipatu du. Bergara-Aretxabaleta tarteari aurkeztutako alegazioak aztertzen ari da. Arrasaten ibilbidea aldatu daitekeela azaldu du, Udalak hala eskatuta.

Proiektuak hiru fase ditu: guztira 30 kilometrotik gorako luzera eta 32 geltoki izango ditu trenbideak. Aurrekontua 179,87 milioi euro da.

Lehenik eta behin, Bergara eta Aretxabaleta udalerriak lotuko dira. Hala, Aretxabaleta, Arrasate, Elorregi eta Bergaratik pasatuko da. Horrek 17,5 kilometroko luzera eta 19 geltoki izango ditu. 33,6 minutu beharko ditu tranbiak mutur batetik bestera joateko. Tarte hori egiteko 113 milioi euroko aurrekontua aurreikusten du ETSk. Horrez gain, lanak eraikitzeko 36 hilabete behar izango dira.

Bigarren faseko lanak Aretxabaleta-Eskoriatza artean egingo dira. Horrek 2,5 kilometro eta hiru geltoki izango ditu. Obrek 15,9 milioi euro balioko dute. Azken faseak Elorregi eta Oñati lotuko ditu. Ibilbideak 9,5 kilometro eta hamar geltoki izango ditu. Tarte horretarako 50,6 milioi euroko gastua aurreikusita dago.

Tranbia bakoitzean 120 lagun sartuko dira, 50 eserita eta 70 zutik, eta 30 kilometro orduko abiadura hartuko du oinezkoendako guneetan; 50koa herriko beste guneetan; eta 80koa hiriguneetatik kanpo.

ETSk jakinarazi du beste eremu batzuetan ere lan egiten ari dela. Hala, Bilboko tranbia Basurtu-Errekalde tarteko hedapenarekin eta Urbinaga-Leioa-EHUko tranbiarekin dabil. Gasteizen, bestalde, lanak aurreratuta daude. Donostian ere tranbia jartzea aztertzen ari da.

Omega Elevator, s.a.

• Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
• Gremioen koordinazioa
• Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

SSANGYONG ACTYON SPORTS BERRIA
23.290 €-tik aurrera



MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN 200 XDI 141 Z.P.

SSANGYONG
VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99



**SINADURA** Joxe Arregi frantziskotarra, Markel Olano diputatua eta Lourdes Idoiaga alkatea hitzarmena sinatzen. MIREN ARREGI

**HITZARMENA** > OÑATIKO UDALAK, DIPUTAZIOAK ETA FRANTZISKOTARREK SINATU DUTE

# Arantzazu sustatzeko fundazioa sortuko dute

Eguaztenean sinatu zuten hitzarmena Markel Olanok, Lourdes Idoiagak eta Joxe Mari Arregik, Arantzazu sustatzeko helburuarekin

**AINTZANE IRIZAR** > OÑATI

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Oñatiko Udalak eta Arantzazuko Frantziskotarrek eguaztenean sinatu zuten hitzarmenean jasotzen den moduan, akordioaren helburua honakoa da: "Arantzazu bideragarri egitea eta aurrerantzean ere izan dadila espiritualtasun, kultura, arte eta bake erreferente euskal gizartearendako". Hori oinarri hartuta, hitzarmena sinatu dutenek lan egingo dute Arantzazu berritzeko eta sustatzeko. Gainera, beharrezko izango diren proiektu guztiak aurrera eraman ahal izateko fundazioa sortuko dute hiru erakundeek; aurreratu dutenez, fundazio hori formalki eratuta geratuko da datorren urteko lehenengo hiru hilabeteetan.

Eguazteneko ekitaldian parte hartu zuten Markel Olano ahaldun nagusiak, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateak eta Joxe Mari Arregi Arantzazuko Frantziskotarren Probintziako probintzialak.

**HELBURU ETA EKINTZA ZEHATZAK**

Datorren urte hasieran sortuko duten fundazioak hainbat helburu zehatz izango ditu: batetik, Gandiaga Topaguneko bigarren eraikinean zentro bat eratzea aurrez ikusten dute, kultura, artea eta pentsamendua sortzeko eta hedatzeko; baita erakusketa-gune bat jartzea ere. Bestalde, eraikin horretan bertan, Aratz-Aizkorri natura parkeari dagokion interpretazio zentro bat jartzeko asmoa dute.

Aipatzekoa da, bestetik, fundazioa arduratuko dela jendearendako arreta-zerbitzuak kudeatzeaz ere; hala nola Ostatu hotela, Arantzazuko denda, Gandiaga Topaguneko lehen eraikineko batzarretarako zentroa eta apartkalekuak. Beste helburu bat izango da Arantzazuren adierazgarritasuna eta berezitasuna sustatzea etikaren inguruan.

Hasiera baten, hitzarmena lau urterako da eta denbora horretan fundazioak bere gain hartzen dituen kudeaketa-guneen autofinantzaketa lortu nahi du.

**KONPROMISOAK**

Diputazioa arduratuko da naturaren interpretazioa zentroa eta Gandiaga Topaguneko bigarren eraikina garatzeaz; baita fundazioaren aurrekontua osatzeaz ere. Oñatiko Udalak urteroko ekarpen ekonomikoa egingo du.

Frantziskotarrek, bestalde, Ostatu hotela eraberritzeko ardura hartu dute. Hotel hori eraberritzen dihardute, eta laster amaituko dituzte lanak.

> AUTOBIDEAK

## Diputazioak ez ditu borobilduko 2008ko ordainsariak

EAEko Auzitegi Nagusiak bertan behera laga du A-8 eta AP-1 autobideetako ordainsariak goitik borobiltzeko aukera ematen zuen Gipuzkoako Diputazioaren dekretua. Auzitegiak dio dekretu horrek ez duela errespetatzen arau foralak dioena eta ez dagoela erabaki hori behar bezala justifikatuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak auzitegiaren erabaki horri helegitea aurkezteko aukera aztertzen dihardu, ez dago-eta konforme dekretua bertan behera lagatzeko erabakiarekin. Bien bitartean, baina, Diputazioak erabaki du 2008ko ordainsarien igoera onartzerakoan ez dituztela kopuruak borobilduko.

> LEHIAKETA

## Landa elkartearen zozketarako epea luzatu dute

*Landa eremuarekiko ohitura onen gidaliburua* etxez etxe banatzen dihardute egunotan. Debemen eta Debagoieneko Landa Garapenerako elkarteek egin dute, landa eremua suspertzeko. Lehiaketa baten parte hartzeko aukera dago, inkesta bat erantzunda. Baserriko produktuak eta nekazal etxe baten egonaldia zozkatuko dituzte. Gidaliburuan jartzen du parte hartzeko aukera dagoela abenduaren 21era arte, baina, urtarrilaren 15era arte luzatu dute.

GOIENA
aseguru
artekaritza



Zure konfiantzagatik mila esker.
Jai zoriontsuak eta urte berri on!
Zurekin Zuretzat



**ARRASATE** Antso Abarka 6
Tel.: 943 79 59 81 Faxa: 943 79 39 18
www.goienaaseguruak.com
e-posta. goiena@goienaaseguruak.com

**BERGARA** Zurradero 2
Tel.: 943 76 97 65 Faxa: 943 76 40 37
www.goienaaseguruak.com
e-posta. goiena@goienaaseguruak.com

GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA SL, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazioen Sailak baimendurik, izena emanda Aseguruen Artekaritza Erregistro Berezian MS-241 KLABEAREKIN

**DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA** > 2008KO AURREKONTUA

# Mankomunitateak 10 milioi euroko aurrekontua onartu du

Eguaztenean egin zuen abenduko batzarra Mankomunitateko gobernu batzordeak eta hantxe onartu zuen 2008ko aurrekontua

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Bergarako udaletxean egin zuen abenduko batzarra gobernu batzordeak eguazten arratsaldean. Hantxe onartu zituztenen artean garrantzitsuena, 2008ko aurrekontua. Batzarrean parte hartu zuten 14 ordezkarietatik, hamabik aldeko botoa eman zioten proposamenari eta bi abstenitu egin ziren: Oñatiko Udaleko ordezkariak, hain zuzen ere.

Guztira, 10.196.865 euroko aurrekontua izango du Mankomunitateak 2008. urtean. Iazko aurrekontuarekin alderatuta, %18,6ko jaitsiera izan du; 2007koa 12.527.392 euro izan zen.

Jaitsiera hori gertatu da inbertsioetara askoz gutxiago bideratuko delako 2008an: %74,24 gutxiago, hain zuzen ere. 2007an 4.613.932 euroko inbertsioa aurrez ikusi zuen Mankomunitateak; aurten, 1.188.500 euro.

Kontuan hartu behar da Mankomunitatearen egoitza berria izango den Zaldibar eraikina eraberritzeko hiru milioi euroko inbertsioa aurrez ikusi zutela iaz; horrek igo zuen aurrekontua.

**UDALEN EKARPENEN IGOERA**

Debagoieneko Mankomunitatearen aurrekontuaren erdia baino gehiago udalen ekarpen arruntak dira: 5.508.000 euro, hain zuzen ere. Kontuan hartu behar da udalek osatzen duten erakundea dela Debagoieneko Mankomunitatea.

Iazko ekarpenekin alderatuta, igoera handia izango dute urte berrian udalek Mankomunitateari egin beharreko ekarpenek: %9,5eko igoera, hain justu.

Iaz baino 478.000 euro gehiago jarriko dute 2008an udalek. Diru kopuru horretatik, 370.000 euro Sasietako tasen igoerak eragin du.

Datorren urteko aurrekontuak prestatzerakoan, Mankomunitatearen irizpide orokorra izan da Kontsumo Prezioen Indizearen igoera hartzea oinarri: %3,5eko indizea aurrez ikusi dute, nahiz eta oraingo astean bertan jakinarazi dutenez, Gipuzkoako KPIren igoera %4,1ekoa izan den.

Udalen ekarpenen kasuan, baina, igoera, esan bezala, askoz handiagoa izan da. Hori gertatu da zabor bilketaren gastuak izugarri handitu direlako; Sasietako zabortegiko tasek %44,1eko igoera izan dute. Kontua da Sasietan San Markos Mankomunitateko zaborrak jasoko dituztela, eta horrek eragin du gastuen igoera. Mankomunitate guztien artean egin behar zaio aurre tasen igoera horri. Eta udalen ekarpenen zatirik garrantzitsuenetakoa zaborren kudeaketari dagokionez, ekarpenak asko igo dira.

Horrekin lotuta dago Debagoieneko udaletan azkeneko asteotan onartu dituzten zerga eta tasen artean zabor bilketaren tasek %14,85eko igoera izatea ere; Mankomunitatearen proposamenari jarraituta onartu zituzten igoerok.

Mankomunitateko kontuhartzaileak 2008ko aurrekontuen txostenean hauxe dio: Sasietako tasak %3,5 igo izan balira, udalen ekarpenak %2,7 bakarrik igoko lirateke. Era horretan, argi lagatzen du Sasietako gastuen igoera izan dela udalen ekarpenak hainbeste igotzearen zergatia.

**INBERTSIOAK BEHERA**

Esan bezala, inbertsioetara bideratutako kopuruak behera egin du nabarmen. 2008rako 1.188.500 euro gorde dira inbertsioetarako. Kopuru hori ere udalek jartzen dute. Inbertsio batzuen kasuan, baina, udal guztiek ez dute jartzen dirua, baizik eta inbertsioak egiten dituztenek bakarrik. Horixe da lur azpiko edukiontzien kasua; inbertsio horri dagokion dirua jarriko dute edukiontziok jartzea erabakitzen duten udalek.

Lur azpiko edukiontziekin batera, inbertsio garrantzitsuenak egingo dituzte zabor bilketarako kamioi berria erosteko, hainbat lursail erosteko, Mankomunitatearen egoitza berrirako eta hiltegirako, besteak beste.

INBERTSIO AIPAGARRIENAK

**> LUR AZPIKO EDUKIONTZIAK**
588.500 euro. Lur azpiko edukiontziak jartzeko. Inbertsio horri dagokion ekarpena egingo dute edukiontziok jartzea erabakitzen duten udalek bakarrik.

**> HILTEGIA**
52.000 euro gorde dituzte. Sortzen diren beharren arabera bideratuko da diru hori.

**> ZALDIBARKO EGOITZA**
300.000 euro. Horietatik 200.000 altzarietarako eta gainerakoa sortu diren gain-kostuetarako.

**> LUR EROSKETAK**
60.000 euro. Akei eta San Balerioko lursailak Arrasateko Udalari erosteko. Zaborra kudeatzeko sail horietako eraikinak dira Mankomunitatearenak.



AGERRALDIA Behatokiko Paul Bilbao eta Unai Iturriotz, agerraldian. KONTSEILUA

**GIZARTEA** > ERREGISTRO ZIBILEAN IZENA EUSKARAZ

# Gurean egin da euskarazko lehen jaiotza erregistroa

Etxahun du izena Unai Iturriotz eta Saioa Arandoren semeak; Euskal Herrian harena izan da euskaraz erregistratu den lehen jaiotza

JASONE ZABALA > ARETXABALETA

Poz handiz hartu zuten Unai Iturriotz arrasatearrak eta Saioa Arando aretxabaletarrak albistea, haien seme Etxahunen jaiotza baita, pasa den abenduaren 11 ezkero, Euskal Herrian euskaraz erregistratu den lehena.

**BIDE LUZEA**

Helburu hori lortzeko, baina, bide luzea egin behar izan dute. Pasa den abuztuaren 8an hasi zen guztia: Iturriotzek eta Arandok semea izan nahi zuten, eta jaiotza-inskripzioa euskaraz egin nahi zuten Aretxabaletako erregistroan. Horretarako, 2005eko legeak euskaraz erregistratzeko ematen duen aukera aprobetxatuz, egoera aztertzen hasi ziren. Gainera, jakin bazekiten, beste pertsona batzuek berdina egin nahi eta ezin izan zutela lortu ordura arte. 2006ko abuztuan, eta Behatokiaren laguntzaz, eskari bat egin zuten Bergarako epaitegira. Erantzuna ezezkoa izan zen. Emandako arrazoia hauxe izan zen: legearen babesa zuten arren, ez zutela baliabide materialik jaiotza-inskripzioak gauzatzeko; alegia, ez zegoela erregistro liburурik euskaraz, erdara soilean bakarrik zeudela. Beste errekurtso bat jarri zuten, "ikusten genuelako ofizialaren balio eta eraginkortasuna eduki zezakeen euskarazko liburuxka bat atera zitekeela" dio Iturriotzek. Halaxe, Bergarako epailean abenduaren 11n baiezkoa ema zieten.

Iturriotz eta Arando oso pozik daude erabakiarekin, nahiz eta argi ikusi duten borondate falta ikaragarria dagoela.

Hezurren kalitatea zain ezazu.
Hezur-dentsitometria orain Arrasaten.

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa
ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88



**AURKEZPENA** Ziurtagiria osatzen lagundu duten enpresen ordezkariak bildu ziren Bilbon, tartean debagoiendarrak. GOIENKARIA

**EUSKARA** > EUSKO JAURLARITZAREN EUSKARAREN KALITATE ZIURTAGIRIA

# 'Bikain' ziurtagiria egiten lagundu du Goienak

Astelehenean Eusko Jaurlaritzaren 'Bikain' ziurtagiria aurkeztu zuten, eta Goienak probetan parte-hartzeagatik aitorpen oroigarria jaso zuen

**GOIENKARIA**> BILBO

Eusko Jaurlaritzak *Bikain* (Euskararen Kalitatea) aurkeztu zuen joan zen astelehenean Bilbon. Goienak ziurtagiri hori egiten lagundu du. Hori dela-eta, aitorpen oroigarria jaso zuen aurkezpen ekitaldian. Goienako presidente Estepan Plazaolak hartu zuen oroigarria, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik.

Hain zuzen, *Bikain* ziurtagiriaren bitartez enpresa zein erakunde batek euskaraz zenbateraino eta nola egiten duen ebaluatzen da. Eta horren arabera kreditatu, esandako ziurtagiriaren bitartez. Eusko Jaurlaritzak eta Euskalit Kalitateko Euskal Iraskundeak sortu dute.

**ELAY ETA MCC-KO EIKA ETA EROSKI**

Horren marko teorikoa osatzeko proba batzuk egin dituzte bederatzi enpresatan, tartean Goienan. Debagoieneko beste enpresa batek ere lagundu du horretan, Antzuolako Elayk; eta MCC taldeko Eikak eta Eroskik ere parte hartu dute.

Aurkezpen ekitaldian azaldu zutenez, ziurtagiri "publiko, ofizial, independente eta doakoa" da *Bikain*. Enpresek garatutako hizkuntza normalizaziorako prozesuen maila egiaztatzea du helburu, "era bateratu eta sistematizatuan". Hiru ziurtagiri daude, lortutako mailaren araberakoak: oinarrizko mailakoa beltza da, erdi mailakoa zilar kolorekoa eta goi mailakoa urre kolorea.

Euskararen presentzia eta erabilera aztertzen duen bigarren ziurtagiria da *Bikain*. Kontseiluak *Bai Euskarari* ziurtagiria abian jarri zuen aspaldi.



ARGAZKI PRESS

## 18/98+ lantaldeak epaia injustua eta politikoki bideratua dela uste du

18/98+ lantaldeak sumarioaren sententziaren gaineko erreakzio agerraldia egin zuen atzo Bilbon. Lantaldearen ustez, "epaia injustua eta politikoki bideratua" izan da, eta zentzu horretan, gehitu zuen: "Edonor, zu zeu, jakin gabe ere, ETAkoa bihur zaitezke; ez dago armak erabili beharrik ETAkoa izateko". Jose Luis Elkorori 24 urteko kartzela zigorra ezarri diote eta Natale Landa eta Xabier Arregiri 11na. Agerraldian talde politiko, sindikatu eta gizarte eragileetako ordezkari ugari izan ziren.

**ARAUDI BERRIA** > EUSKO JAURLARITZA

# Zezen ikuskizunen alde bilera egin dute Bergaran

Arduratuta daude zezenen munduan ibiltzen direnak, Eusko Jaurlaritza egiten ari den araudia dela-eta



**KALTETUAK** Errekortadoreak.

**M.B.** > BERGARA

Eusko Jaurlaritza lege proposamena prestatzen ari da zezen ikuskizunen inguruan. Zezenen ikuskizun tradizionaletan eragin zuzena izango du horrek.

Hala, besteak beste, 16 urte beherako umeek zezentxoetan eta antzeko ikuskizunetan ezin izango dutela parte hartu aurreikusten du. Horrez gain, zezen ikuskizun baten aurretik antolatzaileek 30.000 euroko fidantza ordaindu beharko dutela ere jasotzen du legeak, eta sokamuturretarako aseguruaren prezioa ere handitu egingo litzatekeela esaten du.

Bestalde, sokamuturrak irauten duen bitartean, bi anbulantziak eta mediku batek egon beharko dutela aurreikusten du. Orain arte anbulantzia batekin nahikoa zen. Errekortadoreen kasuan, aldiz, zezen-plazara ateratzen diren animaliak behin baino ezin izango direla erabili dio Eusko Jaurlaritzaren araudi berriak.

**BERGARA, ZEZENZALEA**

Aldaketa horiek guztiek Euskal Herriko errekortadoreen elkartearen, ganaduzale eta zezenzaleen haserrea piztu du. Hala, joan zen domekan, 40 bat lagun bildu ziren Bergarako Agorrosin Kirol Gunean, araudi berri horren gainean dagoen informazioa helarazteko eta ondoren eztabaidatzeko. Han bildutakoen bozeramaile Iñigo Almortzak batzarra Bergaran egitearen arrazoia eman du: zezen ikuskizunek indar handia duten herria dela azpimarratu du. Hala, Euskal Herriko errekortadore gehienak bergararrak direla ere esan du. Horrez gain, zezentxoak, urtero, kalera 17 bider inguru ateratzen direla aipatu du.

Almortzaren ustez, "apurka-apurka estutzen doaz, inongo arrazoirik ez badute ere. Guztiarekin amaitu gura dute", salatu du.

**GORRITIREN ANIMALITXOAK**

Hala, 16 urte beherakoek ikuskizunetan parte hartzeko debeku horrekin, *Gorriti eta bere animaliak* eta halako ikuskizunak desagertuko liratekeela jarri du Almortzak adibide gisa. Horren harira, azpimarratu gura izan du mota horretako ekimenetan ez dela istripurik egoten, eta, beraz, inork ez duela minik hartzen.

"Proposamen horren egileak isilean dabiltza", salatu du. Hain zuzen ere, proposamen horren zirriborroa eskatu badute ere, ez dutela ezer jaso azaldu du Agorrosinen bildutakoen bozeramaileak.

Egitasmo horri alegazioak aurkeztu dizkiote dagoeneko: "20 egun baino ez ditugu izan alegazioak egiteko eta aurkezteko", adierazi du. Azkenik, "denoi eragiten digun kontua" dela ere nabarmendu du Iñigo Almortzak.

**Prezio bereziak erabilitako autoetan!**

**1.000 €-tik aurrera 0 Km arte!**

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak



# Opariak puntu-puntuan.

## Aurtengo Eguberrietan, batu puntuak eta opariak eraman, zure kreditu-txartelekin.

Zain dituzu opari guztiak; ikus itzazu **www.kutxa.net** helbidean. Opariak eskuratzeko, ordaindu zure erosketak **kutxako kreditu-txartelekin**, eta hasi puntuak batzen.




zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

Sustapen honek **kutxa**ko Visa Classic, Visa Urre, MasterCard Urdin eta e-Business txartelentzat balio du. Oinarriak eskuragarri daude **www.kutxa.net**-en eta bulegoetan.


ARETXABALETA
ERDI-ERDIAN
Cerrajera Valle de Leniz
bizitegia
ORTUIBAR S.L.
Ibargarai 18, behea
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 11 18
ORTUZAL S.L.
Errekabarren 20, behea
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 40 00
copyright © 2007 www.arquimedia.net

Gipuzkoako guraso bakarreko familien elkartea (Asfamogi) 1994. urtean sortu zen, Donostian, guraso bakarreko familiei laguntzeko. 2005ean Arrasaten zabaldu zuten bigarren bulegoa, guraso bakarreko familiak ugaritu egin dira-eta ibarrean. Dagoeneko 484 bazkide ditu, eta guk Arrasateko bulegoko arduradun Maialen Romerorekin hitz egin dugu.

**Maialen Romero** > Arrasateko Asfamogi elkarteko arduraduna

# "Guraso bakarreko familiak gero eta ugariagoak dira Debagoienean"

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

**Ez da oso ezaguna guraso bakarreko familien kasua gure artean, nahiz eta asko dauden. Maialen Romero Asfamogik Arrasaten duen Elkarteko arduraduna da, eta hura arduratzen da familia horiei ematen zaien laguntzak bideratzeaz.**




Maialen Romero Arrasateko Asfamogi elkarteko arduraduna da. JASONE ZABALA

**Noiz, non eta zein helburuarekin sortu zen Asfamogi elkartea?**

Asfamogi 1994an sortu zen, Donostian. Eusko Jaurlaritzako Giza Baliabideen Departamentuak egindako azterketa baten ondorioz. Momentu hartan, Irun eta Pasaia arteko gunea ikertu zen, bertan zeuden familiek jasotzen zuten gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera (GGD). Eta ikusi zen %90etik gorako familiak guraso bakarrez osatuta zeudela eta gehienetan familia-burua emakumea zela. Orduan ikusi zen familien osatzeko eran aldaketa gertatzen ari zela, familia tipologia berria, guraso bakarrekoena, alegia.

Egoera hura ikusita sortu zen halako elkarte bat sortzeko beharra. Gero, 2005. urtean, Arrasateko bulegoa zabaldu zen, ikusi baitzen guraso bakarreko familien kopurua gero eta handiagoa zela eta Debagoienean ere halako familia tipologia ugaritzen ari zela.

Gainera, kontuan hartu behar da Euskal Herri osoan Donostiakoa eta Arrasatekoa direla guraso bakarreko familientzako dauden bulego bakarrak.

**Zer da guraso bakarreko familia?**

Aita edo ama batek osatzen duen familiari deitzen zaio. Familia horretan, guraso bakarra da familia-burua, eta hari egokitzen zaio familia hori eta seme-alabak ere aurrera ateratzeko ardura. Familia mota hori ezkongabeek, banandutakoek, dibortziatuek eta alargunek osatzen dute.

**Zeintzuk dira Asfamogiren helburuak?**

Hainbat helburu daude. Batez ere, guraso bakarreko familia egoeragatik dituzten beharrak asetzen laguntzea, zalantzak argitzea, euren egoeragatik sor daitezkeen arazoetan laguntzea. Azken finean, beste familia tipologia bat da, askori ez zaie normala iruditzen, baina laguntza behar dute. Gainera, guraso bakarreko familia gehienak emakumeek osatzen dute. Emakumeok seme-alabak dituzte euren kargura, eta horrek guztiorrek egunerokotasuneko arazoak ekar ditzake: ama horrek lan egin behar badu haurrak non utzi, medikuarengana joan behar badu eta ez daukanean norekin utzi umeak, edo laguntza bat eskatu nahi du ama horrek eta ez daki nondik nora jo... Familia horiei orientatzeko bide bat ematea da helburua. Horrelako familia gero eta gehiago daude, eta, hain zuzen ere, euren beharretan laguntzea da gure helburua.

**Zeintzuk dira elkartean dauden familien beharrei laguntzeko martxan ipinitako bideak edo programak?**

Hainbat programa ditugu. Nahi duenarentzat lege-aholkularitza daukagu. Aholkularitza psikologikoa ere badaukagu; askotan, familia mota hori osatzen dutenak banantzeetatik datoz, eta arazoak sortzen dira halako egoeratan. Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei ere laguntzen diegu; izan ere, sarritan, guraso bakarreko familiak tratu txarrak direla-eta banandu dira, eta haientzako programa zehatz bat daukagu. Lan esparruan emakumeak sartzeko ere badaukagu beste programa bat. Bestalde, elkartean, geriatria eta buruko arazoa dutenei laguntzeko ikastaroak ematen dira, lan handia baitago bide horretatik, eta gero lan esparrura bideratzen ditugu. Kanguras izeneko programa bat ere badaukagu. Umeak zaintzen lan egin nahi duenak curriculuma bidaltzen digu, eta guk gorde egiten dugu lan-poltsan, eta halako lan bat agertzen denean pertsona horiei laguntzen zaie.

**Debagoienean guraso bakarreko zenbat familia daude?**

Berrehun bat familia daude Debagoienean. Baina esan behar dugu nahiz eta elkartea guraso bakarreko familiena izan, baliabide urriak dituzten bikoteei ere laguntzen diegula; izan ere, ezkondutako bikoteek umeak zaintzeko norbait behar dutenean, guk topatzen diegu horretarako prest dagoen norbait.

**Zeintzuk dira gehiago, emakumeak ala gizonak? Eta zergatik?**

Emakumeak dira guraso bakarreko familiak osatzen dituzten gehienak: %80 inguru, esango nuke. Nahiz eta azkenaldian umeak euren zainpean gelditu diren aita ugari etorri diren elkartera.

**Elkartean badaukazue bazkiderik?**

Guk geuk diru publikotik jasotzen dugu elkartea bideratzeko laguntza. Baina 484 bat bazkide inguru daude gure elkartean. Haiek urtero 15 euro ipintzen dituzte, baina laguntza jasotzeko ez da bazkide izan beharrik. Gainera, gure elkartearen laguntzaren beharrik ez duten familia askok ematen digute dirulaguntza.

---

ASFAMOGI

**"Euskal Herri guztian bi bulego dauzkagu, Donostian eta Arrasaten"**

HELBURUAK

**"Guraso bakarreko familiek dituzten beharrei erantzutea da gure elkartearen helburu nagusia"**

DIRU LAGUNTZA

**"Elkartean gaur egun 484 bazkide daude; bakoitzak urtean 15 euroko dirulaguntza ematen du"**



zabalik

Txipi Ormaetxea

# Batu gaitezen

Honelakoetan ez dut ohiturarik politikaz idazteko; izan ere, zeresan handirik ez dut izaten. Gaur salbuespena egingo dut, hala ere. Gaur bertan, abenduak 13 (zu, irakurle, astebete geroago ari zara hau irakurtzen), deituak ginen 18/98 auziko izugarrikeriari erantzuna ematera, ordubeteko lan-etenaldira eta elkarretaratzeak egitera. Eguerdiko 12:00etan hitzordua genuen Gasteizko Filologia Fakultatearen sarrera nagusian.

Hasierako sustoa igarota (hiru katu ginen ordurako, eta ez lau), poliki-poliki jendea (irakasleak, Administrazio eta Zerbitzuetako langileak, ikasleak) hurbildu da kontzentraziora. Ez dakit 40ra iritsiko ginen, beharbada ez. Erantzun eskasa iruditu zait, zinez.

Azkenaldion bati baino gehiagori entzun edo irakurri diogu gaur eguneko egoerak Burgosko prozesua dakarkiola gogora. Bizi dugun egoera oso-oso larria den arren, akaso larregi esatea da. Baina gure erantzunean bai ez dudala alderatzekorik ikusten. Zerbait txarto egiten ari gara, ez duzu uste? Bestela nola ulertzen da sindikatu abertzale bat, esaterako, lan-etenaldi eta elkarretaratze horietatik at geratzea? Niri ulertezina begitantzen zait hau guztia.

**"Elkarretaratzean ez dakit 40ra iritsiko ginen. Erantzun eskasa iruditu zait, zinez"**

**"Ez dakit, ez dakit, baina gauzaren bat txarto dabilelakoan nago"**

Amaitzeko, beste kontutxo bat. Unibertsitateko agerraldi horretan irakasle batek galdetu digu ea ohartu garen euskaldunak ez diren (eta badira mordoxka, ez pentsa!) irakasleetatik bat ere ez dela etorri. Batak besteari begiratu, eta bai, aizu, arrazoia eman behar hori esan duenari. Han ginenok "vasco"-ak ginen guztiok. Kontu larri hau soilik euskaldunei balegokie bezala.

Ez dakit, ez dakit, ez dakit, baina gauzaren bat txarto dabilelakoan nago. Onenean gaur ezkor samar nago, ez besterik.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Aintzane Irizar, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## UDALEKO EUSKARA BATZORDEAREN EGUTEGIA EZ ZAIO ETXERA IRITSI

**Bergarako irakurle batek esan duenez, Udaleko Euskara batzordearen egutegia banatzen jardun dute egunotan. Dena den, berak ez du jaso; ez zaio etxera iritsi egutegia. Hori horrela, jakin nahi du ea nonbait eskuragarri dauden.**

Bada, bai. Azken urteotan bezala, Bergarako Udaleko Euskara batzordeak 2008ko egutegiak kaleratu berri ditu: hormarako egutegi handia eta eskura edukitzeko egutegi txikia, hain justu ere.

Egutegiok herri osoan banatuko dituzte. Herriko etxe, komertzio eta taberna guztietara bidaltzeko ahalegina egingo du batzordeak, baita baserri auzoetara ere. Hala eta guztiz ere, baliteke norabait ez iristea, galdera egin digun irakurleari gertatu zaion moduan.

Hori horrela, abenduaren 26tik aurrera eskuratu ahal izango dira egutegiok Udaltzaingoan, Euskara batzordean azaldu dutenez.

## KROMOAK TRUKATZEKO BESTE HITZORDU BAT

**Arrasateko Ingurumen Sailak ekimen berria jarri zuen abian aurreko aste bukaeran: kromoak trukatzeko eguna. Arrasateko irakurle baten semeak gustura asko ibili zen kromoak trukatzen, eta horregatik, ekimenak jarraipenik izango ote duen jakin nahi du.**

Bada, erantzunaren bila Ingurumen Sailera jo dugu, eta, han azaldu dutenez, dagoeneko egin dituzte datozen aste bukaeretarako hitzorduak. Hain zuzen ere, abenduaren 23an eta 30ean eta urtarrilaren 6an eta 13an, 12:00-13:00 ordutegian, Biteri plazan.

Aurreko aste bukaeran, hilaren 16an, egindako lehenengo truke egunak izandako arrakasta dela-eta erabaki du Ingurumen Sailak ekimenarekin jarraitzea: "Lehenengo saioan jende ugari batu zen elkartrukea egiteko. Etorritakoek pozik hartu zuten ekimena eta ideia horri eusteko proposamen ugari ere jaso genituen", azaldu dute Ingurumen Sailetik, eta gehitu dute: "Joan den domekako kromo-trukaketa saioak neska-mutiko eta gurasoengan piztutako interesa ikusita, hurrengo domeketan ere ekintzarekin jarraituko dugu".

Ingurumen Saileko iturrien arabera, "kromoak dira gaur egun neska-mutikoen artean modan dagoen aisialdiko aktibitatea". Horregatik, hain justu ere, erabaki zuen sail horrek berrerabilpena eta elkartrukatzea sustatzeko kromoak trukatzeko eguna antolatzea.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

Unai Busturia



blog

## Zer esan?

**Pello Zabala**
www.berria.info/blogak/pellozabala

Odolaren mintzoak erretzen dizkigu erraiak. Honelakoetan. Xalbadorrek abestua datorkit gogora:

Jo arazten diete bi
belaunez lurra/ixilik egon
diten, tinkatuz zintzurra;/
itotzen badute're haien
arrangura,/ez diete itzaltzen
barneko su hura:/
bake sortaraztaile txarra
da beldurra.

## Kantaila

**Edorta Arana**
www.goiena.net/blogak/hamaika

Egutegietan, azaroa eta urtarrila bitartean dagoen hileari nik izena aldatuko nioke. Abendua, lotazila, neguila eta beltzila ez zaizkit oso aproposak iruditzen. Eta, telebistetako programazioa ikusita, erabaki dut proposamen bat egitea. Hemen dira nire zergatiak. ETB1ek *High school musical* delako lehiaketa-showa dauka martxan. GoiTB *Debagoienean Kantari* dabil herriz-herri, karaoke ikuskizunaz. Gainera, lehengoan ikusi nituen Josu Erkoreka eta Carmen Alborch politikoak play-backean kantu eta dantzan, Gran Wyoming-en telebista saioan. Esandakoa gutxi balitz, *Berria* egunkariak *Egin kantu* telebistako programaren eskutik sortutako disko eta karaokea jarri du salgai. Eta, azkenik, ezingo dugu ahaztu bada, gabon gabean ETB1eko kantu-saioa, Oskorrikoek musika jarri eta famatu batzuk kantuak nola txiki-

plazara

Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleei Hiritartasunerako Hezkuntza delako ikasgaia ezartzearekin ez datoz bat Resu Abasolo eta Juana Lopez de Munain irakasleak eta erabat zalantzan jartzen dute ikasgai horren beharra. Hezkuntza sistemak dituen hutsuneei erantzuteko modu desegokia dela deritzote. Ondoko lerrootan gai horren gainean hausnartu dute, baita euren iritzia argudiatu ere.

**Resu Abasolo eta Juana Lopez de Munain ***

# Hiritartasunerako hezkuntza

Badaude seinaleak adierazten dutenak hezkuntza sistemaren lorpenak ez direla gizarte honek behar bestekoak, hala nola nerabeek sortutako istiluak, kirol-jardueretako indarkeria, gaur egungo ikasleen prestakuntza eskasa dela diotenen irrintzia, irakasleek euren lana edukiak erakustera mugatu nahi izatea eta ez helburuak lortzera, PISA frogen iragarpen eskasak.

Zein da hau guztia zuzentzeko hartu behar dugun norabidea? Orain artekoa ikusita, neurri bat baino ez zaie bururatu arduradunei, Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleei arlo berri bat ezartzea, Hiritartasunerako Hezkuntza. Guretzat beharrezkoa al da beste arlo bat ezartzea? Ez, inolaz ere ez. Eskolan irakatsi eta hezi egiten da. Irakaspena eta heziketa aldibereko prozesuak dira. Irakaspenak, kontzeptu teoria eta gertaerak azaltzen ditu eta heziketak, aldiz, balioekin, gaitasunekin, heldutasunarekin, afektibitatearekin, sozializazioarekin eta trebetasunekin du zerikusia. Pedagogiaren historian zehar, pedagogo askok definitu dute *hezkuntza* eta guztiek prozesu bakar bat bailira ikusi dituzte **irakaspena eta heziketa**. Beraz, argi dago irakaspenik gabe ez dagoela pertsona integralik. Baina jakintza –ezagutza– asko duen bat pertsona integrala dela esango genuke? Inolaz ere ez! Nortasun garatudun pertsonak izan beharko du gai gaur egungo gizarteak eskatzen dizkion betebeharrak betetzeko: hala nola auzokidea izateko, semealaben heziketaz arduratzeko, kultura maitatzeko, lan baten erantzuteko. Eskolako curriculumeko edozein ikasgai lantzerakoan hiru eduki hartzen dira kontuan: kontzeptuak edo arlo bakoitzeko jakintzak, prozedurak edo egiten ikastea eta jarrerak edo garatu beharreko ohiturak eta balioak. Metodologikoki aztertzeko heziketa eta irakaspena bereiz daitezke baina praktikan, eskolan, gelan aldiberean ematen dira bi prozesuok. Hau da, heziketa, irakaspenik gabe alferrikakoa da eta irakaspena, balio etiko eta araurik gabe heziketa izango litzateke? Zertarako orduan Hiritartasunerako Hezkuntza?




MIKEL ARROIABE

**"Eskolan irakatsi eta hezi egiten da. Irakaspena eta heziketa aldi bereko prozesuak dira"**

**"Gizartearen beharrei erantzuteko pertsonak prestatzeko: hezkuntza sistema astindu eta egokitu egin behar da helburuetan eta edukietan"**

Legea beteko balitz, ondo hezitako hiritarrak genituzke 18 urterekin. Horrela ez denez eta bat gatoz, hauexek dira geure ustetan hausnartu beharreko gaiak egungo gizartearen beharrei erantzungo dien pertsonak prestatzeko: hezkuntza sistema astindu eta egokitu egin behar da helburuetan eta edukietan. Gaur egun, heziketak, kontzeptu eta ideiekin lan egitea ez ezik, konpartitzen, transmititzen eta bestearena entzuten jakitea ere eskatzen du eta komunikazio estrategiak norbanako zein taldeko eta eskolako jakintzaren eraikuntzan abiapuntua dira. Horregatik, irakasleen hasierako formakuntza birplanteatu beharra dago: zein izan behar da hezkuntzan jardun nahi duenaren perfila, balioak eraiki egiten badira pertsonen arteko komunikazioaren bidez eta ez irakaspenak bailira transmititu? Lehendabizi, irakaskuntzan jardungo duen guztiarentzat etengabeko formakuntza sistematizatu eta lana ebaluatu. Bigarrenez, formakuntza eta ebaluazioa izan daitezela irakasleen promozio profesionalerako baldintza *sine qua non*. Azkenik, lege berriak egiten direnean, aplikaziorako behar duten baliabide eta antolaketa neurri egokiekin laguntzea ezinbestekoa da. Bestela, ez ote gara lehenetan egongo Hiritartasunerako Hezkuntza ezarri arren?

* Resu Abasolo eta Juan Lopez de Munain, irakasleak dira

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Gabonak familarekin egoteko dira ala oporretan joateko?

**> FAMILIAREKIN**
Nik uste familiarekin egoteko direla. Niri, behitzat, guraso eta anaiarrebekin egotea gustatzen zait. Gabon Zaharretan, osaba-izebekin ere batzen gara eta hori are hobea dela iruditzen zait. Pena emango lidake kanpora joateak.
**Nagore**

**> GAUZA BIAK**
Gauza biak egin daitezkeela uste dut. Nik hala egin dut hainbat urtez. 24a eta 25a familiakoekin eman izan ditut eta gero, oporretan joan izan naiz.
**Ibai**

**> FAMILIAKOEKIN**
Garai honetan bihotza bigundu egiten zaigu eta familiakoekin izan ahal diren *piketxoak* leuntzeko sasoi aproposa dela uste dut.
**Jasone**

**> ETXEKOEKIN**
Etxekoekin egoteko egunak dira. Oporretan joateko badira beste data batzuk ere.
**Mikel**

**DATORREN ASTEKOA: Urtarrileko aldaparik sumatzen duzu?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

tzen dituzten ikusteko aukera ematen diguna.

Total, aurrez grabatuak ala zuzenean, Olentzeroren aitzakian, eta mahai inguruetan, abenduko sasoi honetan, kantuan ibiltzen da jendea. Kantuan edo kantean, hor ere aldea egoten da.

## Terroristarena

**Anjel Lertxundi**
www.berria.info/blogak/lertxundi

Lizun eskandalosoena, egin dioten harrera koipetsua, duintasunik gabeko diru miazkatzaileak aberatsari egin ohi izan dion *rendez vous lerde* merkea…

Ez zen bada terrorista putakume bat?

Lockerbie hegazkinaren eztanda ez zen bada sekula itzaliko?

Nazioarteko begirale fidagarrienek baiesten ez dute bada haren erregimena diktadura bat dela, egunero eta ankerki urratzen dituela giza eskubideak?

Neska musulmanei beloa debekatu nahi zaien lurralde beretan hayma izugarri bat jasotzen utzi ez zaio bada, ahaztuz bere parafernaliek mendebaldea probokatzea dutela helburu?

Sahara beheko inmigrazioa baliatzen ez du bada Europaren pazientzia lardaskatzeko?

Bost axola, baldin energia ziurtatzen badu. Baldin Frantzia eta Espainiako enpresek sekulako maukak lortzen badituzte haren lurretan.

Baldin agintzen badu zorrotz kontrolatuko duela bere lurraldetik hona bidean datorren inmigrazioa…

Ez zen bada terrorista putakume bat?

koplak

**Egoitz Aizpuru**

## 18/98+

Erakundeak epaitegira,
epaitegitik ziegara,
haietako bat da nere lagun
baten neskaren osaba.

Ostikada bat gure herria
ez dadin herria izan,
gure ahoan eta ekintzan
bada nahiko kontraesan.

Ta dagokien zigorra doa
500 urtetik gora
ez dakit joan ahal izango
dudan larunbatean Bilbora.

Konpromisurik ez daukagunak
haserre gabiltza baina,
konpromisua hartu zutenek
zigorra dute ordaina.

ETAren bihotz, ETAren errai,
gibel, este eta uzki.
Ura lepora igo artean
ez daukagu zertan busti.

Etzanda negar egiten dugu
falta ditugunengatik
kontzientzia estutu gabe
gure etxeko sofatik.

# Azpiegituren poliedroa

**Iñaki Arriola**
Euskadiko Garraioaren eta Logistikaren Klusterreko presidentea

Azpiegituraren inguruan hitz egin nahi dut. Poliedro konplikatu honen aurpegi bati buruz hitz egitea gustatuko litzaidake, gizarteaz. Beharbada gizarte honek ikuspegi solidario batekin izango lukeen norabide ezberdin baterantz egin du aurrera. Beharbada horrelakoak gara:

1. Aberats berrien gizartean, gai ekologiko bat baino, *Not in my backyard* (Ez nire atzealdeko patioan...) bat ezkutatzen duen gizartea daukagu (Bai, baina nire etxean ez…). Urrunago joan gabe, badago Bergarako auzo bat (herrikoiena dena) ia inkomunikaturik dagoena, bertan hobekuntzaren bat egiteak beste auzoren bat penalizatzen du. (Ikustekoa izango litzateke, adibidez, anbulantzia bat sartzea posible litzatekeen). Hementxe aurkitzen dugu baita ere, adibidez, Gipuzkoako hondakinen gestioaren kasuak oinarrian ezkutatzen duen "nire herrian ez" arazoa.

2. Baina gizarte honek, era berean, aireportu edo autopistetarako sarrera perfektuak behar ditu... oporretara joateko (Mendekosteetan adibidez...). Hondartzara, elurretara, Afrikara, Asiara... joateko, ikusi besterik ez dago Debagoieneko bizilagunek GOIENKARIAn kontatzen dizkiguten herrialde urrunetara egiten dituzten bidaiak (normalean gureak baino behartsuagoak diren herrietara, gainera). Badirudi Loiuko aireportua gainezka dagoela eta gure errepideak egunetik egunera okerrago daudela...

3. Aberats berrien gizarte honek nahiago du garraio pribatua publikoa baino, ikusi bestela Pesa-ko autobusen erabilera eskasa (kanpotar jatorria dutenek erabiltzen dute gehien) eta lanera joateko autoa konpartitzeak ez du arrakastarik (pertsona bat autoko jeneralean...).

Dena dela, solidaritatean, justizian eta berdintasunean aurrera egiten duen gizarte bat bere zerbitzu publikoetan ere aurrera egiten duen gizarte bat da: osasunean, hezkuntzan, garraioan...

Ez dut uste abiadura handi, txiki edo ertaineko trenari buruzko eztabaidaz ari garenik, baizik eta gure gizartean aurrera egiteko baliabide gutxien dutenek ere, baliabide gehiago (aberats berriek?) dutenen aukera berdintsuak izatea da gakoa. Horrela, gizarte hau osatzen dugun kide guztien arteko (bertakoak nahiz kanpokoak) ezberdintasunak ekidingo genituzke: osasun pribatua, hezkuntza pribatua eta garraio pribatua, esaterako.

Azken aipamen bezala, guztiak gonbidatzen zaituztet Irungo tren geltokira bisita *turistiko* bat egitera, Paristik bidaiariak iristen direnean (etorkinak gehienak, ikasleren bat ere bai —ondo ezagutzen dut egoera nire Parisko ikasle behartsu garaitik—) eta Irun-Algeciras-eko trenari itxoiten nola pilatzen diren ikustera... Oporretan bisitatzen ditugun Hirugarren Munduko herrialde horietako baten pareko ikuskizun bat izan daiteke. Etorkin gajoek ez daukate bide ertzean geratuko den bigarren eskuko furgoneta bat erosi eta astoak balira zama eta familia gainean dutela, gure N-1 korapilatsuan bidaiatzea besterik. Gu bitartean lasai, Parisera joan nahiez gero, Frantsesek duten tren ikusgarrian joan baikaitezke, bai abiadura ertainekoan (81. urtean ezagutu nuenean Corai zuen izena eta nahiz eta 130 km/o-ko abiaduran joan puntuala zen) nahiz abiadura handikoan...

Txikikeria hauek alde batera utzita, artikulu hau irakurriko duten beste asko kontuan hartuta, beste gai hauen inguruan ere hitz egin genezake:

- Errepide sareak ezingo dio garraio sistemak izango duen gorakadari aurre egin. Beharrezkoa izango da balantze modal berri bat egitea, trenbide eta itsaso bidezko garraioa kontuan izango dituena.

- Ingurumena hobetzeko asmoz, kamioi eta auto bidezko trafikoa trenbidera pasatzea komeniko da.

- Ez da aukera bat, aurrera begira pertsona eta merkantzien garraioa iraunkorra izan dadin aurrerapausoa baizik.

Honen harira, Garraioaren Kluster-etik, Debagoieneko pertsona eta merkantzien mugikortasun azterketa bat bultzatu da, azterketa hau MUk egingo du eta Mankomunitateak, Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuko dute.

Azterketa honek pertsonen mugikortasunaren joera sozial berriak eta gure enpresek euren hornidura kateetan (*Supply Chain Management*) izango dituzten geroko behar estrategikoak proiektatuko ditu. Emaitza gisa egoeraren diagnostikoa eta oraingo eta geroko azpiegituren erabilerarako aukera posibleak ekarriko dizkigu.

Hausnarketarako adibide gisa, hemen doa galdera bat: Bergara arteko Beasain-Durango errepidea irekitzen denean Etxegarate erabiliko al da edota Bergaratik moztuko da bidea, Gasteizera doan autopistarekin bateratzeko? Bigarren aukera hau egiaztatuz gero, autopista jadanik gainezka jaioko da, ezta?

# Olandixoko tunela

**Ramon Ugalde Gorostiza**
Arrasate

Badakit Olandixoko tunela kritikatzea ez dela oso herritarra mondragoetarren artean, baina hala ere zerbait esan beharrean aurkitzen naiz. Nire iritzian Olandixoko tunel horrek gure udalerrian AHTk baino eragin handiagoa egingo du-eta. Gainera, kontuan hartzen badugu erakunde publiko desberdinek, udalek, diputazioek eta estatuko ministerioak gure Mondragoe eta Leintz aldean egin dituzten eta egiten diharduten lanek eragindako kalte ekologikoak hain handiak izan direnez, Diputazioak gurean egin nahi duen obra erraldoi honen inguruan hausnarketa bat egitera konbidatu nahi ditut, Arrasateko udaleko zinegotziak ez eze baita herritarrak ere.

Hasteko, obra honen diseinua egin duena LKS omen da, enpresa hau Arrasateko Udaleko zerrenda beltzean egon beharko luke biribilak diseinatzen erakutsi duen trebezia ezagatik. Bere garaian Andoni Kepa Bedialauneta zinegotziak salatu zuenez, etenik bakoak izan dira Arrasateko polideportibo berriko eraikuntzan egindako akatsak, hankasartzeak eta zentzugabekeriak, orain arte, behinik behin, eta nik dakidanez erantzunik izan ez dutenak. Beraz, gutxienez susmagarria izan beharko luke Arrasateko Udalarentzat enpresa horrek, eta berari agindutako lanak kontu gehiagorekin aztertu beharko lituzke.

Bestaldetik, Arrasateko Udalak azken urteotan hartutako erabaki urbanistikoek, egindako planifikazio gabeziak zera erakusten digute: askotan erabakiak hartzen direla ondorio minimoak ere kontuan hartu gabe. Biteriko aparkalekuetan ikusten da hori argi eta garbi: trafikoan era bateko desantolaketa sorrarazi dute, Arrasateko egitura minimoa erabat apurtu dute, eta bere garaian Udaleko goi mailako teknikariek *meeting point* moduan defendatu zuten lekuak orain barraka ziztrin batzuei eusteko ere ez du balio. Beraz, mondragoetarrok zoliago egon behar dugu gure herrian erakunde publikoek hartu behar dituzten erabaki paisajistiko eta urbanistikoekin. Garbi dago gure Udaleko teknikariak hirigile txarrak direla eta hirigintzaren alorrean konponbide kaskarrak planteatzeko erraztasun handia erakutsi dutela. Eta hirigintzan egindako akatsak urteetan eta urteetan jasan behar izaten dira.

Eta diputazioez ba zer esango dizuet dagoeneko Eskoriatzan esan ez dutena...

Gauzak horrela, Olandixoko tunelaren defentsa ahul bat irakurri diet Arrasateko Udaleko arduradun politikoei *Mondraberri* aldizkari digitalean.

Lehenik eta behin, Olandixoko tunelaren inpaktu ekologikoa neurtuko duen ikerketa seriorik ez da egin:

- Ohartu dira Mandoñako materiala funtsean lurrak, arbelak eta argilitak direla? Nora eramango dute material hori guztia? Beste mendi artifizial bat eraiki nahi dute Zapata errekan?

- Nora eramango dute Takolotik Mugarritterainoko saihesbidea egiteko aterako duten lurra? Konturatzen zarete mondragoetarrok malda hori dela obra publiko erraldoirik egin gabe Arrasaten daukagun bakarra? Zergatik protestatzen dute San Josepeko harrobiaren aurka bere pare-parean mendiari beste ebaki gogor bat egin nahi diotenek?

- Eta harrobien aurka protestatzen dutenek zergatik ez dute protestatzen obra erraldoi honen aurka ? Zenbat porlan erabili beharko da tunel hau egiteko eta saihesbideko ebakiari eusteko zenbat harri, harea eta porlan gastatu beharko da? Eta Mugarritteko biribil bikoitza egiteko. Horrek guztiak sekulako eragina edukiko du gure ingurumenean.

- Gainera, uste dut obra honetan planteamenduak aldatu egin direla eta berriro egin beharko litzatekeela obra horren erakusketa publikoa eta alegazioak edo errekurtsoak egiteko epe bat ireki beharko luketela. Mondragoeko herritarrok ez dakigu nolakoa izango den Mugarritteko biribil bikoitza. Nolakoa izango da, bi pisukoa, bata bestearen gainean edo bata bestearen jarraian?

Esan beharko ligukete obra erraldoi hau egiteko materiala nondik ekarriko duten eta zein izango den guztiaren inpaktu ekologikoa eta anbientala.

Halaber, esan beharko ligukete obra erraldoi hori egiteko aterako duten materialak (lurrak, arbelak...) nora eramango dituzten.

Zehaztu beharko ligukete obra hori egiteko ea erabiliko duten Udalatx sakratuko materiala. Udal gobernuan daudenek ere jakin beharko lukete, eta baldin badakite, ba azalpen egokiak eman ditzatela.

- Eta trafikoaren arazoa behar bezala aztertu dute?

- Bestaldetik, susmoa daukat Udala plazatik pasatzen den trafikoa ere ez dutela behar bezala aztertu. Garagartzara, Olandixoko bulegoetara, Markuleteko industrialdera doazen automobil gehienak ez datoz Gasteiz edo Leintz aldetik, Bizkaitik, Bergaratik eta Oñatitik baizik. Beraz, trafiko norabideen azterketa serioago bat eskatuko nieke Arrasateko Udaleko teknikariei (badakit azterketa serio bat asko eskatzea dela, baina bueno).

- Gure herrian trafiko auto ilara handienak Munarreneko biribilean, Zarugaldeko biribilean eta Zeletan gertatzen dira. Takoloko biribiletik pasatzen den trafiko gehiena ere saihesbidetik irteten dena da, beraz, Gipuzkoatik eta Bizkaitik datorrena.

- Beste modu bat ere badago hau guztia frogatzeko: egin dezatela ikerketa serio bat Olandixoko bulegoetara datozen automobilak, Markuleteko galdategira datozen kamioiak, TKV lantegikoak, Kobateko hormigoi makina eta kamioiak, edukiontzi edo kontainer enpresak, Garagartzako langileak... ea nondik datozen.

Zein da, beraz, trafiko arazo horri irtenbidea emateko alternatiba ekologikoena? Olandixoko tunela eta Takoloko saihesbidea ez, behintzat.

- Horren ordez zergatik ez dute aztertzen beste alternatiba hau?:

- Tunel bat zulatu Garaia Polotik, Akei harrora edo Sarara.

- Horrela lotuko lirateke oso gutxi erabiltzen diren bi errepide, Epeleko saihesbidea eta Garaia Polokoa.

- Bergara, Elgeta, Bizkaia eta orokorrean Gipuzkoatik datorren trafikoak Garagartzara eta Olandixora joateko bide errazagoa izango luke, Mondragoe ia ukitu gabe, txatarrarekin Bilbotik eta Pasaiatik datozen kamioiak ere berdin.

- Autopistako irteeratik ere bide motzagoa daukate Saratik Mugarrittetik baino.

- Tunel honetan dagoen materiala karehарria da; beraz, berrerabili daitekeen materiala, inolako hondakinik sortaraziko ez duena. Bide batez, Arrasateko Udalari proposamen bat luzatuko nioke: Arrasateko harrobiak Arrasate Iraunkorra foroan ei daude, zergatik ez du egiten itun bat Arrasateko Udalak harrobi horiekin, tunel hipotetiko hau egiten den bitartean Udalatx eta Kobateko harrobiak ez ukitzeko. Posible izango litzateke tregua ekologiko bat alor honetan? Argi dagoena da Olandixoko tunela egiten bada ez dela posible izango inguruko harrobiak ukitu gabe uztea.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

Faxa
**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


Ni Gipuzkoa naiz.
Guztiok gara Gipuzkoa.
Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoa hobea lortzeko pausoak emango ditugu guztion artean. Plana aurrera egitea da.
2007/2011 Kudeaketa Plana
GIPUZKOA
zurekin, aurrera

gizarte ekintza

elkartasuna

**Mikrokreditu** bati esker,
Ana Luciak bere heziketa burutu ahal izan du.



**Kutxa**ren Gizarte Ekintza ez da mugatu Ekuadorreko neskato honek Gipuzkoan heziketa egokia jaso dezan mikrokreditu bat ematera. Zuri esker, eta 3 milioi eurotik gorako diru-kopuruarekin, **kutxa** da mikrokredituak ematen dituzten erakundeen artean lehena.

Gainera, kutxa-zeharotik, laneratzeko zailtasunak dituzten 1.300 pertsonak lanpostu bana izatea lortu dugu dagoeneko.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

# Herriak

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** > 24-29 **Aretxabaleta** > 31-32 **Oñati** > 33
**Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> ARRASATE**
'Kirola zeuregatu natu' kanpaina abian jarri du AUKEAK **> 22**



**> BERGARA**
Napar feria ospatuko dute zapatuan San Antonion **> 24**



**> ARETXABALETA**
Ingurumena: ikasleen eskaerei erantzuna eman die Udalak **> 31**



**> ANTZUOLA**
Olentzero bateratua antolatu dute Udalak eta hainbat elkartek **> 36**




**ZALDIBAR** Ibai-Artek egindako foto-muntaietako bat. Zaldibarren, Aprendizen Eskolan, merkataritza-gunea jartzea proposatzen dute. IBAI-ARTE

**ARRASATE** > 'KALEAK BIZIRIK' KANPAINA ABIAN

# Herrian aisialdi eta merkataritza-gune berriak zabaltzea eskatzen du Ibai-Artek

Hiru aukera planteatzen dituzte Arrasateko giroa berpizteko

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

*Kaleak bizirik* lelopean, kanpaina bati ekin dio Ibai-Arte Arrasateko dendarien elkarteak. Herrian merkataritza eta aisialdi-gune berriak irekitzearen komenigarritasunaz eztabaida piztea da euren helburu nagusia. 120 denda biltzen ditu Ibai-Artek gaur egun. Angel Alonso elkarteko presidentearen hitzetan, "herriko bizitza berpiztea nahi dugu. Borondate politikoarekin era bateko Arrasate posible dela erakutsi nahi dugu. Merkataritza eta aisialdi-guneak herri barruan jartzea aldarrikatzen dugu, horrek bultzada handia emango liokeelako herriari".

**KARTEL DEIGARRIAK**

Arrasateko dendariek hiru muntaia arkitektoniko azaltzen dituzte argitaratutako karteletan: batetik, udal merkatua da erreferentzietako bat dendarien ustetan: "Uste dugu oso ideia polita izango litzatekeela berreskuratzea azoka moderno moduan. Azken 20 urteotan geldirik dago eta behar duen arreta eskaini behar zaiola uste dugu, herriko merkataritzaren ardatz nagusietako bat da-eta", dio Alonsok. Bestetik, Zaldibarko Aprendizen Eskolari eta lehengo Alai zinema aretoko eraikinari probetxu handiagoa atera ahal zaiela uste dute dendariek: Aprendizen Eskolan merkataritza-gune bat jartzeko aukera dagoela uste dute, zinema areto, txikipark, bolatoki eta beste hainbat eskaintzarekin. Eta Iturriotz kaleko eraikinari dagokionez hauxe diote: "Alai aretoa itxi zutenetik, bi proiektu ez dira gauzatu borondate politikorik egon ez delako. Kafe-antzokia egiteko asmoa zegoen bietan ere, eta baten, sukaldari prestigiotsu bat lehen solairuko jatetxeaz kargu egiteko gertu zegoen".

Jesus Mari Elkoro Ibai-Arteko kidearen ustetan, "gaur egun munduan bi tendentzia daude: zentro erraldoiak herritik kanpora edo herri barruan egitea. Europako zenbait tokitan ikusi dute lehen aukera horrek zein arazo sortzen dituen eta Frantzia, Ingalaterra eta beste leku batzuetan sistemari buelta emateko ahalegina egiten dabiltza. Herriko bizitzari eustea defenditzen dugu".




**ITURRIOTZ** Alai aretoa zegoen tokian kafe antzokia jartzea planteatzen dute. IBAI-ARTE

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 21 | Irizar | Erguin 15 | 943 79 12 39 |
| Zapatua, 22 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Domeka, 23 | Español | Araba Etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Astelehena, 24 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Martitzena, 25 | Etxeberria | Zarugalde 42 | 943 77 16 30 |
| Eguaztena, 26 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Eguena, 27 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 21 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Zapatua, 22 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 23 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 24 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 25 | Urritikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 26 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 27 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 21 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Zapatua, 22 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 23 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 24 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 25 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 26 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 27 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 21 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Zapatua, 22 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 23 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 24 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 25 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 26 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Eguztena, 27 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 22**
Urtaro berrian sartuta, ez dugu hotzik pasatuko. Ostarteak zabalduko dira, baina euria ez da hizpide izango; gehienez tantaren bat bota dezake noizbehinka.



**Domeka, 23**
Hegoaldeko haizea indarra galduz joango da baina nahiko giro atsegina izango dugu domekan ere. Gabonen atarian, giro ona.

### EUSKAL HERRIAN

Barnealdean hodeiak, kostaldean baino ugariagoak izango dira. Hegoaldeko haizearekin jarraituko dugu, baina jada indarra galdu egingo du. Tenperatura maximoak oso antzekoak izango dira, baina hotzenak gehiago jaitsiko dira.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Astelehena, 17 — **-5 ºC**

**MAXIMOA** Martitzena, 18 — **10 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **0,4 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 12 | 5 ºC | 0 C | - l/m² |
| Eguena, 13 | 5 ºC | -2 C | - l/m² |
| Egubakoitza, 14 | 7 ºC | -2 C | - l/m² |
| Zapatua, 15 | 5 ºC | -2 C | - l/m² |
| Domeka, 16 | 9 ºC | -3 C | - l/m² |
| Astelehena, 17 | 5 ºC | -5 C | 0,4 l/m² |
| Martitzena, 18 | 10 ºC | -2 C | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA ABENDUAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 1 | 9 | 17 | 24 |

## oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA
**> Sahararen aldeko elikagaiak batuko dituzte**
Abenduaren 26an hasiko dira elikagai eta bestelakoak batzen. Horretarako, kutxak jarriko dituzte Arrasate eta Oñatiko hainbat dendatan. Hain zuzen ere, atuna, konpresak, azukrea, lentejak eta arroza jasoko dituzte.

BERGARA
**> Mendi federatu txartela ENHArekin**
Bai Euskal Herriari taldeak jakinarazi duenez, EHNArekin egin daiteke mendi federatu txartela, astelehenetik egubakoitzera, arratsaldez, Pol-Pol mendi taldearen bulegoan.

BERGARA
**> Euskal selekzioaren aldeko manifestazioa**
*Euskal Herria nazio bat selekzio bat* lelopean deitu dute hilaren 29rako, Bilbon. Gero, Euskal Herria-Katalunia futbol partidua izango da San Mamesen. Autobusez joan nahi duenak Arranon edo Pol-Polen eman dezake izena.

ARETXABALETA
**> Gabonetarako patinaje ikastaroa antolatu du Kirol Zerbitzuak**
Abenduaren 26an, 27an eta 29an egingo dute ikastaroa eta urtarrilean, 2an, 3an, 4an eta 5ean. Guztira zortzi saio egingo dituzte, eta ikastaroa 4 urtetik gorako haurrendako antolatu dute.

Eskola orduetan haurrak bi taldetan banatuko dituzte, hastapenekoak eta hobekuntzakoak. Informazio gehiago 943 71 26 28 zenbakian.

ARRASATE
**> Inauterietarako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak**
Edozeinek har dezake parte. Kartelaren neurriak 50x70 izan beharko du eta teknika, librea. Honako derrigorrezko testua eroan beharko du: *2008 inauteriak Arrasate*. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 17a da, Biztanleen Arreta Zerbitzuan.

OÑATI
**> Argentinarako Elkartasun Taldeak ez du materialik jasoko**
Urtarrilera arte etenaldia egitea erabaki du taldeak, Bidebarrietako lokalean material asko pilatu zaieeta. Hortaz, datozen asteotan ez dute material gehiagorik batuko. Bestalde, lokal aurrean duten edukiontzi zuria ere itxi egingo dute. Taldeak jakinarazi duenez, etenaldi hori aprobetxatuko dute urtarrilean Argentinara bidaliko duten kontainerra prestatzeko.

ARRASATE
**> Harreman elkarteak azoka zabaldu du Iturriotzen**
Abenduaren 24ra arte egongo da zabalik eta batutako dirua bidezko merkataritzarako erabiliko dute. Kokapen berria du aurten azokak, Iturriotz kaleko 3. zenbakian, hain justu ere. Denda egunero egongo da zabalik: lanegunetan, 18.00-20:00 ordutegian eta jaiegunetan, 12:00-14:00 ordutegian.

OÑATI
**> Benito Lertxundiren emanaldirako sarrerak salgai daude**
Orioko abeslariak hilaren 22an egingo duen emanaldirako sarrerak salgai jarri dituztela eman du aditzera Udaleko Kultura Zerbitzuak. Sarrerok kultura etxean daude salgai, 10 eurotan (leihatilan 12 euro). Kultura etxeko ordutegia da astelehenetik egubakoitzera, 10:00-13:00 eta 16:30-20:30.

OÑATI
**> Zubikoako aparkaleku itxietarako eskariak 27ra arte egin daitezke**
Kiroldegia handitzeko lanen barruan, lur azpian eraikitako garajeetatik 13 itxiak dira. Herri jabetzako lurretan jasotako eraikinak direnez, ezin dira saldu; hortaz, Udalak 50 urterako esleitzea erabaki du. Horretarako, herrian erroldatuta egon behar da azken urtebetean eta turismo baten jabe izan behar da.

ARRASATE
**> Ezkontza zibilerako izenematea BAZen egingo da aurrerantzean**
Ezkontza eguna kontuan hartuta, gehienez 12 hilabeteko aurrerapenarekin egin ahal izango dira eskaerak. Horretarako, ezkontideen eta lekukoen nortasun agiriak aurkeztu beharko dira. Bestalde, BAZetik gogorarazi dute ezkontza espedientea Erregistro Zibilean, Bake Epaitegian, tramitatu behar dela.

OÑATI
**> Bidegorrien bide-sarea eskatzeko bizikleta ibilaldia deitu du Oñatiko Txirrinka taldeak**
Gaur, egubakoitza, egingo dute, 18:30ean, herriko kaleetan. Bidegorrien bide-sarea eskatuko dute. Egiten duten halako bigarren martxa da; lehena azaroan egin zuten eta asmoa da hilean behin egitea, hileko azken egubakoitzean, hain justu. Txirrinkak ontzat jo du Udalak sarea egiteko azaldu duen jarrera.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

# Oñatik 18.000 euro gastatu du Gabon argietan; zer deritzozu?



**Karmelo Lazkoz**
Erretiratua
Oñati

Egia esateko, ondo daude argiak, baina diru asko gastatu dute. Betiere neurrian ipini behar dira. Lehengo garaietan argi barik ere ederki moldatzen ginen eta Gabon giroa bera zen.



**Mari Jose Franco**
Langilea
Oñati

Nik neuk ez diet kasu handirik egin oraindik argiei. Hala eta guztiz ere, Gabon argiak ipintzean egiten den gastua handia da, eta, gainera, epe laburragoan ipini beharko lituzkete.



**Fabian Bermejo**
Erretiratua
Oñati

Gastua gehiegizkoa da. Behin eta berriz entzuten ari gara energia aurreztu behar dela, eta hau, behintzat, ez da eman daitekeen eredurik onena. Kale hasiera bakoitzean bana ipinita nahikoa da.



**Gorka Ibabe**
Langilea
Oñati

Diru asko da, baina kosta aldeko herrietan ere hemen gastatu denaren antzerako kopurua gastatu dute Gabon argitan. Herriari Gabon giroa ematea ondo dago, baina neurrian izan behar da.



**Mari Karmen Agra**
Langilea
Oñati

Argiak oso ondo daude herria girotzeko, nahiz eta Oñatin egin den gastua gehiegizkoa den. Gabon giroa berdin sor daiteke gutxiago gastatuta ere. Hala eta guztiz ere, polita dago herria.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

# Aretxabaletan espaloia falta

Aretxabaletako auzotar batek bidali digu kexa aste honetan. Kontua da Aretxabaletako Errekabarren kaleko autobus geltoki parean dagoen espaloia bat-batean bukatzen dela, eta oinezkoek errepidera atera behar dutela metro batzuetan. Herritar horrek eskatzen du edukiontzien atzeko partean dagoen lorategitxoari zati bat kendu eta espaloia luzatzea.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# -5

Gabonen atarian tenperatu hotzak izan ditugu ibarrean eta elurra ere iritsi da zenbait tokitara. Luis Mari Agirreren datuen arabera, -5 ºC-ko tenperatura izan genuen astelehenean. Egunotarako giro hobea iragarrita dago.

usteak uste

**Ubane Madera**

# Ohitura berrietara egokitu behar

Merkataritza-gune erraldoietara neu ez naiz sarriegi joaten, ez ditut batere gustuko-eta. Baina batzuetan tokatzen da joan beharra eta halaxe egin nuen pare bat aste dela. Gasteizera joan ginen. Hori bai, ordu berezian, ahalik eta jende gutxien aurkitzeko asmotan. Hala, 16:00ak inguruko Gatzagatik jaisten ginen, etxera bueltan.

Hara! Aho zabalik utzi ninduen ikusteak zelako auto ilara zetorren kontrako noranzkoan; sekula ikusi barik nengoen hori. Aste barruan moduan, arratsaldeko kooperatibako irteera ordua ematen zuen hark!

Arrasateko merkataritzagunearen gaineko zalantza guztiak uxatu egin zitzaizkidan derrepentean. Orain argi-argi daukat Arrasaten halako bat ipintzea herriarendako guztiz mesedegarria izateaz gainera, beharrezkoa ere badela. Eta berriro errepikatuko dut: neu ez naiz halako merkataritza-guneen zalea, baina ikusita zapatuetan zenbat auto doan Gasteiz aldera ihesi, hobe eskaintza hori herria ekartzea, bestela, akabo herria!

Kontsumismoa ez dela ona? Hor ez dago dudarik; oso ohitura txarra da gaur gun kontsumitzen dugun moduan kontsumitzea. Baina egin egiten badugu, hobe herriari mesede eginaz egitea.

5 galdera...

# Mireia Alberdi

Dietista eta elikatzailea
Bergara

**1. Gabonak urteko egun berezienak dira askorentzat, eta elikaduran egiten dituzte askok gehiegikeriak. Zein ondorio ekar ditzakete gehiegikeriek?**

Hasteko esan behar da gaur egun gehiegikeriak Gabonetan ez ezik beste egun batzuetan ere egiten direla, hala nola ezkontza eta bataioetan. Ondorioak hauek dira: pisu gehiago hartzea, hartutako pisua ezin kendu ibiltzea eta patologiaren bat duenak egun hauetan gehiago nabaritzen du.

**2. Gabonen ondoren Gabonen aurretik baino jende gehiago joaten al da kontsultara? Zer eskatzen dute?**

Normalean jende gehiago etortzen da kontsultara. Gabonen aurretik ez; izan ere, jendeak, aurretik esan bezala, gehiegikeriak egiten ditu, eta hori akatsa da. Helburuak Gabon hasieran eta amaieran pisu berarekin amaitzea izan behar du.

**3. Jendearen Gabonetako menuetan barazki gutxi sartzen da, ezta?**

Bai, baina kulturala da. Angulak jatea bezala da. Sozialki maila bat ematen dizu. Baina komeni da beti pixka bat nahastea,alegia, urtero garai hauetan jaten den mariskoa barazkiekin batera jatea.

**4. Diabetikoak direnek kontu izan beharko dute turroiarekin, ezta?**

Gaur egun badaude diabetikoentzako janariak. Nahiz eta patologia hori duenak badakien arriskua zein den. Baina Gabonetako lau otorduetan pixka bat jaten bada, ez da ezer gertatzen. Nahiz eta ordezko moduan konpota ere jan daitekeen.

**5. Gabonen ondoren zein da dieta gomendagarriena?**

Hasteko, egingo den gehiegikeria ahalik eta txikiena izan dadila, ahal den neurria behintzat. Behin gehiegikeria eginda, ahalik eta garbien jatea: barazki salda, barazkiak eta fruta. Okela eta arraina albo batera utzi.



Zenbaki
Aholkulariak

TÜV
TÜV Internacional
Grupo TÜV Rheinland
EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000



- **Juridikoa:**
  - Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
  - Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
  - Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
  - Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
- **Laborala:**
  - Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...
- **Fiskala:**
  - Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...
- **Kontabilidadea:**
  - Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!**

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**Hedabide guztietarako**
**telefono berria eta bakarra**
**943 25 05 05**

Goitb Goiena Telebista
ASTELEHENEKO Goienkaria
Goienkaria
FM 107.7 ARRASATE IRRATIA
Goiena.net Debagoieneko Interneteko ataria

**AISIALDIA** > TXIKILANDIA: GABONETAKO PARKEA

# Kultura elkarteekin landutako elkarlanari esker, saioak izango dira Txikilandian

Ehunka ume erakartzen dituen Txikilandia parkeak (500-600 ume eguneko aurreko urteotan) urtarrilaren 2tik 5era zabalduko ditu ateak

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Txikilandiarako guztia gertu dute Txatxilipurdi elkartekoek: "Prest urtarrilaren 2an hasiera indartsu bat emateko Txikilandiari", adierazi du Uxue Zabaletak, Txikilandiako arduradunak.

Urtarrilaren 2tik 5era bitartean izango da zabalik Txikilandia: "Falta ezin diren puzgarriak izango dira, tailer piloa, ludoteka, ipuin txokoa, ziber-txokoa, saiatuko gara sormen tailerrak lantzen…Eta nobedade moduan aurten herriko kultur elkarteekin elkarlanean, urtarrilaren 2an, 3an eta 4an ikuskizunak izango ditugu. Urtarrilaren 2an euskal dantzak eta sevillana dantzak; 3an, gimnasia erritmikoa, karatea eta batuka eta 4an judoa eta karaokea; guztiak 18:00etatik 20:00etara".

Horrez gainera, egun berezi bat izango dutela era kontatu du Zabaletak: "Urtarrilaren 4an izango ditugu igerileku biak guretako eta bietan puzgarriak izango dira. Horrela, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara hezitzaileak izango dira eta umeek aukera izango dute Txikilandiako pasearekin (egun osorako balio du) bai igerilekuan ibili eta baita kantxan, puzgarri, tailer eta guzti horietan parte hatzeko. 2 urtetik hasi eta 12 urtera arteko ume eta gazteendako da ekimena".

**500-600 UME EGUNEKO**
Ume mordoa espero dituzte, gainera, Txikilandian: "Beste urte batzuetako zenbakiak ikusita, egunean 500-600 ume pasatzen dira, gehi haien guraso, amama eta lagun guztiak… Hori horrela, urtero moduan, sarrera-irteerarako pazientzia izan dezatela eskatu gura diegu".

Jakina, horrenbeste ume zaintzeko begirale ugari izango dituztela ere kontatu du Txikilandiako arduradunak: "Goizean egongo dira 32-35 begirale eta arratsaldean 10 bat gehiago. Ondoko herrietatik ume gehiago etortzen direnez, komodinak behar izaten ditugu".


**600** Gurasoek lagunduta, 600 bat ume pasatuko dira egunero Txikilandiatik. ARTXIBOA

DATU PRAKTIKOA

**> EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA**
Hilaren 2tik 5era; 2an, 3an eta 4an, 11:00etatik 14:00ak arte eta 16:00etatik 20:00ak arte. Urtarrilaren 5ean, 11:00etatik 14:00ak arte.

**> PREZIOA**
Urtarrilaren 2an, 3an eta 4an, 6 euro. Urtarrilaren 5ean, 5 euro. 1-2 urteko umeek 3 euro. Eta bonuak 15 euro.

**> EGUN BEREZIA**
Urtarrilaren 4an igerileku biak puzgarriekin izango dira.

**> AURTENGO BERRITASUNA**
Kultura elkarteekin elkarlanean, ikuskizunak. Urtarrilaren 2an, euskal dantzak eta sevillana dantzak; 3an gimnasia erritmikoa, karatea eta batuka eta urtarrilaren 4an, karaokea.

**ELKARTASUNA** > GABONETAKO JAKI BILKETA

## Saharar errefuxiatuendako jakiak abenduaren 26tik urtarril hasierara arte batuko dituzte

Atuna, konpresak, azukrea, lentejak eta arroza batzeko kaxak ipiniko dituzte

**U.M.** > ARRASATE
NUBIk, Arrasateko Sahararen Lagunen Elkarteak Sahararen aldeko elikagai bilketa egingo du abenduaren 26an hasi eta urtarrilaren hasierara arte. Arrasateko eta Oñatiko hainbat denda eta puntutan kaxak ipiniko dituzte saltokietan horretarako. Honako produktuak batuko dituzte: atuna, konpresak, azukrea, lentejak eta arroza.

**JAKI BILKETA ZUZENA**
Horrez gain, abenduaren 28 arratsaldean eta 29an egun osoz, Hiper Eroski, Eroski Center eta BMn zuzeneko bilketa egingo du NUBIk. Eta hori egin ahal izateko herritarren laguntza behar dute. Deialdi berezia egin gura diete herritarrei parte hartzeko. Interesa izanez gero, honako telefono zenbakietara dei daiteke: 685 72 48 16 (Lourdes), 685 72 48 17 (Agurne) edo 685 72 48 18 (Maria).

Gero, otsailean eramango dituzte jakiak euskal karabanan Tindoufera, han dauden sahararren kanpalekuetara. Hori horrela, jakina, dirua ere behar dute karabana hori antolatu ahal izateko. Bada, NUBIk bi kontu korronte zabaldu ditu laguntza batzeko: Caixan (2100 1972 05 0100226062) eta Euskadiko Kutxan (3035 0001 51 0010097799).

> ELKARTASUNA

### Hainbat herrialdetako emakumeek tokian tokiko produktuak erakutsiko dituzte hilaren 29an

Ekin Emakumeak elkarteak antolatuta, kultura aniztasun jaialdia izango da abenduaren 29an Herriko Plazan. 19:00etan hasita, Kolonbia, Bolivia, Brasil eta beste herrialde batzuetako musika entzuteko eta jakiak dastatzeko aukera izango da. Helburua da "kultura desberdinak herritarrei helaraztea; kanpotik etorritako emakumeok ibili dira hemengo kontuak ikasten; bada, egun horretan, eurena erakutsiko dute", azaldu du Amaia Oianguren Ekineko kideak.

> ARRASATEKO UDALA

### Kromoak trukatzeko ekimenaren barruan, beste hitzordu bat egin dute oraingo domekarako

Hogeitik gora lagun elkartu ziren joan den domekan egindako kromoak trukatzeko ekimenean. Udalak modu positiboan baloratu du hori, "umeak oso pozik ibili ziren, eta gurasoak ere bai", adierazi du Nerea Lazpiur udak teknikariak. Eta jakinarazi du halako gehiago egingo dituztela. Hitzorduak, domekero, eguerdian, plazan.







**ERAKUSKETA** > VALENTIN ARANAREN MARGOLANAK HARRESI ARETOAN

# Erretratuak, paisaiak eta figurak Harresin

Valentin Arana arrasatearraren 40 oliozko lan erakusgai daude Harresi aretoan abenduaren 23ra arte

**A.ARANBURUZABALA** > ARRASATE

Valentin Arana (Arrasate 1960) artistaren 40 margolan ikusteko aukera dago Harresi aretoan. Erretratuak, figurak eta paisaiak ditu erakusgai. Olioak dira.

Hirugarren aldiz dira Aranaren lanak herriko aretoan. Oraingoan, paisaiak dira gehienak: Udala, Bedoña eta herriko kaleez gain, Donostiako portua ere irudikatu du. Horrez gain, erretratuak eta figurak ere badira: erretratuetan, ama eta bere irudia jaso ditu; figuretan, besteak beste, arrantzaleak daude.

Koloreari dagokionez, garrantzi handia ematen dio, eta grisak ditu gustuko. Bakarka eta irudikatu nahi duenari argazkia aterata margotzeko ohitura du.

**ASPALDIKO ZALETASUNA**

Aranak txikitatik du margotzeko zaletasuna; Julio Gallarta izan zuen irakasle. Pilotarekiko zaletasunak hartu zion gero margoaren lekua eta orain 16 urte heldu zion berriz ere pintzelari. Gallartak bultzatu zuen berriz ere margotzera. Ondoren, Carlos Gil bilbotarraren eskolak jaso zituen.

**SALGAI DAUDE**

Erakusketan dauden lanak salgai daude eta tamainaren araberako salneurria dute.



**VALENTIN ARANA** Harresi aretoan erakusgai dagoen margoetariko bat. VALENTIN ARANA

> GOSPEL KONTZERTUA

### New Orleansko 'Joyful Gospel Choir' taldearen domekako kontzerturako sarrerak agortu dira

New Orleansko Joyful Gospel Choir taldeak emanaldia egingo du domekan, Amaia antzokian, 20:00etan. Eta antolatzaileek jakinarazi dute sarrerak agortuta daudela. Guztira 750 sarrera saldu dituzte.

Joyful Gospel Choir New Orleanstik, jazzaren eta bluesaren ikurra den hiritik, helduko da etzi Arrasatera. Abesbatzak, soul eta-gospel eta rhytm and blues doinuak egiten dituen Joyful taldean du oinarria; taldeko koroak egiten zituen. Egun, historian bira gehien dituen gospel talde arrakastatsua da.

Etziko kontzertuko kantu zerrendan, Gabonetako kantuez gain, besteak beste, *Amazing Grace* eta *Stand by me* ezagunak daude.

> ARRASATE MUSIKAL

### Urtea amaitu bitartean bi kontzertu egingo dituzte herrian Arrasate Musikaleko kideek

Gaur, egubakoitza, Arrasate Musika Eskolako 10 eta 16 urte bitarteko 50 ikaslek kontzertua egingo dute Kulturaten, 18:30ean. Lehenengo aldia da, elkarrekin, instrumentu ezberdinak batzen dituen emanaldia egingo dutena. Gabonetako kantuez gainera, euskal kantu tradizionalak eta doinu klasikoak entzuteko aukera ere izango da.

Abenduaren 31n, berriz, urtetako ohiturari jarraituz, Arrasate Musikaleko Nagusien Bandak Gabon zaharreko kontzertua egingo du Amaia antzokian, 13:00etan. Giroa berotzeko, emanaldiaren aurretik, herriko kaleetan zehar kalejira egingo du bandak. Taularen gainean izango diren 65 musikariek, Gabon kantuez gain, besteak beste, *Gozzila* filmaren soinu banda joko dute.

> GOIKOBALU

### Goikobalu abesbatzak Gabon kantuak abestuko ditu, kalerik kale, astelehenean

Abenduaren 24an, astelehena, Goikobaluko kideak kalean izango dira Gabon kantuak abesten. Eguerdian, 13:30ean, Txoronpio eta Txoronpia Olentzeroren postariak Seber Altube plazara heldutakoan, herriko beste talde batzuekin kantatuko dute. Arratsaldean, berriz, Iturbide egoitzan, 17:00etan, elkartuko dira abesbatzakoak, handik ospitalera joango dira eta gero, erdiguneko kaleak girotuko dituzte. Kalejira amaitzeko, 19:30ean, Herriko Plazaraino joango dira, eta han Olentzerorekin elkartuko dira.

Abenduaren 29an, berriz, Goikobalu Gazte eta Txiki abesbatzako kideak Errenteriako Gabon kantuen txapelketan izango dira.

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

MADINA ZURAK
Aroztegia
• Olak
• Aglomeratuak
• Kontratxapatuak
• Tablexa
• Ateak
• Egurrezko leihoak
• Oin-inguruak
• Zangoak
• Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

KONTRATAK
IRUROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40



iKER *Zatoz eta ikus itzazu!*

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR



ANDAMIORIK GABEKO LANAK




ÑAÑARRI
LAN BERTIKALAK

680 641 401
676 952 968

**Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak**

Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak Tximiniak
Altuerako kimatzeak

AUKEA > 2008KO KIROL ESKAINTZA

# Olentzerori osasuna eskatu ahal zaio aurten

Martitzenean aurkeztu zuen AUKEAk 2008ko 'Kirola zeureganatu' kanpaina, hainbat berritasunekin

X.U. > BERGARA

Aurkeztutako berritasun horietako bat da AUKEAren bitartez herritarrek Olentzerori osasuna eskatu ahal izango diotela. Horretarako jarri dute abian *Oparitu osasuna!* kanpaina. Hala, AUKEAk Gabonetan opari egiteko txarteltxo batzuk prestatu ditu, eta txarteltxo horien bitartez herritarrek urteko abonamendua opari egin ahal izango dute; alegia, osasuna.

**BERRITASUN GEHIAGO**

Musakolako kiroldegiak 30 urte bete berri dituen honetan, berrikuntzak txertatuko dituzte kiroldegiaren funtzionamenduan. Datorren urteari begira, *Kirola zeureganatu!* delako kanpaina ipini dute martxan eta egokitzapenak ekarriko ditu horrek: kiroldegiko ordutegiak zabalduko dituzte eta kirola herritarren beharretara egokitzea izango da ardatza. Hori azaldu zuten martitzenean kirol teknikari Iratxe Aranburuk eta Udaleko ordezkari Yolanda Perez de Arenazak.

Azaldutakoaren arabera, aurten 5.500 abonatu izan ditu Musakolako kiroldegiak eta datozen urteetan kopuru hori hazi egingo dela aurreikusten dute arduradunek. Hala, hazkunde horri erantzuteko, 2008an kirol eskaintza ordutegi berrietara zabalduko da eta aretoetan berrikuntzak egingo dituzte, hala nola gimnasioan eta yoga aretoan, eta instalazioen ordutegia ere zabaldu egingo dute.

**ABONATZEAREN ONURAK**

Prentsaurrekoan, Iratxe Aranburuk abonatzearen onuren gainean ere egin zuen berba. Batetik, bakoitzak dituen beharrak asetzeko abonu mota ezberdinak dituztelako, instalazioen erabilerak doan dituztelako, baita astek o alokairuak ere, eta horrekin batera ikastaroetan ere deskontuak dituztelako.

Esan beharra dago *Kirola zeureganatu!* kanpainaren gaineko xehetasunak, kiroldegiko ordutegiak eta bestelakoak etxerik etxe banatuko dituzten informazio orrietan izango dituzuela. Datorren astean banatuko dute.



KANPAINA BERRIA Iratxe Aranburu eta Yolanda Perez de Arenaza, aurkezpenean. AUKEA



GOIENKARIA

## Aloña-Mondra derbia domekan

Urtea amaitzeko derbia jokatuko dute Aloña Mendik eta Mondrak Azkoagainen (domeka, 15:30). Datuek erakusten dute Azkoagainen jokatutako azken derbiak ikusgarriak izan direla, eta gol askokoak. Berez, Aloña (23) gorputzaldi hobean iritsiko da derbira, baina puntuen behar handiagoa du Mondrak (19).

> PILOTA

## Gabonetan pilotan jokatzeko topaketak egingo ditu Arrasateko Pilota Taldeak

6 eta 7 urteko gaztetxoek –2000. eta 2001. urteetan jaiotakoak– ez dute Gabonetan aspertzeko aitzakiarik izango, Arrasateko Pilota Taldeak eurei zuzendutako topaketak antolatu ditu-eta abenduaren 26rako, 27rako eta 28rako.

Klubean lanean dabiltzanek erabaki dute Arrasateko gaztetxoak pilotalekura gerturatzeko ekimen bereziak egitea, eta topaketa da horietako bat. Hala, aipatutako egunetan gaztetxoek irekita izango dituzte Uarkapeko ateak, 11:00etatik 13:00etara bitartean.




arrasatearrak kanpoan

**Xabier Aliaga** > Arkitektura Teknikoa ikasten ari da Granadan bizi da

# "Granadako jendea oso irekia da, eta horrek asko lagundu dit"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Xabier Aliaga arrasatearra Granadan bizi da. Arkitektura Teknikoa ikasten dihardu 2006ko iraila ezkero. Hasierako hilabeteak nahiko gaizki pasatu zituen arren, orain gustura dago bertan.**

Xabier Aliagak, Arrasaten goi mailako modulu bat egin ondoren, Burgosera joateko aukera ere bazuen, baina zera dio: "Granadari buruz oso ongi hitz egin zidaten eta bertara joan nintzen".

Xabierrek hasierako hilabeteak nahiko gaizki pasatu zituen, familia eta lagunak Arrasaten zeuden-eta, baina unibertsitatean berehala egin zituen lagunak, eta, hala, haiek animatuta errazagoa izan zen egoera berrira moldatzea.

Hasieran, Xabier ikasleen egoitza batera joan zen, baina Aste Santu ondoren, Sevillako beste bi lagunekin etxebizitza batera joan zen: "Mutil horiek Granadan egon nintzen hilabeteetan ezagutu nituen eta haien etxeko gela bat hutsik gelditu zenean hara bizi izatera joan nintzen."

**"Arrasaten baino euskara gehiago egiten dut hemen; ahal dudan guztietan, behintzat, bai"**


Xabier Aliaga.

Xabierrek dio Granadan jendea oso irekia dela, eta bertako lagun batzuekin ikusi dituela Granadako txokoak. Xabierren asmoa da 4-5 urte barru Arkitektura Teknikoa amaitu eta Arrasatera bueltatzea.

Hizkuntzari dagokionez, hauxe dio: "Arrasaten nagoenean baino euskara gehiago egiten dut hemen; ahal dudan guztietan, behintzat, bai".

**IKASLE HIRIA**

Xabierrek dio Granada ikasle hiria dela: "Kaletik zoazen bakoitzean, hizkuntza desberdin asko entzun daitezke". Eta harrituta utzi duen beste gauza bat pintxoak jatea izan da: "Hemen ez dira tabernatik tabernara *tapak* jaten ibiltzen: taberna batetik mugitu gabe hainbat jan eta edan egiten dugu".

txutxu-mutxua


GOIENKARIA

# Ogi-mamien eguna ospatu zuten Arrasaten

**Aurten ere, Arrasaten dagoen Extremadurako Corazon de Encina kultura elkarteak ogi-mamien eguna ospatu zuen abenduaren 16an. Urtero Debagoieneko herri batean egiten da: joan den urtean Oñatin izan zen eta aurten Arrasatekoen txanda izan da. Laubide plazan bildu ziren elkartekoak goizean goiz prestaketa lanak egiteko eta ogi-mami eta bestelakoak prestatzeko. Eta, prestaketa lanak amaituta, 11:00etan hasi ziren banatzen bertara bildutakoen artean ogi-mamiak eta bestelako jakiak: urdaiazpikoa, txitxi-burruntziak eta edariak. Hain zuzen ere, 500 arrazio inguru banatu zituzten eta elkarteko 12 lagun inguru ibili ziren zerbitzari lanetan.**

bere ustez


Oihan Zubizarreta

# Don't worry, be happy, happy, happy...

Urtea amaitzear dago. Hilabeteak egutegitik eroritako orri hutsak baino ez dira. Eta urteari amaierarik nardagarriena eman diezaiogun, ditxosozko gabon egunek estaliko dituzte gure gogoak.

Elkarrekin bildu eta zoriontsuak izatera obligatuko gaituzte. Kaleetan zintzilikatu dizkiguten neoizko argi jasanezinak islatuko dira gure aurpegietan eta dendetako erakusleihoetara itsatsiko zaizkigu begiak. Eta hitz egingo digute aurtengo an jazotako miseriez eta notizia gogoangarriez. Eta ahaztuko zaizkigu istripuz hil diren obreroak, patera-ontzitan galdu diren immigranteak, kartzelatan bahitu dizkiguten seme-alabak, aurrerapenerantz garamatzaten tren fantastikoak, hirugarren eta bederatzigarren munduetako heriotzak, sarraskiak eta miseriak. Eta urte berri baten zain geratuko gara denbora zoratzen ari dela konturatu gabe. Eta iragarpen berriekin ekingo diogu urteari: gau hauetako batean eguzkia aterako dela, ilargiak erreken gainean isla egiteari utziko diola, Jainkoa berpiztu egingo dela… Zoratzen hasiak garelako izan behar du horrela… Nola izan zoriontsu bestela?

**"Zoratzen hasiak garelako izan behar du horrela... Nola izan zoriontsu bestela?"**

RECYCLING ekobai
recycling system
Kartutxoen berrerabilpena eta birziklapena.
Aurrezteko aukera bikaina!
*Zatoz eta informa zaitez!*
Arimazubi 1, behea • Arrasate • Tel/fax: 943 53 25 59


**UDALA** > 'ARTXIBOKO LANKIDETZAK' EGITASMOA

# XVI. eta XVIII. mendeetako seroren gaineko ikerketa

## Mikel Larrañagaren 'Serorak: gizarte bizitzaren analisia Deba garaian (XVI-XVIII)' lana lagunduko du Udalak

**GOIENKARIA** > BERGARA

Mikel Larrañagaren *Serorak: gizarte bizitzaren analisia Deba garaian (XVI-XVIII)* ikerketa proiektuari laguntza emango dio Udaleko Artxiboak. Ikerlaria Mikel Larrañaga Arregi bergararra da. Doktoradutza egiten ari da.

**SEI PROIEKTU AURKEZTU DIRA**

Aurten lehenengo aldiz *Artxiboko lankidetza* egitasmoa abian ipini du Udalak. Helburua Bergarako eta bergararrei buruzko ikerketak bultzatzea izan da.

Informazio eske makina bat ikerlarik deitu dute eta azkenik sei ikerketa proiektu jaso dituzte Udaleko Artxiboan. Pozik dira lehenbiziko deialdian jasotako erantzunarekin. Lan zeharo ezberdinak aurkeztu dituzte. Gaiaren arabera Erdi Arotik XX. mendera arteko proposamenak egon dira.

Esan bezala, adituen aholkularitza jaso ondoren batzordeak Larrañagaren lana bultzatzea erabaki du. Gaiaren interesa eta planteatzeko modua nabarmendu dute. Ikerketa egiteko 2.470 euroko laguntza emango dio Udalak eta 2008ko azarorako lana bukatuta egongo da.

**UDALA** > OSOKO BILKURA ASTELEHENEAN

# Ozaetako babes ofizialeko etxeei udalbatzaren baietza

## Bitxor eraikuntza enpresak 32 etxe eraikiko ditu eta Udalak 67.200 euro jasoko ditu

**E.M.** > BERGARA

Ozaetak egingo dituen babes ofizialeko etxeei udalbatzak, aho batez, baietza eman zien asteleheneko osoko bilkuran. Lauri Askargorta EAko ordezkaria ez zen bilkuran izan.

Aipatutako etxeak Ozaetatik saihesbideko sarrerara doan tartean, ezkerraldean egingo dituzte. 32 etxebizitza eraikiko ditu Bitxor eraikuntza enpresak. Ustiapen urbanistikoaren %10agatik, Bergarako Udalak 67.200 euro jasoko ditu.

Eraikiko dituzten etxeetatik bost, zenbait plan urbanistikoren erruz, Zubiaurren kaltetutako bost familiari zuzendutakoak izango dira. Eta gainerako 27 etxebizitzak zozketa bidez adjudikatu dituzte, betiere Jaurlaritzak zehaztutako irizpidean arabera. Ziurrenik, 2008ko udaren ostean egingo dute etxeen zozketa.

# Kevin Conderen argazki saritua

Akats bategatik okerreko argazkia argitaratu genuen aurreko astean orrialde honetan. Alboan duzue Jaurlaritzako Kultura Sailak saritutako Kevin Conderen argazkia. DBHko ikasleen artean deitutako lehiaketan 499 argazki jaso zituzten: liburu bat irakurtzen diharduen norbait azaldu beharra zegoen. Aranzadi ikastolako Kevin Condek argazki originalarenari zegokion saria jaso zuen. Sari gisa argazki kamera digitala jaso zuen Condek Durangoko azokan.




KEVIN CONDE

**JAIAK** > ANTZINAKO FERIAK

# Napar feriaren X. ekitaldia zapatuan San Antonion

## Nafarroako produktuak, jaiotzak, musika eta jolasak izango dira biharko protagonistak

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Azken urteotan ohikoa denez, Gabonen atarian Napar feria ospatuko dute San Antonion. Bihar, zapatua, izango da hitzordua. Gure Ametsa elkarteak antolatuta, feriaren X. ekitaldia da aurtengoa.

Feria 10:30ean zabalduko dute eta, besteak beste, pateak, txorizoak, gozogintza produktuak, gaztak, xanpaina eta ardo ekologikoa izango dira salgai.

**JAIOTZAK, POSTALAK ETA JOLASAK**

San Antonioko kaperan meza izango da 11:30ean eta 13:00etan jaiotzen eta postalen lehiaketetako sari banaketa egingo dute. Jarraian, Alai taldeak hainbat kantu eskainiko ditu 13:30ean, eta gaztetxoentzat poneyak, zezentxoak eta bestelako jolasak jarriko dituzte.

Goizean zehar Angel Ezkurra *DJ Angie* arituko da musika jartzen.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

KAI
KAI BERRI TABERNA
Musika ona eta giro hobea!
**Abenduaren 28an**, egubakoitzean,
23:00etan
**Erdi Aroko musika kontzertua**
**Gabon zaharrean zozketa berezia**
Zenbakia 2 €
**Gitarra elektrikoa + anplia**
***Urte berria doinu onean hasteko!***
Kruz Gallastegi 3 Bergara





zorionak eta urte berri on!



ARANZADI
ikastola

Tel. 943 76 90 71 San Martin Plaza, 4. bergara@ikastola.net



ESKURA Aranzadi ikastolako neska-mutikoak DVDa eskuan dutela. Herriko denda eta tabernatan eros daiteke. GOIENKARIA

**KILOMETROAK 07** > OROITZAPEN DVD-A

# Kalean da Kilometroak 07ko hiru orduko DVDa

**GOIENKARIA** > BERGARA
Kalean da Kilometroak 07ren gaineko DVDa. Aranzadi ikastolak argitaratu du aurtengo Kilometroen oroigarri modura. Bergarako hainbat denda eta tabernatan dago salgai, 12 euroren truke. Eguaztenean aurkeztu zuten. "Bi DVD hauek urtean barrena eta urriaren 7ko jaian antolatu genituen ekitaldiak jasotzen ditu ikus-entzunezkoen bidez, eta, horretaz gain, argazki piloa ere badakartza. Testigantza ezin hobea da 2007ko Kilometroak izan dena oroitzeko" esan zuen aurkezpenean Unai Azkarate Kilometroetako koordinatzaileak".

**DVD BIKOITZA**
DVD bikoitza da eta disko bietan jaso dira hainbat ikus-entzunezko. Hiru ordu gutxi gorabehera. Eta baita argazki piloa ere. DVDaz gain, DVD-ROM ere bada.

Lehenengo DVDan aurkituko dugu erreportaje bat, ordubete ingurukoa. Horretaz gain, bideoklipa eta argazki bilduma ere aurki daitezke DVD horretan. 300 argazkitik gora, paperean inprimatzeko moduko kalitate eta bereizmenarekin. Bigarren DVDan aurkituko ditugu urtean zehar egin diren bi ekitaldi nagusien grabazioa: batetik, Jam aretoan 2006ko abenduaren 1ean egin zen hasierako jaialdia (arropa desfilearena); bestetik, ekainaren 8an Bergarako Udal Pilotalekuan egin zen abestiaren aurkezpen jaialdia. DVDa osatzeko, azkenik, GOITBk Kilometroak eguneko musika taldeen gainean egin zuen *Musikantoi* berezia ere jasotzen da.

**DENDAK** > LEHIAKETA GABONEN ATARIAN

# Biltoki, Ninika eta Kanelako erakusleihoak, sarituta

### Ongien apaindutako balkoiari zegokion saria Ormazabal Hotelak jaso zuen eguaztenean

**E.M.** > BERGARA
Biltoki, Ninika eta Kanelak jaso dituzte aurten erakusleiho lehiaketako sariak. Eguaztenean banatu zituzten sariak eta Maria Jesus Baskaran, Uxue Azkaratek eta Ana Revueltak trofeo bana eta 250 euro jaso zituzten. Udalak Bedelkar dendarien elkartearen, Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren eta Beart margolarien elkartearen laguntzarekin antolatzen du lehiaketa. Bestalde, ongien apaindutako balkoien lehiaketa egin dute lehen aldiz eta Ormazabal Hotela nabarmendu dute. Aintzane Bideluzek jaso zuen saria.



DENDAK Saritutako dendetakoak, Bedelkarreko eta Udaleko ordezkariekin. J. ZABALA

> SOLIDARITATEA

## Sahararen aldeko elikagai kanpaina abian eta argazki erakusketa hilaren 29an eta 30ean

Sahararen aldeko Bubisher elkarteak elikagaiak batuko ditu urtarrilaren 17ra arte: arroza, atuna oliotan, dilistak eta konpresak jasoko dituzte ohiko puntuetan. Laguntza ekonomikoa emateko Euskadiko Kutxan kontua ireki dute: 3035 0080 94 0800054177.

Bestalde, abenduaren 29an eta 30ean, goizez, Sahararen aldeko produktuen salmenta eta argazki erakusketa jarriko dute Muniben.

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Irrintzi
kafetegia
Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Gabonetan edertasuna opari egin!
Estetika zentroa
Igaro
Barrenkale 35
943 76 17 27
BERGARA
Igaron, goza ezazu osasuna eta ongizateaz
Gabon zoriontsuak guztioi!

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32


GABON ZORIONTSUAK eta URTE BERRI ON
SHOTOKAN KARATE BERGARAKO
Shotokan "Continuing the legacy"
URTE BERRI ON
SHINNEM O-MEDETÓ GOZAIMASU


Olentzero eta
Mari Domingi maittiak:
San Martin Agirre
herri eskola
Abenduaren 20an 15:15etan
Haur Hezkuntzako Gabonetako Jaialdia, Eskolako Aretoan.
Abenduaren 24an 11:00etan
Eskolan elkartuko gara Olentzerorekin irtetzeko.
Mari Domingi eta
Olentzero
San Martin
M.Altuna
Ipintza
Haurreskola
HHI-EPA

Domekan, abenduak 23, Bearteko lokalak eta artisten estudioak zabalduko dituzte hainbat lan erakusteko

**ERAKUSKETA**> BEART ELKARTEKO ARTISTEK ATE IREKIEN EGUNA

# Bergarako hamar artistaren lanak ikusgai ate irekien egunean

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Bergarako hamar artistak euren lanak erakutsiko dituzte datorren domekan egingo duten ate irekien egunean. Bertan, pintura, zeramika eta eskultura lanak ikusgai egongo dira. Hain zuzen ere, Bearteko lokalean eta artista bakoitzak Aranerreka kaleko 21. eta 27. zenbakien artean duten geletan izango da, 11:30etik 15:00etara. Ondorengo artistek hartuko dute parte: margolariak, Peio Alberdi, Juanjo Altuna, Anton Arrillaga, Rikardo Azkargorta, Bingen De Pedro, Luis Laskurain, Jone Telleria eta Marilu Untzurruntzaga; eskultoreak, Xabier Diaz de Zerio; eta zeramika eta eskultura, Santi Arrieta.

**ERAKUSKETA AROZTEGIAN**

Bestalde, ate irekien egunaz gain, abenduaren 21etik 30era bitartean, Beart Bergarako margolarien elkarteko lanak egongo dira ikusgai Aroztegiko aretoan. Herriko margolariek euren lanak erakutsiko dituzte.

Erakusketa ikusi nahi duenak Aroztegiko ateak zabalik izango ditu martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era, eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00ak arte eta 18:00etatik 20:30era.



GOIENKARIA

## Olentzero marrazki lehiaketa

Eguaztenean banatu zituzten Jardunek antolatutako Olentzero marrazki lehiaketako sariak. Guztira, sei sari banatu zituzten Bergarako hiru ikastetxetako 800 parte-hartzaileen artean. Lehenengo mailatik seigarrenera, hauek izan ziren irabazleak: Felix De la Cruz, Xabier Argarate (argazkian falta da), Jon Orbea, Maitane Larrañaga, Naroa Intza eta Iñigo Larrañaga.

**IPUIN KONTAKETAK** > KONTU KONTARI

## Haur zein helduek ipuinekin gozatzeko aukera

Abenduaren 26tik 30era, haur eta helduentzako ipuinak Munibe plazan

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Haur eta helduentzako ipuin kontaketak egongo dira Gabon jaietan Munibe plazan, Bergarako Udalak antolatuta.

Abenduaren 26an, Koldo Amestoyren *Harriola Marriola* ipuin kontaketa egongo da. Abenduaren 27an, Joxe Mari Karrerek *Ipuin konferentzia* emango du. Saio horren bidez, ipuinak kontatuz bizi izateko egin behar dena azalduko digu. Abenduaren 28an, berriz, Doro Zobaranek *Buhamea*-ri buruzko ipuin kontaketa egingo digu. Buhamea Zuberoako maskaradetan agertzen den pertsonaia da, herririk herri dabilen nomada euskalduna. Buhameak belaunaldi berriei helarazi nahi dizkie garai bateko istorioak eta kontakizunak.

Hiru eguneko saioak arratsaldeko zazpietan izango dira eta sarrera doakoa izango da.

**HAURREN IPUIN KONTAKETA**

Haurren ipuin kontaketek ere izango dute euren tartetxoa. Abenduaren 29an, 18:30ean, Katiuska Hegalaria taldearen *Loti ederra* ipuina egongo da. Eta bigarren ipuin kontaketa abenduaren 30ean izango da, 18:30ean, Gorakada taldearen *Titirikontu-kontari* saioarekin. Sarrera doakoa izango da.

**MUSIKA**

## Gabonetako kontzertua Udal Pilotalekuan

Biharko kontzertua 22:30ean hasiko da eta bost taldek parte hartuko dute

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Bihar, zapatua, abenduak 22, Gabon kontzertua egongo da Udal Pilotalekuan, 22:30ean, Bergarako Udalak eta Musika Eskolak antolatuta.

Bertan, Udal Musika Bandak *1832* (Tchaikovsky)lana eskainiko du, eta ondoren, Bandaren 175. urtemugari amaiera emateko *1832* (Alfredo Gonzalez Chirlaque) lana eskainiko dute. Bergarako Orkestra Sinfonikoak *Diagram* lana eskainiko du (Waignen). Horiez gain, Aritzeta abesbatzak, Gabero abesbatzak eta Bergarako Orfeoiak ere jardungo dute.

Kontzertuari amaiera emateko, parte hartu duten talde guztiek *Gabonetako estanpak* (Miguel Gonzalez Bastida) lana eskainiko dute. Gabonei begira sortutako lana da. Kontzertuak bi orduko iraupena izango du eta sarrerak 6 euro balioko du.

**GAURKO KONTZERTUA**

Gaur, egubakoitza, Musika Eskolakoek Gabonetako kontzertua eskainiko dute Udal Pilotalekuan, 18:30ean.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Energia fotovoltaikoa
Energia termikoa
Geotermikoa
ALET
ALET TALDEA S.L.
Zorionak eta urte berri on!
Amillaga 10, 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
620561316 / 669366953 • Faxa: 943762052
e.maila: info@alet-taldea.com • www.alet-taldea.com
Erregistro industriala: 20/28318 • INSTAGIren sozietate elkartua


B - O - L - U
Harane Erreka 9. tel.: 943 76 72 91 . 20570 Bergara
GIMNASIOA
B·O·L·U
SPINNINGA
TAI-CHIA
ARETOKO DANTZAK
SEVILLANAK
AEROBIKA
STEPA
KARATEA
BOLU GIMNASIOAK GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
MUSKULAZIOA
PILATES
SASOIAN EGOTEKOA
NOBEDADEAK
SAUNA
SEVILLANAK UMEENTZAT
KOREOGRAFIAK
ESTRESAREN AURKAKO TAILERRA
BIZKARRA ZAIN EZAZU
DISEINA ITZAZU
AROMATERAPIA
SALSA ETA MERENGEA IRAKASLEA KUBATARREKIN
SHINKYOKUSHINKAI
KARATE
KARATE SHINKYOKUSHINKAI
BERGARA
ORAIN INSTITUTOAN ERE GAUDE!!!
Tokia: Ipintza Institutuko Batxilergoak
TEl. 670 24 19 31
690 10 36 60
Astelehena - Asteazkena - Ostirala
Umeak: 19etik 20era
Nagusiak: 20etik 21era




GARAI HORTZ KLINIKA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ENDODONTZIA
PERIODONTZIA
ORTODONTZIA
INPLANTOLOGIA
PROTESIAK
HAGINEN ZURITZEA
AZKEN TEKNOLOGIAK

Jazarpen Garai Txintxurreta :: Kepa Abasolo Trueba :: Maite Gonzalez Palacios
Odontologoa — Ortodontzia — Inplanteak

2008ko urtarrilaren 2an irekiko dugu
Aurretik txanda hartzeko: Abenduaren 27 eta 28a,
arratsaldeko 16tik 20ra, klinikan edo telefonoz.

Tel.: 943 534263 - 688652104
Iralabarri plaza 15. Aretxabaleta

Kontsulta eta azterketa dohainik.



ESKOLA AGENDA 21 Inaxio Garro alkateak egin zien harrera Kurtzebarri eskolako ikasleei, eta jasotako erantzunen balorazioa eskatu zien. M.A.

**INGURUMENA** > ESKOLA AGENDA 21

# Ikasleek egindako eskaerek Udalaren erantzuna jaso dute

"Gabonetako argi gutxiago baina politagoak" jartzeko eskatu zuten

Kontsumo arduratsuaren gainean egingo dute lan ikasturte honetan

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Maiatzean aurkeztu zizkioten energia kontsumoa aurrezteko proposamenak Kurtzebarri eskolako ikasleek Udalari. Eta orduan egindako eskaerei erantzuteko batzarra egin zuten astelehenean. Alkatea, Ingurumen zinegotzi Joxe Anjel Antxia eta Jose Mari Segovia Hirigintza teknikaria batu ziren ikasleen ordezkariekin.

**ARGITERIA BERRITZEN**
Herriko argiteria zelan hobetu eta energia kontsumoa zelan murriztu aztertu du Udalak. Energia eraginkortasuna aztertzeko farolen inbentarioa egin du, eta poliki-poliki ekintza plana abian jartzeko asmoa du. Ur hodien saneamendu lanekin batera argiteria berritzen dutela jakinarazi die Udalak, eta datorren urtean Herriko Plazakoei dagokie.

Gabonetarako jarritako argien inguruan iradokizuna egin gura izan zuten ikasleek batzarrean: "Gutxiago baina politagoak jarri beharko lirateke".

Eraikin publikoetako energia kontsumoa eta beroketa instalazioak ere aztertu zituzten. Eta eguzki plaken erabilera gomendatu arren, Hirigintza teknikariak azaldu zien oraindik ez dela teknologia oso eraginkorra.

Ur kontsumoaren inguruan, herriko iturri guztiak aztertuko dituztela jakinarazi zieten, eta kaleen garbiketa zerbitzua hobetzearen alde egin dutela.

**ORAIN, KONTSUMO ARDURATSUA**
Bestalde, Tolosako Artelatz taldeak lagunduko die herriko ikasleei ikasturte honetako gaiak lantzen: kontsumo arduratsuaren gainean hausnartu beharko dute. Lehen Hezkuntzan, esaterako, hamaiketakoa, jostailuak eta litxarreriak aztertuko dituzte; 3. ziklokoek, gainera, kontsumoaren azterketa egingo dute. DBHko 1. ziklokoek, ostera, publizitatearen inguruan egingo dute lan; eta 2. ziklokoek dendetako marketina aztertuko dute.

**ELKARTASUNA**

## Presoei laguntzeko azoka, bihar hasita

Bigarren eskuko arropa eta bitxiak jarriko dituzte salgai bihartik hilaren 31ra

**M.A.** > ARETXABALETA
Aretxabaletako preso politikoen aldeko Topaguneak bigarren eskuko arropa eta bitxien azoka antolatu du. Bihar, hilak 22, hasi eta urtea bukatu bitartean arratsaldero zabalduko dute, udaletxe zaharreko atarian, 17:00etatik 20:00etara.

Azaroan jaso zituzten herritarrek emandako arropa eta bestelako zenbait kontu, eta orain, oso merke salduko dituzte. Lehenengoz antolatu dute halako azoka Aretxabaletan, eta inguruko herrietan izan ohi duen arrakastak animatu ditu antolatzaileak. Helburua da dirua jasotzea, bai presoen senideendako, bai presoen alde egingo dituzten ekitaldietarako.

> AISIALDIA

### Ekitaldi ugari ume eta gazteendako Gabonetako egunetan

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte umeendako Udalak eta ludotekak. Hilaren 26an, *Jokalata* jokoak 11:00etan, Iturrigorri pilotalekuan, eta 28an, ume batukada, 16:00etan, kirol etxean. Urtarrilaren 2tik 4ra, ostera, ludotekan izango dituzte ekintzak: tailerrak, karaokea… Eta urtarrilaren 4an, Bilboko Gabon parkera irteera.

Gazteek, ostera, hilaren 26an play station erraldoia izango dute; hilaren 27an, Urban Bai ikuskizuna –roller, skater, biker, breaker–; hilaren 28an, batukada tailerra; 29an, Kutxagunera irteera, eta 30ean, urteko azken jaia.

GARBITTU KOOP. ELK.
*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak*
*Obra bukaerako garbiketak*
*Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak*
*Kristalen garbiketak*
Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

BENGOA
*URDAITEGIA*
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79



KARATEKAK Donostiako Gabonetako kartate jaialdian izan ziren bederatzi aretxabaletarrak eta arrasatear bat. ODILO VAZQUEZ

**KIROLAK** > KARATEA

# Gabonetako jaialdian izan dira bederatzi karateka

Aretxabaletako bederatzi karateka izan ziren domekan Donostian, Gabonetako karate jaialdian, eta postu dotoreak eskuratu zituzten

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Gabonetako karate jaialdia egin zuten joan zen domekan Donostian, eta Aretxabaletako UDA Karate taldeko bederatzi karateka izan ziren bertan. Lau mailatan jokatzen duten 8 eta 15 urte arteko zortzi mutiko eta neska bakarra izan ziren, Odilo Vazquez entrenatzailea lagun zutela. Oso gustura itzuli ziren guztiak egindako lanarekin eta batzuek, gainera, postu dotoreak eskuratu zituzten.

**POSTU DOTOREAK**

Kata modalitateko hasiberrien mailan laugarren egin zuen Gorka Gonzalok; gainera, 40 jokalaritik gora zeuden maila horretan. Infantil mailan, ostera, bigarren egin zuen Ekaitz Irustak eta hirugarren Xabier Zubillagak. Eta gazteen mailan hirugarrena izan zen Odei Vazquez. Kumite modalitatean ere hartu zuen parte Odei Vazquezek –55 kilo azpikoen tartean– eta hirugarren egin zuen hor ere.

Aipatutakoez gain, hona izan ziren gainerakoak: Beñat Martin, Oxel Vazquez, Jon Gonzalo, Andoni Martin eta Sinead Nelson.

**OMENALDIA** > BIZITZAKO PASARTEAK

# Severiano Aiastui abadea gogoan

M.A./A.A.L. > ARETXABALETA

Azaroan hil zen Severiano Aiastui marianista omendu gura izan du Aitor Antxia Leturiak:

"Erraza eta era berean zaila da On Severiano Aiastui moduko gizon baten biografia idaztea. Erraza da bizitzako historien laburpen kronologikoa egitea; zaila da On Severianoren barne muinean bizi izan zituen egoera guztiak azaleratzea. Baina On Severiano ez zen beste bat, beste fraide bat, beste marianista bat; ez, On Severiano bakarra izan zen eta da.

Erraza izango litzateke bere marianista bizitzako pasabideak zehaztea: ikasle, irakasle, apaiz, zuzendari, Nobizioen maisu, Zuzendari Orokorraren laguntzaile Erroman… Baina bere barne bizitzak beste norabait zeraman, nonbaitetik deia jaso zuen; bihotzak urrutira joatea eskatzen zion, bihotzetik zerion eskuzabaltasunagatik. Eta guzti hori umetatik bizi eta garatutako fedeak bultzatuta. Lehen saiakeran ez zuen lortu. Misioetarako asmoa ezeztu ziotenean honela idatzi zuen: 'Hegaldia moztu didate, baina ez dut uste hegoak moztuko dizkidatenik'.

**ARGENTINAN 20 URTETIK GORA**

Zaila litzateke bere barne bilakaera espirituala jarraitzea, baina utzi dizkigu hiruzpalau ezaugarri. Argentinako Chaco-ra heldu zenean, eta ikusirik pobrezia –materiala zein espirituala– hartu motxila eta han abiatzen zen probintzia osoa (20.000 km koadro) gurutzatuz, familiak bisitatuz, meza emanez, umetxoak bataiatuz eta laguntza emanez. Hasieran oinez, hori zelaeta *El Cura Caminador* izena, gero zaldi gainean eta hura hil ondoren mando gainean. Beste behin, Chaco-n izugarrizko uholdea jasan zuten. Larru gorritan gelditu ziren, eta han abiatzen da hiriburura, Resistencia-ra; euskaldunok dugun inkernuaz gobernadorearengana joan, eta zor zioten bere apaiz soldata osoa eskatu, kamioi zahar bat janariz bete arte gastatu zuen. Herrira itzuli zenean banatu zuen, eta han non ikusten duten hurrengo egunean esne botila bat eske, ez baitzuen berarentzat ezer gorde. Gaur egun Comandancia Frias izeneko hiriak ur edangarria badu beragatik da. Medikua baldin badago, berari esker da, gazteen aldeko zentroa berak eraiki zuen.

Baina hori guztia nondik? Ondo esplikatzen zuen, gaztelerako esaera zahar bati buelta emanda. *Ojos que no ven corazón que no siente*. Ez! Berak zioen: 'Sentitzen eta sufritzen ez duen bihotzak ezin dezake inguruan dagoen sufrimendua ikusi'. Egia borobila. 'Ni euskalduna naiz, hortik aparte gai izan behar dugu beste kultura batzuk norberarengan uztartu eta anaitzeko, norberarena alde batera utzi gabe'. Horrela eman zituen bere bizitzako (93 urte) herena (33 urte) Afrikan eta HegoAmerikan.

Ikusi zuen anaia Sabino Aiastui aldaretara jasotzen, 2007ko urriaren 28an; bera pozik. Bi astegarrengo joan zen; hil zen? Ez, On Severiano modukoak ez dira hiltzen, bizitza aldatzen dute. Sabino Dohatsu izendatu zuten, On Severiano Santu egin dute jada. On Severiano agur eta ohore, adiorik ez".



Severiano Aiastui. GOIENKARIA

**FUTBOLA**

# Futbol eskolakoen arteko txapelketak

Oñati, Bergara, Arrasate eta herriko neska-mutikoek jardungo dute

M.A. > ARETXABALETA

Futbol eskoletan dabiltzan neska-mutikoen arteko txapelketak jokatuko dituzte Gabonetako oporretan. Oñati, Bergara, Arrasate eta Aretxabaletako kirol elkarteetakoek hartuko dute parte. Hilaren 26an eta 28an eta urtarrilaren 2an eta 4an, 1998 eta 1999an jaiotakoek jokatuko dute eta abenduaren 27an eta 29an eta urtarrilaren 3an eta 5ean, 1997an jaiotakoek. Partiduak 15:00etatik 17:00etara izango dira, Ibarra futbol zelaian.

Iaz arte –22 urtean– Peña Zubi izeneko txapelketa antolatu izan dute Gabon guztietan, eta mutiko koadrilek hartzen zuten parte. Aurten, baina, futbol eskolen bitartez bideratuko dituzte txapelketok.

> PATINAJEA

### Umeendako patinaje ikastaroa Gabonetako oporretan

Udal Kirol zerbitzuak patinaje ikastaroa antolatu du lau urtetik gorako ume eta gaztetxoendako. Abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 5era egingo dute kirol etxean, hortaz, zortzi saio. Bi maila zehaztu dituzte, eta ordutegi ezberdina izango dute: inoiz patinatu ez dutenak 10:15etik 11:30era, eta patinatzen jakin bai, baina teknika hobetu gura dutenak, 11:30etik 12:45era.

Abonatuek 34 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek, 40 euro. Izena emateko kirol etxera deitu behar da lehenbailehen.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

LANAK > INSTITUTUKO FRONTOIA ERABERRITUKO DUTE

# Zuazola-Larraña institutuko frontoia eraberrituko dute

## Hezkuntza Sailak 200.000 euroko diru partida ipiniko du

MIREN ARREGI > OÑATI

San Lorentzo auzoko Larraña institutuko frontoia eraberritu egingo dute datorren urtean. Urtarrilaren 10ean hasiko dira lanak eta hiru hilabeteren bueltan amaituta egotea aurreikusten dute Larraña institutuko arduradunek. Beraz, frontoiko erabiltzaileek tarte horretan ezin izango dituzte instalazioak erabili, eta, lanak bukatu ostean, berriz ere eskaera orria bete beharko dute instalazio berrituak erabili ahal izateko.

Instalazioen berritzea ezinbestekotzat jo du Larrañako zuzendari Kepa Altubek; izan ere, kirol ekintzak eta gorputz ariketak gauzatu ahal izateko instalazioak egoera onean egotea garrantzitsua dela dio. Frontoia eraberritu ostean, kanpoko instalazioak txukuntzea eta berritzea faltako da; hau da, bertako futbol zelaia eta abar eraberritzea. Hori eginda, amaitutzat emango lukete Zuazola-Larraña institutuko kirol instalazioen eraberritzea.

**ASPALDIKO PROIEKTUA**

Aspaldikoa da Larrañako institutuko frontoia eraberritzeko asmoa. Urtarrilean hasiko dituzten lanekin, frontoiaren teilatua, lurra eta paretak eraberrituko dira. Izan ere, egun, goiko estaldura uralitazkoa da eta ugariak dira sabaiak dituen zuloak. Horrek arriskua eragiten du bertan ekintzak gauzatzeko garaian. Era berean, aldagela berriak ere egingo dituzte eta frontoirako sarrera ezintasun fisikoak dituzten pertsonentzat egokituko dute.

**HEZKUNTZA SAILAK 200.000 EURO**

Hezkuntza Sailaren ardura izango da eraberritze lanak egitea, eta horretarako 200.000 eurotik gorako diru partida ipiniko du. Lanak apirilerako amaituko dituzte.



LARRAÑAKO FRONTOIAN Eraberritze lanak urtarrilean hasiko dira. GOIENKARIA

> ELKARTASUN AZOKAK

### Gabonetan elkartasun azokak egingo dituzte

Alde batetik, euskal preso politikoen aldeko II. eskuko azoka egingo dute. Urtarrilaren 5ean, goizean eta arratsaldean, Herriko Plazan. Antolatzaileek erabiltzen ez diren arropa eta osagarriak Arrano tabernara eramateko dei egin dute, urtarrilaren 3a baino lehen.

Bestetik, bidezko merkataritza denda izango da Don Pedruena etxeko lokalean urtarrilaren 5era bitartean.

> EAE-REN DEIA

### EAE-ANVk agerraldi publikoa egingo du zapatu eguerdian

Oñatiko EAE-ANVk agerraldi publikorako deialdia egin du. Zapatuan, abenduaren 22an, izango da deitutako agerraldi publikoa.

*Guztion indarraz EAE-ANV aurrera!* lelopean egin du Oñatiko EAE-ANVk deialdia. Bertan, atxikimendua eman dutenekin argazkia aterako dute.

Hain zuzen ere, Foruen plazan izango da EAE-ANVk deitutako agerraldi publikoa, 12:30ean.

ASTRONOMIA > ILATARGI ASTRONOMIA TALDEA

# Unibertsoaren bilakaerari buruzko berbaldia eguenean

## Ilatargi taldeak antolatuta, unibertsoaren sorreraren gaineko berbaldia egingo du Jesus Martin Pintadok hilaren 27an, kultura etxean, 19:00etan



ILATARGI Jesus Martin Pintadok egingo du berbaldia. GOIENKARIA

MIREN ARREGI > OÑATI

Oñatiko Udalaren laguntza izan du Ilatargi astronomia taldeak datorren eguenean, hilaren 27an, eskainiko duen *La evolución del universo y el origen de la vida* deritzon hitzaldia antolatzeko. Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Goreneko ikertzaile batek eskainiko du hitzaldia; Jesus Martin Pintadok, hain zuzen ere. Kultura etxean izango da, esan bezala, abenduaren 27an arratsaldeko zazpietan.

Unibertsoaren sorrera, garapena eta bizitzaren sorrera ezagutzea gizakiaren erronka handienetarikoak izan dira beti. Bada, galdera horiei erantzunik emango ez badie ere, Martin Pintado ikertzaileak bizitzaren sorrerara arte unibertsoak jasandako eboluzioaren gaineko berbaldia egingo du eta lurrean bizia sortu aurretik unibertsoak izan zuen eboluzio kimikoaren gainean ere arituko da. Aukera bikaina, bada, gure jatorriaren gainean zertxobait ikasteko.

VALERIU MARGOAK
Papereztatzea, zuritzea, bernizatzea, fatxadak eta burdinak margotzea,...
BARNEALDEAK ETA KANPOALDEAK
680 91 98 89

IZENDAPENA > GOYA SARIAK

# 'Lucio' dokumentala Goya sarietarako izendatu dute

## Aitor Arregiren lanak film dokumental onenaren izendapena jaso du

MAIDER ARREGI > OÑATI

Astelehenean, abenduaren 17an, eman zuen aditzera Zinema Akademiak Goya sarien izendapenak. Hala, film dokumental onenaren Goya saria jasotzeko izendatuen artean dago Aitor Arregi oñatiarraren *Lucio* dokumentala. Otsailaren 8an banatuko dituzte sariak Madrilen egingo duten galan.

**LUCIO URBIETA ANARKISTA**

Dokumentalean, Lucio Urbieta anarkista nafarraren bizitza kontatzen da. Lanbidez igeltseroa zen; frankismoaren aurka eta anarkismoaren alde egin zuen. Duela bi urte hasi ziren dokumentala lantzen. Ekoizle italiar bati esker izan zuten Urbietaren berri, eta protagonistaren laguntza ere izan zuten.



'LUCIO' Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten dokumentala. GOIENKARIA

**AGENDA 21** > HERRIKO IKASLEEN INGURUMENAREN GAINEKO ESKAERAK

# Herriko ikasleek ingurumenaren gainean dituzten kezkak, alkateari

Almen eta Luis Ezeizako ikasleek hainbat eskaera egin zizkioten alkateari

2008an kontsumo arduratsua izango dute aztergai eskolan herriko ikasleek




**INGURUMENAREKIN ARDURATUTA** Luis Ezeiza eta Almengo ikasleek eskolan ingurumena lantzen dabiltza Udalari hobekuntzak eskatzeko. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Martitzen arratsaldean LMH 1etik DBHko 4. mailara arteko herriko ikasleak ordezkatzen dituzten 33 ume eta gaztetxo izan ziren Eskoriatzako udaleko osoko bilkura aretoan. Helburua zen Pedro Lasagabaster alkateari ingurumenarekin lotutako hainbat eskaera egitea.

**ESKAERAK BERRETSI**
Azken urteotan, Luis Ezeizan eta Almenen Eskoletako Agenda 21 programa lantzen dihardute. Horregatik, lehenik eta behin, ikasleek berriro gogoratu zituzten maiatzean Udalari egindako eskaerak.

Hala nola, gaztetxoek Ibarraundi ondoko zuhaitzen desagerpenaren gaineko kezka, errekara jaisteko malda gehiagoren beharra, errekaren garbiketaren gaineko ardura, autoak garbitzeko leku aproposak egokitu beharra edota ur jauziak energia sortzeko baliatzeko aukera izan zituzten berbagai.

Pedro Lasagabaster alkateak eskerrak eman zizkien gerturatutako ikasleei ingurumenaren gaineko ardura izateagatik, eta hainbat azalpen eman zituen. Zuhaitzak berreskuratzeko asmoa dutela, eta erreka garbitzeko Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan daudela argitu zuen. Horrez gain, ondo hartu zuen ikasleek erreka garbitzeko auzolanak deitzeko proposamena.

Bestalde, argitu zuen Aingeru Guardako gasolindegian autoak garbitzeko gune egokia dagoela, baina arazo batzuk medio aspaldian isurkiak ez direla kontrolatzen; eta hori ekidin behar dutela. Ur jauziei dagokionez, azaldu zuen Euskal Energia Erakundearekin gaia aztertzen dabiltzala.

**ERREKONOZIMENDUA** > MANOLO MUÑOZI SARIA

## Manolo Muñozi Gipuzkoako Kirol Saria 2007 eman diote kirolari guztia emateagatik

Azken 30 urteotan Eskoriatzako Kirol Elkarteko presidentea da Manolo Muñoz



**MANOLO MUÑOZ** Eskoriatzako Kirol Elkarteko presidentea da Muñoz. GOIENKARIA

**I.B.** > ESKORIATZA
Atzo, eguena, Gipuzkoako Kirolak Sariak 2007 banatu zituzten Donostiako Kursaalean egindako ekitaldi berezian. Eta saridunetako bat Eskoriatzan aski ezaguna den Manolo Muñoz izan zen. Muñoz Eskoriatzako Kirol Elkarteko presidente da orain dela urte asko.

Aldundiko Kirol Saileko arduradunek nabarmendu zuten Muñozek izugarrizko dedikazioa eman diola herriko kirolari, betiere boluntario moduan.

Aldundiko ordezkariek ere azpimarratu zuten Eskoriatzako Kirol Elkartean 30 urtetik gora daramala lanean, eta herrian kirola, elkarlana eta ekintzak antolatzeko ahalegin izugarria egin behar izan duela urte hauetan guztietan.

**LEHIAKETA** > ORRI-PUNTUAREN AUKERAKETA

## Iñigo Urrutiarena da Udal Bibliotekako orri-puntua

30 orri-puntu baino gehiago aurkeztu zituzten aipatutako lehiaketara

**I.B.** > ESKORIATZA
Dagoeneko badakigu zein izango den 2008an Udal Bibliotekak erabiliko duen orri-puntua. Iñigo Urrutia eskoriatzarrak irabazi du lehiaketa.

30 lanetik gora aurkeztu zituzten lehiaketara, eta Udaleko Kultura azpibatzordeak Urrutiarena aukeratu du, egokiena delakoan.

*Hitzetan blai* leloa duen orri-puntua izango da datorren urtean Udal Bibliotekan banatu eta zabaldu egingo dutena.



2008rako orri-puntua. IÑIGO URRUTIA

**AISIALDIA** > GABONETAKO EGITARAUA

# Olentzero eta umeen Gabonetako parkea, abenduko izarrak

Astelehen goizean Olentzeroren laguntzaileak izango dira gutunak jasotzen eta hilaren 26an, 27an eta 28an Gabonetako parkea jarriko dute

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Astelehenean Olentzerorekin hitzordu garrantzitsua izango dute ume eta gaztetxoek. 12:30ean umeak Herriko Plazan elkartuko dira Gabonetako kantuak abesteko. 12:30etik 13:30era bitartean, Olentzeroren laguntzaileak Herriko Plazan izango dira umeen eskutitzak jasotzen eta Trikitixa Eskolako ikasleek kalejira egingo dute.

**OLENTZERO, APOTZAGATIK**
Aurten ere Apotzaga aldetik jaitsiko da herrigunera Olentzero. 18:00etan txistulari eta soinujoleek ongietorria egingo diote eta kalejiran joango dira honako kaleetan zehar: Intxaurtxueta, Gaztañadui, Santa Ana, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala eta Arana. Horren ostean, Herriko Plazara helduko dira.

Udaleko arduradunek herritarrei gonbita egin diete egun horretan euskal jantzi tradizionalak janzteko.

**GABONETAKO KONTZERTUA**
Aurretik, baina, hilaren 23an, Musika Eskolak Gabonetako kontzertua egingo du, 19:00etan. Eskolaren sortzaile Mari Kruz Oianguren eta Mari Esther Oregiren omenez egingo dute.

**UMEENDAKO JOLASPARKEA**
Urteko azken eguazten, eguen eta egubakoitzean Gabonetako parkea jarriko dute kiroldegian. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etar denetarik izango dute aukeran: ohe elastikoak, puzgarriak, ludoteka, trena, zezen mekanikoa, rokodromoa, tailerrak eta igerilekuan uretako puzgarriak, besteak beste.

Hiru egunerako txartela 7 eurotan salduko dute eta egun bakarrerako txartela, berriz, 3,5 eurotan. Bestalde, uretako puzgarrietan jolas egiteko txandak egin dituzte ume eta gaztetxoen adinaren arabera.


**OLENTZEROREKIN HITZORDUA** Gustura egiten diote ume eta gaztetxoek harrera Olentzerori urtero. GOIENKARIA

**ANTZERKIA** > TXIRENE TALDEAREN ANTZEZLANA

# Guraso eta seme-alabentzako komedia Huhezin, gaur

Gaur, egubakoitza, Huheziko areto nagusian 'Ogirik gabe etorri zen semea' antzezlana

**I.B.** > ESKORIATZA
Gaur, egubakoitza, Txirene antzerki taldeak *Ogirik gabe etorri zen semea* ikuskizuna eramango du Huheziko areto nagusiko agertokira. 22:30ean izango da hori.

Ikuskizun hori urrirako iragarri zuten, baina Txirene taldeko aktore Edurne Agirrezabalak istripu txiki bat izan zuen entsegu baten, eta bertan behera utzi behar izan zuten.

**LAUZPABOST URTEKO TALDEA**
Txirene antzerki taldea Edurne Agirrezabala eta Begoña Amonarriz aktoreek osatzen dute. Orain dela lauzpabost urte sortu zuten taldea; eta argitu digute ez duela zerikusirik aspaldi Aitor Mazok eta beste aktore batzuek sortu zuten antzerki taldearekin.

**KOMEDIA ARRAKASTATSUA**
*Ogirik gabe etorri zen semea* ikuskizunean aktore bakarrak lan egiten du: Edurne Agirrezabalak, hain zuzen. 26 bat emanaldi egin ditu dagoeneko eta oso harrera ona izan du.

Umore handiarekin gurasoen eta seme-alaben arteko harremana izango du berbagai: "Zer neurrira arte gurasook esan behar dugun umeak etorkizunean zer izan behar duen", azaldu zigun Agirrezabalak.

> ARGITALPENAK

## 'Eskoriatza iruditan' liburua salgai jarri dute gaur, egubakoitza, herriko hiru saltokitan

Joan den astean aurkeztu zuten *Eskoriatza iruditan* liburua, baina inprentako arazo batzuen ondorioz gaur arte ez dute eskuragarri jarri. Liburua Udaleko Kultura eta Euskara batzordeetako arduradunek egin dute, herritar askoren laguntzarekin. Orain arte batu dituzten 1.300 argazkietatik, 100 adierazgarrienak aukeratu dituzte liburua osatzeko. Hain zuzen, argazki zaharrez osatuta dago liburua, eta horien deskribapenak, testuak eta beste informazio gehiago batu dute.

Udalak 700 ale kaleratu ditu, eta euskara eta gaztelera batzen ditu liburuak. Gainera, argazki bilduma guztiaren DVDa dakar opari. Honako lekuetan eros daiteke, 20 eurotan: Dorleta liburu dendan, tabako dendan eta Ibarraundi museoan.

> IKASTAROAK

## Datorren urteko pintura ikastaroan esku hartzeko izenematea, hilaren 28ra arte

Udaleko Kultura batzordeak pintura ikastaroa antolatu du 2008rako. Urtarrilaren 12an hasiko dituzte eskolak eta martxoaren 29ra bitartean egingo dituzte, zapaturo. Ordutegia honako hau izango da: 14:30etik 17:30era, hain zuzen ere.

Interesatuek kultura etxera jo beharko dute abenduaren 28ra baino lehen izena ematera. Horrez gain, 30 euroko matrikula ordaindu beharko dute. Horretarako bi kontu korronte ireki dituzte: Kutxakoa, 2101 0038 56 0000089201; eta Euskadiko Kutxakoa 3035 0044 85 0440900025. Hala, izena ematerakoan, ordainagiria eraman beharko dute. Informazio gehiago eskuratzeko, deitu 943 71 46 88 telefonora edo idatzi *kultura@eskoriatza.net* helbidera.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI

Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

**GABONAK** > OLENTZERoren ETORRERA

# Olentzero bateratua antolatu dute herriko hainbat talde eta elkartek, Udalarekin batera

Astelehenean, 18:00ak aldera etorriko da menditik Olentzero, Mari Domingirekin batera; Askatasunak pintxoak eta edatekoa salduko ditu



**OLENTZERO** Askatasunak antolatu izan du Olentzeroren kalejira. GOIENKARIA

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Antzuolako Udalaren ekimenez, Olentzeroren etorrera berezia antolatu dute herriko hainbat talde eta elkartek elkarrekin; honakoek, hain zuzen ere: Askatasuna, Anelkar, Antzuolako Gazte Asanblada, Gaztegunea, Pausoka, Oinarin, Txistulari Taldea, Antzuolako Abesbatza eta Herri Ikastetxea eta trikitilariek.

Herriko Plazatik Zurrategira abiatuko dira 17:45ean txistulariak, trikitilariak eta dantzariak. Hantxe, Olentzerori deialdia egingo zaio, 18:00etan, txalapartarekin eta adarrarekin, menditik jaits dadin. Olentzero eta Mari Domingi, gazteek lagunduta, San Josetik behera jaitsiko dira eta kalejiran joango dira guztiak Herriko Plazara; hantxe bukatuko da ekitaldia abestiekin eta Olentzerok herritarrei helaraziko dien mezuarekin. Askatasunak pintxoak eta edatekoa saltzeko mahaia jarriko du ekitaldi amaieran, Herriko Plazan.

**GABONETAKO EKITALDIAK**

Beste hainbat ekitaldi ere izango dira Gabon jaietan. Batetik, astelehenean, 11:00etan, Herri Ikastetxekoek eta Pausokak antolatutako Olentzeroren kalejira izango dugu. Urtarrilaren 4an, bestalde, umeendako jolasparkea jarriko dute frontoian.

Abenduaren 27 eta 28rako Antzuola Kirol Elkarteak Alfonso Castroren omenezko areto futbol txapelketa antolatu du. Xabier Barkeroren omenezko partidua, bestalde, otsailera atzeratu dute.

Arrola Mendizale Elkarteak, urtero bezala, Arrolara irteera egingo du urtarrilaren 1ean; Arrola inguruko gas hoditeriaren lana direla eta, oraindik ez dakite non banatuko dituzten txorizoa eta salda.

**Blanca Carrasco** > Dantza irakaslea

# "Dantzan egitea dibertigarria da, eta ariketa fisiko ezin hobea"

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

**Madrildarra da Blanca Carrasco, baina Antzuolan bizi da ekaina ezkero. Dantza eskolak ematen hasi da herrian, eta baita antzerki eskolak ere Bergaran.**



Blanca Carrasco dantzaria. A.I.

**Noiztik diharduzu dantza irakasle?**

Dantzaria eta aktorea naiz. Irakasle lanetan jardun dut; esaterako, dantza garaikideko eskolan baten, Madrilen. Eta dantzari jardun dut, besteak beste, Carpe Diem dantza konpainian, Alicia Perezen konpainian eta El Compas talde flamenkoan.

**Zelan hasi zinen dantzan?**

Txikitan hasi nintzen gorputz espresioko eta balleteko eskoletan. 13 urterekin ballet eskola baten hasi nintzen. Madrilek ematen dituen aukera guztiak aprobetxatu ditut denerako eskolak jasotzeko. Antonio Canalesen eskolan ere ibili nintzen. Baita Amor de Dios flamenko eskola ezagunean ere.

**Flamenko, sevillana, funky eta dantza moderno eskolak emango dituzu Antzuolan.**

Bai; flamenko eskolekin hasi gara dagoeneko eta oso pozik nago. Hamahiru lagunek eman dute izena eta hori oso kopuru polita da, batez ere Antzuola herri txikia izanda.

**Zeini zuzenduta daude ikastaroak?**

Sevillana eskolak goizez eskaintzea pentsatu nuen, batez ere jende nagusiagoa animatzen delako, normalean. Flamenkoa da egokia edozein adinetako jendearendako eta funky eta dantza moderno ikastaroa, bestalde, jende gazteagoarendako da egokia.

**Zer esango zenioke jendeari, animatzeko?**

Batetik, oso dibertigarria dela dantzan egitea. Baina, bestetik, kontuan hartu behar da ariketa fisiko paregabea ere badela. Oso osasungarria da eta, gainera, estresari aurre egiteko ezin hobea da. Gorputz osoa lantzen da poliki-poliki, ia konturatu ere egin gabe.

> UDALA

## San Josepe auzoan 30 bat zuhaitz landatuko dituzte, Nekazaritza batzordearen ekimenez

Udaleko Nekazaritza batzordearen ekimenez, zuhaitz landaketa ekitaldia egingo dute San Josepen. Ekitaldi hori bihar, zapatua, izango da, 10:00etan. Udaleko arduradunekin batera, eskolako neska-mutikoek ere parte hartuko dute landaketan. Era horretan, orain dela urte eta erdi inguru ia bukatutzat eman zituzten auzo horretako lanak amaituko dituzte. Izan ere, urbanizazio lanez gain, zuhaitz landaketa ere garrantzitsua dela irizten dio Nekazaritza batzordeak.

Errekaren kontran gelditzen den lursailean landatuko dituzte zuhaitzak: guztira, hogeita hamar bat. Eta fruta-arbolak izango dira guztiak: gereziondoak, sagarrondoak, okaran-arbolak, melokotoiarbolak eta mizpirondoak.

> AURKEZPENA

## Motor Eguna ospatuko dute bihar, hilak 22, herriko zaleek

Motor Taldeak antolatuta, Motor Eguna ospatuko dute bihar. Erakusketa egongo da Olaranen 16:00etatik 20:00etara. Eta 18:30ean taldearen aurkezpen ekitaldia egingo dute. Baina ekitaldiak goizez hasiko dituzte: 11:00etan elkartuko dira ibilgailuak plazan eta ibilaldia egingo dute. Ondoren, *poteo motorrereoa*.

Itzar
LIBURU DENDA
ESTANKOA
Zorionak guztioi!
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 60 62

MUJIKA
HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA
Jose
Gomez
Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

**GAZTELEKUA**

# Hilaren 29an jarriko dute zerbitzua martxan

## Izaskun Oianguren elgetarrak egingo ditu dinamizatzaile lanak aurten

**L.Z.** > ELGETA
Hilaren 29an zabalduko ditu ateak Elgetako gaztelekuak. 1992tik 1997ra jaiotako gazteei zuzendutako zerbitzua da eta ikasturte honetan Izaskun Oianguren elgetarrak egingo ditu dinamizatzaile lanak.

Zapatu eta domeketan egongo da zabalik, 16:30etik 20:30era, apirilaren 1era bitartean. Urte osoko kuota 30 euro da. Familia bereko bi gazte izanez gero, bakoitzak 25 euro ordaindu beharko ditu. Hiru izanez gero, berriz, 20 euro.

Interesatuek Udalak Kutxan duen kontuan sartu behar dute dirua, eta ordainagiria udaletxera eraman.

**KIROL ZERBITZUEK OPORRAK**
Gabon egunotan oporrak hartuko dituzte Udaleko Kirol Zerbitzuetan. Eskola Kirolera urtarrilaren 7an itzuliko dira. Gainerako ikastaroetan urtarrilaren 2ra arteko etenaldia egingo dute, hasiera baten. Aste berezia izanik, talde bakoitzean adostuko dute hori.

**EUSKARA** > ELGETAKO ADITZ TAULAK ERABILGARRI

# Arantzabal: "Sortzen jakuzen dudatxuok konpontzeko"

## Badihardugu euskara elkarteak argitaratu du Iban Arantzabal elgetarrak egindako lana

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA
Urtarrilean aurkeztuko dituzte Elgetako aditz taulak, baina aurrera dezakegu lana amaituta eta erabilgarri dagoela. Filologia ikasketak egiten ari zela hasi zen proiektuarekin Iban Arantzabal elgetarra. Urte hauetan taulak osatzen eta lana hobetzen joan da.

Erabilera errazeko liburuxkan aditz taulak aurkituko dituzue, Elgetako euskalkiari dagozkion aditz formak: "Euskalkixan, edo herriko berbetan dihardugunian, askotan ez dogu jakitzen esaldixa zelan amaittu, aditza zelan jokatu. Horrei zalantxoi erantzuna emoteko dare taulok.". Elgetako euskara beharrezkoa dela uste du Arantzabalek: "Gure artian komunikatzeko erabiltzen dogun erregistrua da. Gertukua dalako, belaunaldiz belaunaldi jaso dogulako. Garrantzitsua da erderetara ez pasatzeko be.", esan du. Taulak osatzeko material gehiena Jose Luis Gallastegi eta Miren Arantzetarekin izandako elkarrizketetatik atera du Arantzabalek. Alberto Telleriaren laguntza ere oso garrantzitsua izan dela esan du.

**GOIBEKOKO BAZKIDEENDAKO DOAN**
Ana Gillegi Euskara zinegotziaren esanetan, lan garrantzitsua da: "Euskalkia galtzen ari gara eta arduratuta nago gazteen artean gero eta gehiago entzuten delako erdara". Goibekoko bazkideek doan jasoko dute lana etxean. Gainerakoek salgai aurkituko duzue, 3 eurotan, Ana Mariren dendan.



**EGILEA** Iban Arantzabal euskara zinegotzi Ana Gillegirekin batera. L.Z.



**BATUKA** Gabonetako erakustaldia egin zuten martitzenean ikasleek. L.Z.

**GABONAK** > OLENTZERO, DOMEKAN 18:30EAN PLAZAN

# Mendi irteera, txokolate-jana eta Gabon kantuak domekan

## Boleta txapelketetako finalak hilaren 29an eta pilotakoak, berriz, Urtezahar egun goizean

**L.Z.** > ELGETA
Gabon egunotan ez da zer egin faltako Elgetan. Hilaren 23an Intxortara egingo den irteeran parte hartzeko dei egin dute Udaletik. Olentzeroren bila joango dira, plazatik, 10:00etan abiatuta. 17:30ean, txokolate-jana egingo dute plazan eta aurreikusita dago Olentzero 18:30ean etortzea. Musika Eskolako ikasleek kantuan egingo dute okasiorako. Guraso Elkartekoak biharamun goizean irtengo dira Gabon kantuak abestera.

Umeendako hurrengo hitzordua hilaren 28an da. Altxorraren Bila izeneko jokoa antolatu du Udalak, 15:30ean hasita. Umeendako Gabonetako jolasparkea, berriz, urtarrilaren 4an egingo dute frontoian, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

**KIROL PROPOSAMENAK**
Boleta eta pilota txapelketak daude iragarrita egunotarako. Hilaren 29an jokatuko dituzte boleta finalak txikiek zein nagusiek. Pilotan, aldiz, hilaren 31n, goizez, egingo dira bi finalak. Espaloian, I. Mus Txapelketa deitu dute eta Urtezahar egunean ezagutuko ditugu irabazleak.

Azkenik, dantza solteko ikastaroa duzue aukeran: hilaren 22an, 26an eta 29an eta urtarrilaren 2an, 5ean, 12an eta 19an, kiroldegian, 12:00etatik 13:00etara.

EDEL
TAPIZ DENDA
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*
**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.**
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

RECYDE
**RECYDE, S.A.**
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es
AENOR
ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Aperribay, s.l.
*Marmoldegi eta granitoak*
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
**20690 ELGETA**



Abenduaren 24an eta 31n
eguerdian,
Gabonetako
menu bereziak
15 €
943 76 82 84

**GABONAK** > EGITARAUA

# Olentzerok umeen gutunak jasoko ditu Sastiñako ermitan

Menditik jaitsi, eta arratsaldeko seietan iritsiko da Olentzero Aramaiora

Ume eta gazteendako tailerrak antolatu ditu Udalak Gabonetako oporretarako



**OLENTZERO** Aurten ere Sastiñan izango da haurren gutunak jasotzeko. GOIENKARIA

**ARRITXU BARRUSO**> ARAMAIO

Egun handia iristear da eta gure Olentzerok dagoeneko guztia prest dauka menditik jaitsi eta gure etxeak opari eta jostailuz betetzeko. Aramaiora arratsaldeko seietan iritsiko da Olentzero. Menditik jaitsi eta eskola parera iritsita, trikitilarien konpainian eta traktore gainean Herriko Plazara joango da. Sastiñan, urtero moduan, herriko gaztetxoenekin hitzordua dauka Olentzerok. Umeek eskariak egingo dizkiote Olentzerori, eta hark, gero, gauean ekarriko dizkien oparien aurrerapen gisa oparitxo bat ere banatuko die gerturatutako haur guztiei. Papar Gorri abesbatzako haurrek kantuan egingo dute Olentzerori ongietorria emateko.

Haurrek Olentzerori bisita egiten dioten bitartean, nagusiek gaztaina erreak eta ardoa doan dastatzeko aukera izango dute. Bien bitartean, gainera, Bizente Goikoetxea abesbatzak kantuan egingo du.

Horrela emango diete hasiera, beraz, Aramaion Gabon jaiei eta hurrengo egunetan izango da zer eginik herrian; izan ere, Udalak egitarau zabala antolatu du Gabonetarako.

**GABONETAKO EGITARAUA**

Abenduaren 26, 27 eta 28rako ume eta gaztetxoendako sukaldaritza tailerrak antolatu dituzte. Horrez gain, 26an, Magamimos taldeak magia ikuskizuna egingo du kultura etxean 17:30etan. Hurrengo egunean, hilaren 27an, berriz, Comic Klown taldeak antzerki emanaldia egingo du. Urtarrilaren 2an ipuin kontalariak izango dituzte Aramaion; 17:00etan 2 eta 6 urte bitarteko umeendako eta 18:00etan 7 urtetik gorakoendako. Urtarrilaren 3an puzgarriak ipiniko dituzte kiroldegian, 10:00etatik 13:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte. Urtarrilaren 5erako, azkenik, egitarauari amaiera emateko bertso saioa antolatu dute.

Abenduaren 30ean eta urtarrilaren 6an, bestetik, domekeroko zinema emanaldia egongo da. Domeka honetan, hilaren 23an, *Sorgin bat etxean* filma egongo da ikusgai.

**ALAIAK ELKARTEA**

## Erretiratuek musean egingo dute hilaren 5ean

Urtarrilaren 5erako mus txapelketa antolatu dute Alaiak elkartekoek

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Arratsaldeko hiru eta erdietan hasiko da lehiaketa Alaiak erretiratuen elkartean bertan. Bikote bakoitzak 18 euro ordaindu beharko ditu txapelketan parte hartu ahal izateko, eta 16 bikoterentzako dago tokia. Izena emateko Alaiak elkartera joan behar da.

Irabazleek kopa eta urdaiazpiko bana jasoko dute sari gisa. Bigarren bikoteak bakailaoa eta ardo botila bat eta hirugarrenak gazta eta ardoa. Laugarren postuan gelditzen direnek, berriz, xanpaina eta ardoa irabaziko dituzte. Dena dela, txapelketan parte hartzen duten guztiek sari berezi eta goxoa jasoko dute: Alaiak elkartekoek gertatutako afari ederra.

> TELEBISTA

## TVE1 telebista katea ikusteko kanal berria ezarriko dute

Italazpi telebista eta irratien azpiegiturak kudeatzen dituen Eusko Jaurlaritzako elkarteak jakinarazi du TVE1 katearen emisio kanala aldatuko duela. 55. kanalean ezarriko dute orain. Beraz, kanal hori sintonizatuta, aurrerantzean herritarrek ez dute arazorik izango TVE1 katea ikusteko.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**OSPAKIZUNAK** > GABON EKITALDIAK

# Olentzero lagun joango dira umeak baserririk baserri Gabon egunean

Udalak atera duen egutegia banatuko dute kantuan doazenean; Artabilla eta Dorlas baserrien argazkiak datoz 2008ko egutegian



**KANTUAN** Gatzagako umeak baserri baten atartean kantuan, gurasoak lagun dituztela. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gabon egunean baserririk baserri kantuan joateko ohitura dute Gatzagan, eta aurten ere halaxe egingo dute Gurel guraso elkarteak antolatuta.

**TRIKITILARIEK GIROTUTA**

Astelehenean 09:00etan dute hitzordua, herrian, ume eta gurasoek. Autobus txikian joango dira umeak eta heldu batzuk eta gainerakoak automobiletan, baserriz baserri oinez ibiltzea gehiegitxo delako. Herriko trikitilariak izango dituzte lagun kantuan, eta Gabonetako protagonista ere bai, Olentzero berbera. Olaun aldeko baserrietatik hasiko dute ibilbidea; handik Dominagara eta Kaminero baserrira egingo dute. Hamarretakoa jan ostean Arabarantz joango dira: Arrikrutz, Inurrieta, Gure Ametsa eta Gatzagainetik pasatu, eta Goierri aldeko baserrietara iritsiko dira. Herrian bukatuko dute ibilbidea eguerdi partean, eta hor ere kantuan egingo dute. Ohitura duten legez, gehienak Toki Eder elkartean geratuko dira bazkaltzera.

**EGUTEGIAK BANATU**

Umeek kantuekin poztuko diete astelehen goiza baserritarrei, eta Udaleko ordezkariek opariarekin: 2008ko egutegia. Gatzagako bi baserriren argazkiak dituen egutegia argitaratzen du urtero Udalak, eta gero etxerik etxe banatu. Astelehenean banatuko duten horretan Olaun aldean dagoen Artabilla baserria eta herrian bertan dagoen Dorlas –gatz museo aurrean– agertzen dira. Urtea bukatzera doa eta baserrietan gustura jasoko dute egutegi berria.

## Elurra iritsi zen toki garaienetara martitzenean

Izotza izan zen protagonista joan zen aste bukaeran eta oraingoaren hasieran, eta martitzenean, hilak 18, elurra iritsi zen. Olaun aldeko eta Goierriko parajerik garaienak zuritu egin zituen, eta bide batzuk arriskutsu geratu ziren. Kaminero baserri inguruan izotza zegoen, eta gainean elurra egiterakoan oso laban geratu zen Dominaga baserrira doan bidea. Gatza gertu izan beharko dute hemendik aurrera.



M.A.

> BERBALDIA

## Olentzero eta neguko jaien gaineko berbaldia gaur, 19:00etan

*Olentzero eta neguko jaiak Euskal Herrian* izeneko berbaldia egingo du Gatzagan bertan bizi den Joserra Agirreurretak, gaur. Olentzero pertsonaiaren nondik norakoak argitu, Euskal Herriko hainbat txokotan negu partean ospatzen dituzten jaiak zelakoak diren azaldu eta beste ohitura askoren berri emango die Agirreurretak elkartzen direnei.

Gaur, egubakoitza, izango da berbaldia, 19:00etan, Garro jauregian dagoen kultura etxean.

200 ANIMALIA EZBERDIN BAINO GEHIAGO

TXAKURRAK, KATUAK, MAPATXEAK, HUROIAK, KIKIRINOAK, KATAGORRIAK, UNTXIAK, KUXAK, HAMSTERRAK, JERBOAK, ZELAIETAKO TXAKURTXOAK, PETAUROAK, TXORIAK, NARRAZTIAK, ANFIBIOAK, ARRAIN TROPIKALAK, ITSAS ARRAINAK, UR HOTZETAKO ARRAINAK, ORNOGABEAK.

AKUARIOAK, TERRARIOAK, KAIOLAK, ESTANKEAK, MARISKEROAK : AHOLKULARITZA, SALMENTA, GARRAIOA, INSTALAZIOA, MANTENTZE-LANAK.

MOTA GUZTIETAKO OSAGARRI, JANARI, LIBURU ETA ALDIZKARIAK.

arratxomaskotak@euskalnet.net 943 533 000
autobus geltokiaren aurrean, BERGARA (GIPUZKOA)

arratxo
maskotak
osagarriak eta zerbitzuak

**FUTBOLA** > EMAKUMEZKOEN GABONETAKO II. TXAPELKETA

# Ibarreko neskek Reala, Eibar eta Athletic izango dituzte aurrean, 29an

Lauko txapelketa egingo dute Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian

Ibarreko selekzioak astelehenean egin zuen lehenengo entrenamendua

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Debagoieneko selekzioko neskak astelehenean bertan hasi ziren datorren hilaren 29an jokatuko duten txapelketarako entrenatzen –09:30etik 14:00etara jokatuko dute txapelketa hori–. Xabi Gartziak zuzenduko duen taldeak erronka polita izango du aurrean, Euskal Herriko maila goreneko kontrarioak izango dituzte-eta aurrean: Eibar, Reala eta aurten baita Athletic taldea ere.

Debagoiena ordezkatzeko 18 jokalari hautatu ditu *Xabilo*-k: Mondra taldetik zazpi jokalari; Arizmendiko sei eta Bergarako BTLS taldeko lau –senior mailan Debagoienean ez daude talde gehiago–. Horren harira, beheko erretratuetan lau jokalari falta dira: BTLS taldeko Oihana Iñurrategi eta Garazi Larrea, eta, Arizmendiko Eider Lorenzo eta Jenny Guerrero.

**IAZKO ESPERIENTZIA, OSO ONA**

Pasa den urteko esperientzia ikusita, antolatzaile lanetan dabilen Arizmendi ikastolak ez du dudarik izan Gabonetako emakumezkoen II. futbol txapelketa antolatzeko. Astelehenean egin zuten txapelketaren aurkezpena, eta bertan egon ziren Arizmendiko ordezkariak eta baita txapelketan esku hartuko duten klubetako ordezkariak ere. Han, ikastolako arduradunek esan zuten txapelketa hori kirolaren eta batez ere emakumezko kirolaren alde egin duten apustuaren barruan sartzen dela, eta adierazi zuten neskek merezi dutela horrelako norgehiagokak jokatu ahal izatea.

Txapelketako partidu guztietarako sarrera doan izango da, eta ikusleen artean bizikleta bat zozketatuko dute.

**ABENDUAREN 28AN ERE, FUTBOLA**

Abenduaren 29an egingo duten lauko torneo hori, baina, ez da Gabonetarako antolatu duten txapelketa bakarra. Izan ere, abenduaren 28an emakumezkoen kadete eta infantil mailetako zortzinako txapelketa egingo dute.

Infantil mailako txapelketan, Arizmendi A eta B, Bergara, Lazkao, Anaitasuna, Urki eta Aloña Mendiko neskek jardungo dute nor baino nor gehiago. Kadete mailako txapelketan, aldiz, Arizmendi A eta B, Bergara, Lazkao, Beasain eta Aloña Mendi lehiatuko dira. Zeingehiagoka horiek 09:30etik 17:00etara jokatuko dituzte, Eskoriatzan, Almeneko futbol zelaian.

Eta, horrekin batera, 16 urtetik gorako neska debagoiendarrei zuzenduta, areto futboleko txapelketa egingo dute abenduaren 28an; Almenen izango da txapelketa hori ere.



**ORDEZKARIAK** Jaime Barriuso, Txaro Iraeta, Edurne Burgoa eta Bixen Calzon. T.M.

## DEBAGOIENEKO EMAKUMEZKOEN SELEKZIOA



**Xabi Gartzia**
Entrenatzailea



**Vanesa Da Costa**
Mondra



**Sokoa Azkarate**
Mondra



**Maider Lopez**
Mondra



**Ane Gartzia**
Arizmendi



**Jone Agirregabiria**
Arizmendi



**Shere Moreno**
BTLS



**Maitane Roa**
Mondra



**Nagore Rico**
Arizmendi



**Miriam Vidriales**
Arizmendi



**Araitz Etxabe**
Mondra



**Alaine Roa**
Mondra



**Ainhoa Alonso**
BTLS



**Rakel Modino**
Mondra

**Falta diren jokalariak:**

**Garazi Larrea**
BTLS

**Oihana Iñurrategi**
BTLS

**Eider Lorenzo**
Arizmendi

**Jenny Guerrero**
Arizmendi

**ESAIT** > EUSKAL SELEKZIOAREN ALDEKO ALDARRIKAPENA

# 'Nazio bat, selekzio bat' leloarekin, 29an Bilbora

Astelehenean euskal selekzioaren ofizialtasunaren aldeko aldarrikapena egin zuten ibarreko zenbait kirolarik; abenduaren 29an Bilbora joateko dei egin zuten

**X.U.** > BERGARA

*Euskal Herria nazio bat selekzio bat* lelopean, ofizialtasunaren alde abenduaren 29an Bilbora joateko dei egin zuten ibarreko hainbat kirolarik astelehenean egindako prentsaurrekoan. Debagoieneko ESAITen deialdiarekin bat eginda, Euskal Herria ordezkatuko duten kirol federazioen aldeko aldarrikapena egin zuten, eta hilaren 29an Bilbon egingo duten kale agerraldira joateko eskatu. Manifestazio hori 17:30ean hasiko dute, La Casillan, eta iluntzean Euskal Herriak eta Kataluniak lagunarteko norgehiagoka jokatuko dute San Mamesen. Ibarrean hainbat autobus antolatuko dituzte egun horretan Bilbora joan-etorria egiteko. Arrasaten, esaterako, Basati tabernan eman ahal da autobuserako izena.

**ERASOEI ERANTZUNA**

Prentsaurrekoan, Debagoieneko ESAITek nabarmendu gura izan zituen 2007an euskal selekzioen ofizialtasunaren inguruko dinamikak jasandako erasoak. Aipatu zuten, esaterako, uztailean, EAEko Espainiako Estatuko ordezkari Paulino Luesmak Euskal Autonomia Erkidegoko 19 kirol federazioren estatutuen aurkako helegitea aurkeztu zuela, nazioartean ofizialki lehiatzeko aukera jasotzen zutelako.

Hori horrela, ESAITekoek gaineratu zuten Euskal Herria munduaren aurrean ordezkatuta izateko eskubidearen alde lanean jarraituko dutela.




**BATERA** Hainbat kirolarik bat egin zuten ESAITen deialdiarekin. MIREN ARREGI



GOIENKARIA

## Mendizabalek domekan jokatuko du finala

DV sariko finalistek goraino beteko dute domekan Zarauzko Aritzbatalde plotalekua. Zortzi pilotari izango dira zein baino zein gehiago, eta seniorretan Aitor Mendizabal izango da ibarreko ordezkaria. Mendizabalek 150 sarrera eskatu zituen finalerako; Antzuolakoen babesa izangо du finalean. 11:30ean hasiko dira finalak.

> FUTBOL TXAPELKETAK

## Gabonetan hainbat futbol txapelketa egingo dituzte Debagoieneko klubek

Ohiko liga txapelketek deskantsua hartuko badute ere, ibarreko klubek lagunarteko norgehiagokak antolatu dituzte Gabonetarako. Domekarako, Mondrak *Txelis*-en omenezko txapelketa antolatuko du; Gipuzkoako hamaika klub gonbidatu dituzte, infantil mailakoak. 09:00etatik 15:00ak arte jokatuko dute.

Bergarak, berriz, gazte mailako txapelketa egingo du abenduaren 28an (17:00etan), 29an (17:00etan) eta 31n (16:00etan). Bergara, Eibar, Beasain eta Reala izango dira zein baino zein gehiago.


2008

**Urtea sasoian amaitu**
eta berria bizitzeko gogotsu
kontuan izan eta gogoratu
behar dela **osasuna zaindu**



Jauzi, bira, korri edo makurtu
**mugitzeko ilusioa** behintzat ez galdu
Kirol zerbitzuetatik zuek guztiok animatu
eta **gabon egun hauetarako zoriondu**

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua



# Jatetxe Gida






## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA
943 76 55 00

**Eskaintza**
- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

**Berezitasuna**
- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.**



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**



## Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

**Txinatar jatetxea**

**Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

**Eguneko menua eta karta**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**




## Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

**Astelehenetan itxita**



## Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

**Eskaintza**
- Menua
- Afari informalak



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**



**>GASTEIZEN ERAKUSKETA**
Iñigo Arregi eta Bingen de Pedro artistek **> 45**



**> BENITO LERTXUNDI**
Oñatiko Zubikoa kiroldegian izango da bihar **> 45**

**> RACHAEL OLABARRIA**
Ikasteaz gain, kirol egokitu eta ingelesko eskolak ematen ditu; Kutxaren ikasketa espediente onenaren saria jaso berri du. Futbolean ere jokatzen du**> 50**





Aitor Mendiluze, Gipuzkoako bertsolari txapelketako irabazlea, Amaia antzokian izango da bihar, 20:00etan.

ARGAZKIA: XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

**Aitor Mendiluzue** > Bertsolaria

# "Amaia antzokia plaza ona da eta Debagoieneko zaleak fidelak dira"

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE

**Aitor Mendiluze (Andoain, 1975) bertsolariak eskuratu zuen domekan Gipuzkoako bertsolari txapelketako txapela. Eskarmentu handia duen bertsolariaren bigarrena da; 12 urte direla irabazi zuen aurrekoa. Bihar, zapatua, Amaia antzokian izango da, 20:00etan.**

**Pozik? Espero zenuen?**

Bai, pozik nago. Bertso txukunak egitea nuen helburu, eta horregatik pozik nago. Txapela eskuratzea ez nuen espero, ez.

**Kinielen arabera faboritoa zinen. Zer deritzozu?**

Ez, faboritoa, ez; gainera, kontu horiek azalekoak iruditzen zaizkit. Normala da jendeak kinielak egitea, baina, gure artean, ez zeuden gauzak hain garbi. Nire ustez, esperientziaren eta gaztetasunaren arteko lehia ikusten zen, lau eta lau.

**Bereziki norbaiten beldur zinen?**

Topikoa dirudien arren, nire buruaren beldur nintzen. Beste ezer baino gehiago, nire helburua bertsotan ondo egitea zen. Finalerdietan ez nintzen gustura geratu, eta domekan onena eman nahi nuen.

**Gipuzkoako bigarren txapela eskuratu duzu dagoeneko. Zeinek berotzen du gehiago?**

Bai, tartean urte dezente badira ere, bigarrena da. Berotu, biek berotzen dute asko. Baina momentuak oso ezberdinak dira. Orain dela 12 urte, 20 urte nituen, ilusio handia nuen, dena egiteko nuen oraindik... Indar handia ematen du holako txapel batek. Egungo egoera, berriz, bestelakoa dut: bide batean abiatuta nago, izena neurri baten ezaguna da. Oraingoak indarra emateko baino gehiago, animuak emateko balio izan dit. Era berean, egindako bidea baloratzeko modu bat dela uste dut.

**Esperientzia lagungarria da.**

Bai, duda barik, esperientziak laguntzen du. Final baten egoten jakiteko eta, batez ere, aurretik psikologikoki prestatzeko.

**Azter dezagun finala zure ikuspuntutik, aurreko orduetatik hasita.**

Bezperatik lo ondo eginda, edozein domekatan bezala, goizean familiarekin lasai-lasai ibili nintzen eta gero bakarrik bazkalduta abiatu nintzen nahiko tenple onean Ilunbera. Taularen gainera ere nahiko lasai eta hasteko desiratzen igo nintzen. Aurkariak ere berdintsu ikusi nituen; oso animu polita zegoen; talde giroa. Horrek lagundu zigun final ona egiten.

(43. orrialdetik dator)

**Ilunbe beteta. Horrek lagundu ala kikildu egiten du?**

Beteta, bai! Ez naiz jendearengatik beldurtzen, baina oraingoan, guztiontzako indar bultzada handia izan zela esango nuke.

**Gaiez dagokienez, zer diozu?**

Txapelketa osoan oso maila handiko lana egin dutela esango nuke. Kalitatezkoak izan dira.

**Finalean, besteak beste, abokatua, fabrikako mantentzelanetako arduraduna, alaba hilda duen aita ere izan zinen.**

Orokorrean tokatu zitzaizkidan paperak niretzako gertukoak eta sinesgarriak izan ziren.

**Agurra ere bihotzetik egin zenuen: familiari eskainita.**

Jende asko etortzen zaizu gogora: daudenak eta ez daudenak... Eskerrak ematen hasita konturatzen zara saio oso bat ere ez litzatekeela nahikoa.

**Txapela jasotzeko unea nola gogoratzen duzu?**

Txapela bezain ederra izan zen Joxe Mari Altuna han egotea. Hainbeste urtetako lankidea, lagunaren eskuetatik jasotzea ilusio handia egin zidan. Horrek ere asko hunkitu ninduen.

**Oholtzatik jaits gaitezen. Nola jarraitu zuen egunak?**

Uf! Momentu baten bikotekide eta semeekin egon eta segidan prentsaurrekora joan nintzen. Jendeak gelditu egiten ninduen zerbait esateko. Gero Ilunbetik irten eta autoa hartu arte ez daukazu astirik gertatutakoa sinisteko. Ondoren, bertso eskolako lagunekin afaldu eta ospatu nuen.

**Finalera itzulita, bertso eskolak omendu zituzten.**

Bai, uste dut finala bera zela osotasunean omenaldi bat, han geunden bertsolari guztiak bertso eskoletako fruituak gara-eta.

**Atsedenik hartu gabe bihar Arrasatera etorriko zara.**

Bai, ilusioa egiten didan plaza da. Debagoienarekin harreman berezia dut: batetik, hainbat eskolatan irakaslea naiz eta bestetik, bertso eskolarekin ere harreman berezia ere badut.

**Irakaslea? Zer irakasten duzu?**

Nire jarduna bertsolaritza eta bertsogintzaren bitartez ahozkotasunean trebatzea da. Bertsozale Elkarteak Gipuzkoako hainbat eskolatan martxan duen proiektu bat da. Ibar horri dagokionez, Oñatiko hirutan eta Arrasateko baten izaten naiz.

**Biharko saioaz zer diozu?**

Polita izango da. Amaia antzokia leku ona da eta Debagoieneko zaleak ere fidelak dira.

**Urtarrilaren 5ean, berriz, Oñatin izango zara.**

Bai, han ere sarritan izandakoa naiz, oso gustuko dut; beraz, pilak kargatuta joango naiz bietara.

**Amaitzeko, zein da duzun hurrengo erronka?**

Dudan saio bakoitza erronka bat izatea nahiko nuke. Txapelketan moduan, hurrengo saioetan ere nire onena ematen eta hobetzen jarraitzea, alegia.

BERTSO SAIOAK

## Gabonetan bi bertso emanaldi izango dira gurean

Aspaldiko ohiturari jarraituz, bihar, Santamas egunean, AEDren eskutik bertso saioa izango da Amaia antzokian, 20:00etan. Parte hartuko duten bertsolariak: Aitor Mendiluze, Andoni Egaña, Arkaitz Estiballes, Jokin Labaien eta Amaia Agirre; gai jartzailea, Lierni Altuna izango da.

Urtarrilaren 5ean, berriz, Oñatiko bertso eskolaren eskutik Zubikoa kiroldegian izango da hitzordua, 22:30ean. Taularen gainean izango dira: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze, Iker Zubeldia eta Iñigo Manzisidor.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO DEBAGOIENEKO PARTE-HARTZAILEAK

**Ainhoa Agirreazaldegi**
ELGETA

### "Egun hartan Mendiluzeri zegokion txapela"

"Egun hartan, Mendiluzeri zegokion txapela. Era berean, Martinen bakarkako lana, Mendiluzeren puntuen erantzunak, Gaztelumendiren bertsolari jarrera eta zortzikotearen lan txalogarria ere azpimarratuko nituzke".

**Eñaut Uriarte**
BERGARA

### "Bertsoak egiteko duen abileziagatik txapela merezi zuen"

"Finala oso zabalik zegoen arren, Mendiluzek duen bertsoak egiteko era errazagatik eta duen abileziagatik, txapela merezi zuela uste dut. Gaztelumendirekin seiko txikian bota zituenak gustatu zitzaizkidan bereziki".

**Jokin Labaien**
ARRASATE

### "Egin dituen saio guztietan oso ondo ibili da Mendiluze"

"Saioak aurrera egin ahala, txapela eskuratzeko aukerak zituela iruditu zitzaidan. Jon Maiarekin hamarreko txikian botatakoak gustatu zitzaizkidan; dena dela, egin dituen saio guztiak onak izan direla esango nuke".

**Iñigo Arzelus**
BERGARA

### "Txapeletik geroago eta gertuago ikusten nuen Mendiluze"

"Asko gozatu nuen finalean, orokorrean denak ibili ziren oso ondo; baina saioan zehar Mendiluze txapeletik gero eta gertuago ikusten nuen. Nire ustez, merezi zuen. Kartzelakoak benetan onak iruditu zitzaizkidan".

**Egoitz Aizpuru**
OÑATI

### "Epaileen ustez merezi badu, ni bat nator erabakiarekin"

"Epaileek Mendiluzek txapela merezi duela uste badu, ni bat nator erabakiarekin. Bertsoren bat hartzekotan, kartzelako lehenengoa aukeratuko nuke; hau da, parranda garestiarena. Irudia garbi eta samur adierazi zuen".



ERAKUSKETA > GASTEIZKO FELISA NAVARRO GALERIAN

# Debagoiendarren lanak Gasteizen erakusgai

Arrasateko Iñigo Arregi eta Bergarako Bingen de Pedro artisten lanak daude ikusgai Gasteizko Felisa Navarro erakusketa aretoan



**IÑIGO ARREGI** Gasteizko erakusketan ikusgai daude bere lanak. IÑIGO ARREGI

**MIREN ARREGI** > DEBAGOIENA

Gasteizko Felisa Navarro arte galerian 12 artistaren lanez osatutako erakusketa kolektiboa dago ikusgai. *Navidad sobre papel* da erakusketaren izenburua eta bertan, Debagoieneko Iñigo Arregiren eta Bingen de Pedroren lanak daude ikusgai. 2008ko otsailean Madrilen egingo den Art Madrid ferian Gasteizko galeria ordezkatuko dute bi artiston lanokin.

**ARREGIREN SEI LAN**

Arrasateko Iñigo Arregiren sei lan daude ikusgai Gasteizko aretoan. Gabon kutsua duen arte galeria horretarako koadro erliebedunak egin ditu Arregik eta lehenengo aldiz ipini ditu erakusgai, gainera. Denetik dago galerian, lan abstraktuak zein figuratiboak, eta Arregirenak abstraktu bezala kalifika daitezke; izan ere, honako hitzak erabili ditu gasteizko galeriako lanak definitzeko: "Figurazio barruan mugitzen naiz, baina abstraktuaren mugan. Esango nuke honako lan hauek abstraktutik gehiago dutela figuratibotik baino".

**DE PEDROREN LAN SURREALISTA**

Bingen de Pedrok teknika mistoa erabiliz begirik gabeko animalia baten errepresentazioa egin du. Kutsu surrealista du koadroak.

KONTZERTUA > BENITO LERTXUNDI ZUBIKOAN

## Zubikoa kiroldegira itzuliko da Benito Lertxundi, bihar

Bost urte pasatu dira Orioko musikari ospetsua Oñatin ikusi ahal izan genuenetik

**M.A** > OÑATI

Denontzat ezagunak diren abestiak eskainiko ditu Benito Lertxundik bihar, 22:30ean, Oñatiko Zubikoa kiroldegian egingo duen kontzertuan.

Bost urte igaro dira dagoeneko Orioko abeslari ezagunak Oñatin kontzertua eskaini zuenetik. Bost urte, Oñatin zuzenean, Euskal Herriko kantari eta musikari ospetsuenetarikoaren ahots berezi bezain sendoa entzuteko aukera izan zenetik. Bihar itzuliko da Benito Lertxundi bere betiko indar eta sentsibilitatez beterik eta hain ezagunak diren abestiak lagun dituela. Besteak beste, *Bizkaia maite, Baldorba, Hitaz oroit* eta *Udazken koloretan*.

**1.000 LAGUNENDAKO TOKIA**

Hala, Oñatin, Zubikoa kiroldegia egokitzen dihardute biharko kontzerturako; izan ere, Oñatiko Udaleko Kultura Sailetik adierazi digute 1.000 lagun ingururendako egokitu beharko dutela kiroldegia.

Astelehenerako, jada, 600 sarreratik gora zeuden saldu-ta. Leihatilan erosteko aukera ere egongo da, 12 euroren truke.

> TXOTXONGILOAREN ARTEA

### 'Txotxongiloaren artea' izenburuko erakusketa ipini du Corrado Masaccik Arrasateko Kulturaten

Guztira ehunetik gora txotxongilo ipini ditu jaiotzez italiarra den baina egun Ondarroan bizi den Corrado Masacci txotxongilo egileak Arrasateko Kulturaten. Erakusketa gaur zabalduko dute eta urtarrilaren 28ra arte egongo da zabalik. Txotxongilo horiei begira, bizitza propioa duten izaki txikiak direla dirudite. Abenduaren 26an, 27an eta 28an, Masacci Kulturaten izango da, eskatzen duten guztiei azalpenak ematen.



## zorion agurrak



ARETXABALETA
**Irati Garai Leturiaga**
Abenduaren 18an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat aitatxo eta amatxo.



ARETXABALETA
**Jon eta Gorka Gonzalo Iglesias**
Abenduaren 18an Jonek 8 urte eta 26an Gorkak 11. Aitatxo eta amatxoren partetik, zorionak eta muxu handi bat.



ARETXABALETA
**Miriam Encina**
Abenduaren 26an, 5 urte. Zorionak eta egun alaia pasa dezazula, etxeko guztien partetik.



**Xabi Garcia**
Abenduaren 21ean, 4 urte. Zorionak Xabi, zorionak gizontxo, eta muxu handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Nora Justinne**
Abenduaren 31n 4 urte. Zorionak potxola etxekoen partetik eta bereziki Beatriz lagunaren partez! Muxu asko!



BERGARA
**Garazi Plazaola**
Abenduaren 23an 8 urte. Etxeko guztien partetik zorionak printzesa txikiari.



BERGARA
**Ane Arenaza**
Abenduaren 31an 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, amatxo, aitatxo eta Aratzen partez!



BERGARA
**Amaia Elortza**
Abenduaren 22an, 9 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat, etxekoen partetik, batez ere, Maddiren partetik.



OÑATI
**Nagore Iñurritegi**
Abenduaren 30ean urtebetetzea. Zorionak Nagore. Ondo ondo pasa zure urtebetetzea denon partetik.



OÑATI
**Nora Freire**
Abenduaren 22an urtebetetzea. Zorionak potxola! Oso ondo pasa eguna, eta patxo handi bat Jon eta amatxoren partez.



DEBAGOIENA
**Libe Iñurritegi**
Abenduaren 21ean urtebetetzea. Kaioko printzesarentzat bere lehenengo urtebetetzean muxu handi bat etxekoen partez.



ARRASATE
**Alai Arregi**
Abenduaren 25ean 10 urte. Zorionak etxekoen eta lagunen partetik eta muxu handi bat!



BERGARA
**Aner Arriola**
Abenduaren 23an 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partez.



BERGARA
**Bingen Larrañaga**
Abenduaren 26an 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partez.



OÑATI
**Axier Lopez**
Abenduaren 21ean. Zorionak eta urte askotarako, Axi! Disfrutatu zure egunaz! Mila muxu familia eta lagunen partetik.



OÑATI
**Eneritz Elorza**
Zorionak potxola! ondo pasatu eguna koadrilakoen partetik! Laster ikusiko gara... eta orduan ospatuko dogu behar den modura!

Oporrak hartzen ditugula-eta, astelehenean, abenduaren 24an, ez dugu *Asteleheneko Goienkaria* kaleratuko. Hortaz, egunotako zorion agurrak ale honetan argitaratu ditugu. Urtarrilaren 2an itzuliko gara lanera eta ordutik aurrera, jasoko ditugu berriz zorion agurrak, urtarrilaren 7an argitaratzeko.

ESKELA

# Maria Luisa Izagirre Atxa

Eibarren hil zen 2007ko abenduaren 13an, 81 urte zituela.

GOIENAk bat egiten du senideen saminarekin.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Arrasaten, 2007ko abenduaren 21ean.



**Alonso Arrotxa** eta **Mariana Gil** arrasatearrak 1957ko abenduaren 26an ezkondu ziren Malagako Igualeja herrian. Hilaren 29an, familiartekoekin ospatuko dituzte urrezko ezteiak. Zorionak, familiako guztien partetik!



Donostiako **Leire Mugertza** eta Arrasateko **Mario Egues** Hondarribiako Guadalupeko ermitan ezkondu ziren uztailaren 14an. Eztei bidaia Vietnamera egin zuten. Familia guztiaren partetik, zorionak eta zorte on, bikote!

## bono fotoa



**Argazkian bi mendi gailur ageri dira lehenengo planoan. Bata Orixol da (Barajuengo haitzak ere esaten zaio mendi horri). Zein da bestea?**

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM IFA

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..................
..................
IZEN-DEITURAK..................
TELEFONOA..................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**La Gula del Norte**
200 g-ko bandeja

**4,60 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

### AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Bergarako **JOSE MARIA JAUREGI**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Aurreko Galderaren erantzun zuzena: Errukizko Amaren Eliza, Antzuolan.**

URTEURRENA

## Genaro
## Elorza Beltran de Heredia

Lehen urteurreneko meza
martitzenean, 2008ko urtarrilaren 1ean,
11:30ean,
Aretxabaletako parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Juan
## Murillo Cruz

Eskoriatzan hil zen 2007ko abenduaren 18an, 56 urte zituela.

Eskerrik asko,
Caldereria Epele SLko lankideen
eta zuzendaritzaren izenean.



Arrasaten, 2007ko abenduaren 21ean.

ESKER ONA

## Francisca
## Suinaga Larrañaga

Angiozarren hil zen 2007ko abenduaren 17an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Angiozarren, 2007ko abenduaren 21ean.

IX. URTEURRENA

## Lorea
## Astondoa Altuna

Bederatzigarren urteurreneko meza domekan,
abenduaren 23an, 13:00etan,
Barajuengo Andra Mari parrokian.
–
*Erreza zu maitatzea*
*zaila zu galtzea*
*ezinezkoa zu ahaztea.*



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Jose Mari
## Elorza Ruiz de Azua

Arrasaten hil zen 2007ko abenduaren 14an, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko abenduaren 21ean.

ESKER ONA

## Antonio
## Elorza Ruiz de Azua

Aramaion hil zen 2007ko abenduaren 16an, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Aramaion, 2007ko abenduaren 21ean.

III. URTEURRENA

## Pablo
## Gallastegi Unamuno

Donostian hil zen 2004ko abenduaren 20an.

*Belardiaren distira eta loreen argia*
*ezerk itzuliko ez dizkigun arren,*
*ez dugu atsekabetu behar;*
*edertasunak gogoan bizirik dirau.*



Bergaran, 2007ko abenduaren 21ean.

URTEURRENA

## Izaskun
## Galarza Zulueta

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, abenduaren 22an,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiangeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Felisa
## Gonzalez Garro

Aretxabaletan hil zen 2007ko abenduaren 16an, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2007ko abenduaren 21ean.

ESKELA

## Eli Amilibia
## Martinez de la Hidalga

*Besarkada handi bat*

Oñatiko Institutuko eta Herri Eskolako guraso, langile eta ikasleak.
Oñatin, 2007ko abenduaren 21ean.

ESKER ONA

## Jesus
## Belategi Elkoro

Juli Oruetaren alarguna

Bergaran hil zen 2007ko abenduaren 16an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko abenduaren 21ean.

ESKER ONA

## Sabin
## Gallastegi Altuna

2007ko abenduaren 13an hil zen, 63 urte zituela.

*Beti gogoan izango zaitugu.*

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko abenduaren 21ean.

ESKER ONA

## Basilisa
## Lizaur Uribarren

Valentin Olaberen alarguna

2007ko abenduaren 14an hil zen, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko abenduaren 21ean.

URTEURRENA

## Montserrat
## Moreno Rebanal

Arrasaten hil zen 2006ko abenduaren 18an, 38 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 23an,
12:30ean,
Arrasateko San Frantzisko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak
*Momentu txar horietan sortzen diren*
*galdera, kezka eta arazo guztiei*
*aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da*

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Ibargarai. 40 m². Berria.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- Martoko 52 m². Berritua.
- Iraburu 84 m². Terrazarekin.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Martoko 53 m². Igogailuarekin.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.

**Elgeta:**
- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Artekale, 82m², ondo
- Artzamendi, 80 m², oso ondo
- Zabalotegi, 80 m², ondo
- Ibargarai, 80 m², oso ondo
- Artekale, 70 m², oso ondo
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua
- Ibarra, 130 m², aukera ona
- Zubieta 70 m², ondo
- Matxiategi, 65 m², ondo
- Arrizuri, 97 m², garajearekin
- Aranerreka, 87m², ondo
- Bidekurutzeta, duplexa, berritua
- San Anton Abad, 70m², oso ondo
- Etxebizitza berrien eraikuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.
- Zurradero, 81m², oso ondo

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83m², berria

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai Durana kalean. 90 metro koadro, hiru logela, bi bainu, egongela, terraza eguzkitsua eta ganbara. 685 76 44 77.

**Arrasate.** Etxea salgai Zigarrolan. 48 m². Beheko solairua, berrituta. 196.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 665 73 25 74.

**Arrasate.** San Andresen. 61 m². Sukaldea, bainugela, bi logela, egongela eta terraza. Igogailua. 12 m²-ko sotoa. Berritua eta sartzeko prest. Ongi kokatua. Deitu ezazu telefono honetara: 669 14 67 92.

**Arrasate.** San Andresen. 61,50 m² eta 261.440 euro. Bi logela, bainugela bat, egongela, sukalde hornitua eta terraza. Jantzia. Igogailua berritu berri eta 12 m2-ko trastelekua. Bizitzera sartzeko prest. Telefonoa: 669 14 67 92.

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Koldo Eleizalde kalean. Berritua eta bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, jangela, trastelekua eta garajea. Prezio interesgarria. 665 30 42 26 edo 627 34 91 77.

**Bergara.** Etxea salgai Koldo Eleizalden. 97 m². Hiru logela, bi bainugela. Terraza eguzkitsua eta garajea. 655 71 03 23.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. Telefonoa: 619 41 39 72.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Berritua. Bi logela eta ganbara ditu. 605 73 37 39.

**Bergara.** Herri erdian etxea salgai. Oso aukera ona. Telefonoa: 685 72 40 30.

**Bergara.** Sei urteko duplexa (etxebizitza+ganbara): 123 m², sukalde hornitua, igogailua, gas naturala. Estudio, bulego edo antzeko bat ipintzeko egokia. Garajea aukeran. Deitu ezazu telefono honetara: 699 49 14 14.

**Bergara.** Zabalotegin etxea salgai. Hiru gela, egongela, sukaldea eta bainugela. Telefonoa: 653 70 84 04.

**Bergara.** Zabalotegin etxebizitza salgai. 56 metro koadro. Sotoarekin. Guztiz jantzita. Deitu ezazu telefono honetara: 678 53 40 43.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Igogailua dauka. Hiru logela, sukaldea, komuna eta ganbara. Aukera ona. 137.032 euro (22.00.800 pezeta). Deitu ezazu telefono honetara: 645 71 76 25.

**Eskoriatza.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, lau logela, bi bainugela eta beste bi terraza ditu, baita gas bidezko berogailua ere. Erabat berritua. 636 57 76 13.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai. 82 metro karratu. Lau logela, sukaldea eta komuna. Berogailuarekin. Eguzkitsua. Garajea aukeran. 210.000 euro. Telefonoa: 645 97 45 64.

**Nafarroa.** Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratu. Berritua. 185.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 943 76 00 03.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Aozaratzan, 67 metro koadro, jantzita, 2 logela, ganbara. Deitu ezazu telefono honetara: 943 78 26 54 edo 943 78 30 56.

**Oñati.** Apartamentua salgai Arantzazu kalean. Etxabea da (baxua). Bi logela, sukalde-egongela eta bainugela. Guztiz berritua, estreinatzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 669 73 18 23 edo 657 77 91 74.

**Oñati.** Zubillaga auzoan. 79 m². Hiru logela, sukaldea, sala, komuna eta ganbara. 41 miloi, negoziagarriak. Deitu ezazu telefono honetara: 635 71 41 39 edo 943 08 13 25.

**Oñatin** etxebizitza salgai, San Lorentzo auzoan, 90 metro koadro, 3 logela, sukaldea, bi komun, estudio bat, dena jantzita, bi balkoi, garajea eta ganbara. 54.000.000 pta. Deitu ezazu telefono honetara: 943 71 60 56 edo 606 96 16 13.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Etxebizitza alokagai herriko plazan. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta berogailua dauzka. Lehenengo solairua. Deitu ezazu telefono honetara: 945 44 53 60.

**Aramaioko** plazan etxebizitza errentan ematen da. Lau logela eta bi komun. Deitu ezazu telefono honetara: 945 44 53 60.

ARRASATE

**Tatuaje denda batek marrazten dakien pertsona behar du.**

**626 66 12 92**

**Arrasate.** Etxebizitza emango nuke errentan. Bi logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela ditu. Unibertsitatetik gertu dago. 634 40 37 03.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta edo Arrasaten** etxea errentan hartuko luke bikote batek. 610 82 02 17.

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke erdialdean. Ez du zertan berria izan. Deitu ezazu telefono honetara: 669 64 76 28.

**Debagoiena.** 2 edo 3 gelako etxebizitza errentan hartuko nuke. 662 26 85 84.

**Donostian** logela bat hartu nahi dut etxe partekatuan. 30 urte ditut eta lanean ari naiz. Telefonoa: 655 73 23 34.

**Etxe edo logela bila.** Galiziatik Ikerlanera praktika egitera nator eta urtarriletik aurrera logela bakarreko etxe bila nabil; ez bada posible, logela ez banatzea eskertuko nuke. Telefonoa: 616 90 58 38.

**Logela** bat hartuko nuke Bergaran edo Arrasaten, langileekin. 30 urteko neska bat naiz. Deitu ezazu telefono honetara: 655 73 23 34.

### 105. ETXEAK OSATU

**Bergaran,** Arrasaten edo Gasteizen gela bat alokatuko nuke. 30 urte ditut eta lanean ari naiz. 655 73 23 34.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Lezaman. Aukera aparta, 15.000 euro. 647 08 00 16.

**Eskoriatza.** Garaje itxia salgai Aingeru Ibiltokian, gasolindegitik gertu. Deitu ezazu telefono honetara: 607 43 84 55.

**Oñati.** Garaje itxia Olapoto auzoan. 17 m². 943 08 18 13 edo 677 42 57 94.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea errentan Kontzezino kalean. 943 79 54 06 edo 655 71 81 84.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Trastelekua** salgai Zurraderon (Bergara), motorra gordetzeko egokia. Neurriak: 5,80x1,80. Prezioa: 8.000 euro. Deitu 18:00etatik aurrera. Telefonoa: 678 43 31 07.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Urtarriletik aurrera. 943 76 50 63.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska lanerako gertu. Garbiketa lanak, ostalaritzan lan eginda, nagusiak edo umeak zaintzen. Esperientzia zerbitzari lanetan. Sandra. 680 60 18 24.

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska lanerako gertu. Sukalde laguntzaile lanetan eskarmentua. Garbiketa lanetarako eta umeak zein nagusiak egunez zaintzeko prest. Ana. Telefonoa: 625 17 98 03.

**Arrasate-Bergara.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko, garbiketak lanak egiteko edo ile apaintzaile laguntzaile jarduteko. 619 65 56 75.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 943 79 78 43 edo 665 74 51 22.

**Arrasate.** Emakumea prest dago nagusiak gauez zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko tabernaedota elkarteetan. Esperientziaduna. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Bergara.** Emakume batek umeak edo nagusiak zaintzen egingo luke lan. Etxean bertan bizi izateko gertu dago. Telefonoa: 659 37 41 95.

**Bergara.** Garbiketa lanak egingo nituzke, elkarte, taberna edo dendatan. 650 00 58 48.

**Bergara.** Mutil bat gertu dago garbitasun lanak egiteko, nagusiak zaintzeko edo sukaldeko laguntzaile edo zerbitzari izateko. 627 65 02 71.

**Bergara.** Mutila gertu pertsona nagusiak zaintzeko, arotz lanetan laguntzeko, igeltsero lanetarako... 685 42 72 80.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egin edo pertsonak zaintzeko. 639 02 00 81.

**Debagoiena.** Eraikuntzan lan egingo nuke. Urtarriletik aurrera. Esperientziarekin. Telefonoa: 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gazte bat gertu pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketak egiteko edo sukaldari laguntzaile jarduteko. 638 23 26 29.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu zerbitzari, garbitzaile, nagusien zainketan edo sukaldari laguntzaile jarduteko. Telefonoa: 627 65 02 71.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. 645 72 92 87.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. Arratsaldez edo gauez. 685 70 76 25.

**Debagoiena.** Neska gaztea gertu garbitzaile, nagusi edo haurren zainketan edo sukaldari laguntzaile jarduteko. Telefonoa: 659 37 41 95.

**Emakumea** atariak edo etxebizitzak garbitzeko prest. Segurua daukat. 695 58 88 63.

**Oñati.** Neska bat gertu tabernak edo elkarteak garbitzeko. 635 70 07 92.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Bergara.** Zientzietako klaseak ematen ditut (Matematika, Fisika, Kimika, Biologia eta Geologia), Lehen hezkuntzako, DBH-ko eta Batxilergo kurtsoetan dauden ikasleentzat. Arreta pertsonalizatua eta ikaslearen etxean. 627 85 20 80.

**Gitarra** elektrikoa eta akustikoa ikasteko eskolak ematen dira. Ibon. 635 72 19 69.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Karabana** salgai. Bürstner Holiday. AL-KO egonkortzailearekin. Hozkailua, hiru su eta Thetford komuna. Truma berogailua. Telebistarendako antena. Udako Fiamma toldoa eta neguko abantzea. 3.500 euro. 655 70 16 44.

**Nissan Almera** Sport 2.2 DI, 16 balbula. 7.300 euro. Telefonoa: 646 03 39 45.

**Opel Kadett** GSI autoa salgai. Egoera onean. Arratsaldez deitu. 658 72 11 49.

**Seat Toledo** turbodiesela. 1.000 euro. 639 96 29 51.

**Volkswagen Transporter TDI** furgoneta salgai. 2004koa, 95.000 km. 1.9 motorra, 104 ZP. Aire girotua, berogailu estatikoa, atzekoa muntatuta. Telefonoa: 685 72 11 67.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Cocker** ingeles bat saltzen da, emea. Urtebete egitera doa. Txertoa jarrita eta parasitoak kenduta dago. 300 euro. Telefonoa: 696 11 01 94.

### 703. EMAN

**Txakur** txiki bat oparitzen da, emea eta kanela kolorekoa. Txertoa jarrita eta parasitoak kenduta dauzka. 696 11 01 94.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Alazena** errustikoa saltzen dut, egoera onean dago. 943 08 24 19 edo 645 00 53 32.

**Archos telebista** salgai. Oso prezio ona. 666 53 95 39 edo 607 79 10 00.

**DJ mahaia** salgai. 2 CD erreproduktore, nahasketa mahaia eta maleta. 18:00etatik aurrera deitu. 943 53 25 46.

**Gitarra elektrikoa** salgai, ezkertiarrendako. Fender Stratocaster mexikarra. Marroi eta zuria. Urtebete bakarrik du. 600 euro. Anplifikadorea nahi izanez gero ere saltzen dut, Ibanez markakoa, prezio onean. 685 73 11 35 edo 943 79 45 33.

**Ipod Classic** salgai. 30 GB. 100 euro. 666 53 95 39.

**Karabina salgai** Karabina erdiautomatikoa saltzen dut, 22koa. Berri-berri dago. 943 76 56 94.

**Mahai obalatua** salgai. 136x92 cm, luzagarriarekin. 200 euro, negoziagarriak. Asier. 617 17 15 88.

**Solariuma salgai.** 100 euro. 666 53 95 39.

### 802. EROSI

**Bigarren eskuko** soinu handia erosiko nuke. Iker. 635 00 69 26.

**Zero Sette** Castelfidardo trikitia erosiko genuke. 943 76 02 92.

### 806. GALDU

**Argazki kamera digitala** galdu dut Bergarako taxi geltokian. Sarituko da. 605 71 77 11.

**Urrezko belarritakoa** galdu nuen domekan Bergaran, Bolutik Labegaraietako bidean. Telefonoa: 678 61 50 45.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

**Debagoieneko Mankomunitateak VALORA proiektuaren ekintzak garatzeko aldi baterako TEKNIKARI BAT kontratatu nahi du.**

**Titulazioa:**
Goi mailako unibertsitate-titulazioa.
B gidabaimena.
3. hizkuntza eskakizuna.

**Eskaerak:**
Urtarrilaren 4ko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatearen egoitzan.
Bertan dauzkazue oinarriak eta eskaera ereduak.

**Helbidea:**
Arrasate pasealekua 5, behea.
ARRASATE.
**Tel.:** 943 79 33 99
**www.debagoiena.com**

*Europako Gizarte Fondoak %50 finantzatzen du.*

EUROPAR BATASUNA
Europako gizarte fondoa

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

**Debagoieneko Mankomunitateak ENPLEGU ETA GARAPEN AGENTEAREN LANPOSTUA ALDI BATERAKO BETETZEKO BITARTEKO FUNTZIONARIO bat behar du.**

**Titulazioa:**
Erdi mailako unibertsitate-titulazioa.
3. hizkuntza eskakizuna.

**Eskaerak:**
Urtarrilaren 4ko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatearen egoitzan.
Bertan dauzkazue oinarriak eta eskaera ereduak.

**Helbidea:**
Arrasate pasealekua 5, behea.
ARRASATE.

**Tel.:** 943 79 33 99

**www.debagoiena.com**

BERGARAKO UDALA

**Bergarako Udalak oposizio bidez Agorrosinerako aldi baterako bi garbitzaile kontratatzeko presazko hautaketa prozesuari ekingo dio.**

**Lehiakideen baldintzak:**
a) 16 urte beteta izatea.
b) 1. hizkuntza eskakizuna ez derrigorrezkoa.
c) Oinarrietan jasotakoak.

**Instantziak**
Instantziak aurkezteko epea 2008ko urtarrilaren 2an bukatuko da.

Oinarriak Idazkaritzako bulegoetan, eta webgunean.

*Bergaran, 2007ko abenduaren 19an.*
*ALKATEAK*

BERGARAKO UDALA

BERGARAKO UDALA

**Bergarako Udalak oposizio bidez aldi baterako errenta teknikari bat, lan jardun erdiarekin, kontratatzeko hautaketa prozesuari ekingo dio.**

**Lehiakideen baldintzak:**
a) 16 urte beteta izatea.
b) Enpresa zientzietako diplomatu tituluaren jabe izatea edota ekonomi zientzietako edo zuzenbideko lizentziaturetako lehen hiru ikasturteak gainditutak izatea.
c) 4. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila, derrigorrezkoa.
d) Oinarrietan jasotakoak

**Instantziak**
Instantziak aurkezteko epea 2008ko urtarrilaren 10an bukatuko da.

Oinarriak Idazkaritzako bulegoetan, eta webgunean.

*Bergaran, 2007ko abenduaren 19an.*
*ALKATEAK*

BERGARAKO UDALA

MUSAKOLAKO KIROLDEGIA > EGUN OSOAN ZABALIK

# Zure nahi eta premietara egokitutako ordutegia aurkituko duzu Musakolan



**Jose Luis Arregi**

**07:00** "Lanagatik aukera onena goizeko ordu honetan etortzea da spinning egitera, eta ez zait inporta goiz jaikitzea. Errepidean ibiltzen naiz bizikletarekin, eta sasoia ez galtzeko egiten dut, baita osasuna mantentzeko".



**Joxean Aranburuzabala**

**08:00** "Nahiago dut goizean joan, gero hobeto sentitzen naizelako. Arratsaldean gimnasiora joatea astunagoa izango litzateke niretzat. Gustukoa dut, eta, gainera, medikuak agindu zidalako ere egiten dut, bai bizikleta eta baita pesak".



**Lourdes Oruna**

**09:00** "Ordutegi onena niretzat goizean da, eta bederatziak oso ordu ona da. Gainera, arratsaldean baino hobeto goizez. Nik ikusmenean arazo bat dut eta kirol egokiena igerilekukoa da; aquagyma oso dibertigarria da, gainera".



**Ramon Aperribai**

**09:30** "Ordutegia aukeratuta dago, baina niri ondo datorkit. Asko gustatzen zait gimnasia terapeutikoa. Bakoitzak ahal duena egiten du ordubeteko saio honetan. Gehienbat giltzadurak lantzen ditugu ariketa ezberdinekin".



**Jon Molina**

**12:00** "Ordutegi finkorik ez dut eta normalean goizean etortzen naiz, eta ahal badut egunero.Igerilekura joaten naiz, igeri egitea asko gustatzen zaidalako. Igeriketarekin burua esnatu egiten dut. Kirola eginda oso ondo sentitzen naiz".



**Nuria Hernandez**

**13:00** "Eguerdi aldean lasaitasun handiagoa dago nahi duzun kirola egiteko, jende gutxiago dabil. Gimnasioan hainbat ariketa egiten ditut bizikleta gainean, osasun arazo bat baitut, eta igerilekura ere joaten naiz beste ordu bat".



**Gaizka Aranegi**

**16:00** "Errelebuka lan egiten dudanez, goiz eta arratsaldeak tartekatzen ditut. Korrika atsegin dudalako, baina beste kirol batzuk ere egiten ditut. Kirola egiteak lasaitasuna eta nire buruarekin gustura egotea ematen dit".



**Consuelo Tena**

**15:00** "Etxea batu eta gero joaten naiz bertara arratsaldean. Lagunekin elkartzen gara igerilekuan, eta gero kafetxo bat ere hartzen dugu. Urte asko daramatzat igeri egiten. Asko gustatzen zait eta oso osasuntsua da".



**Goizane Meng Agirregomezkorta**

**17:30** "Nire adinagatik ordutegi hau tokatzen zait, oraindik ere hastapen mailan nago-eta. Gehien gustatzen zaidan kirola igeriketa da, eta uztaiekin jokoak egitea oso atsegin dut hemen elkartzen garen lagunekin".




**Jose Luis Azkarate**

**18:30** "Askok lan egiten dute, eta ordu ona da guztiok elkartu eta kirol pixka bat egiteko. Eguazten guztietan elkartzen gara ordu batez areto futbolean jokatzeko. Asko gustatzen zaigulako eta izerdia ere botatzen dugulako".



**Maite Murua**

**19:30** "Beste ordutegirik ez daukadalako joaten naiz ordu honetan, niretzat egokiena delako. Pilateseko lan metodoa ez nuen ezagutzen, eta behin ezagutu eta gero, gimnasia egiteko oso egokia dela iruditzen zait".



**Mari Tere Dolara**

**20:30** "Eguneroko lana bukatu eta umeak afalduta utzi ondoren etortzen naiz batuka egitera. Iaz pilates ere egiten nuen, baina batuka alaiagoa da. Gainera, dantza egitea asko gustatzen zait eta deskonektatzeko balio dit".



## Gabonetan oparitu osasuna!

Txartel bereziak prestatu ditugu zuk nahi duzunari kiroldegiko abonoa oparitzeko. Lagunari, senideari, maiteari... osasuna opa diozulako.



**Abono oparia 2008**

**MUSAKOLA KIROLDEGIA 943 77 16 77**

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

AUKEA
Kirol Erakundea

**Rachael Olabarria** > Irakaslea eta futbolaria

# "Itsuen eskola batean praktikak egitea gogorra baina aberasgarria izan zen"

Eskozian jaioa da eta bertakoa du ama; horra bere izenaren jatorria. Bergaran hazia da, ordea, eta euskaraz eta ingelesez, bietan moldatzen da primeran, baita gaztelaniaz ere. Hizkuntzekin soilik ez, ikasten ere abila da Rachael Olabarria: Kutxak ikasketa-espediente onearen saria eman berri dio. Futbolean ere fin moldatzen da; Oiartzungo taldean dihardu.

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Rachael Olabarria bergararrak badaki denborari eta ahaleginari etekina ateratzen. Hezkuntza Bereziko ikasketak amaitu eta lan egiteaz gain, beste karrera bat ikasten dihardu; eta futbolerako ere badu astia.**



**Kutxak ikasketa-espediente onenaren sarietako bat eman dizu. Ikasle ona zara, hortaz.**

Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzia ikasketak hasi nituen, baina elitista zen eta alderdi pedagogikoa faltan sumatu nuen. Hortaz, Hezkuntza Bereziko irakasle ikasketak egin nituen. Ikasle langilea naiz, konstantea, ez ditut gauzak azkenera arte uzten. Lan ohitura jakinak hartzeak lagundu dit emaitza onak lortzen.

**Nola pentsatu zenuen Hezkuntza Bereziko ikasketak egitea?**

Beti izan dut gustuko heziketa berezia, baina irakasle ikasketek ez dute aparteko prestigiorik, eta, batxilergoan asko ahalegindu nintzenez, esan zidaten lortutako emaitzak aprobetxatzeko beste zerbait ikasteko. Probatu nuen eta damutu egin nintzen, baina esperientzia hartatik ikasi nuen.

**Lanean ere hezkuntza berezian diharduzu?**

Kirol egokituko eskolak ematen ditut; igeriketa saioetan jarduten dut ezgaitasunak dituzten haurrekin. Karrera amaierako proiektua ere heziketa berezia eta heziketa fisikoa uztartzearen gainekoa egin nuen. Bestalde, ingeles eskolak ematen ditut, nire ama-hizkuntza ingelesa delako.

**Ama-hizkuntza duzu ingelesa; gaur egun ere erabiltzen duzu?**

Ama eskoziarra da eta hiru neba-arrebak Eskozian jaioak gara, nahiz eta hemen hazi. Amak beti ingelesez egin izan digu berba. Anaia nagusiak oso ongi hitz egiten du ingelesez, nik maila egokian eta gazteenak gutxiago. Aitak euskaraz egin digu beti, eta gaztelania ere jaso dugu.

**Ingelesa abantaila da zuretzat?**

Umetan ez nuen gustuko ezberdina izatea, izen berezia izatea... Gero konturatu naiz ingelesa jakiteak ate asko zabaltzen dituela, besteak beste kanpora ikastera joateko edo lanerako.

**Praktikak atzerrian egin zenituen, ezta?**

Bai, Edinburgon egin nituen, itsuen eskola batean. Aurrez hemengo eskola batean egin nituen praktikak, eta kanpoan beste hezkuntza sistema bat ezagutu nahi nuen. Esperientzia gogorra izan zen, baina era berean aberasgarria. Hezkuntza ulertzeko modua ezberdina da, nahiko zorrotza, gero emaitzetan igartzen bada ere. Itsuen bizimodua ezagutzea ere polita izan zen.

**Ikasketetan ez ezik futbolean ere abila ei zara...**

Eibarren hasi nintzen. Garai hartan Eibar goi mailan zegoen emakumeen futbolean eta asko ikasi nuen. Gero Athletic sortu zen eta jokalari onenak hara joan ziren. Ondoren, Oiartzunera joan nintzen, eta han nago orain. Denboraldi hasieran lesioa izan nuen, eta osatu ezinda nabil. Bizimodua baldintzatzen dit futbolak, baina oso gustura nago bai giroarekin baita emakumeoi ematen zaigun tratuarekin ere.

**Selekzioarekin ere jokatu duzu.**

Espainiakoarekin jokatu dut eta Euskadikoarekin hainbat mailatan, baina azken bi urteotan lan kontuengatik huts egin dut. Jokatu nuen azken partidua Argentinako selekzioaren aurkakoa izan zen, eta niretzat politena, hautatzaileak aukera eman zidan-eta jokatzeko, maila txikiagoko talde batean egon arren.

**Zein egoeran dago emakumeen futbola?**

Beste kirol batzuetan badirudi hobeto daudela. Babesleak lortzen dituzte, telebistan euren berri ematen dute... baina futbolean ez. Baditut lagunak goi mailako taldeetan, eta eurendako zaletasuna da. Lanetik irten eta entrenamenduetara joaten dira, zapatu edo domeketan bidaia egin eta partiduak jokatu... Eta euren ahalegina ez da aintzat hartzen.

**Ikasketak, lana, futbola... Baduzu denbora librerik?**

Bai. Lehentasunak ezartzea eta denbora aprobetxatzea da kontua; uda, esaterako. Aisialdian gustuko dut beste kirol batzuetan jardutea: bizikletan, mendia... Zinemara joatea eta bidaiatzea ere gustatzen zait.

**Aurrerantzean zertan jardun nahi zenuke?**

Ez dakit futbolean, esaterako, noiz arte jarraituko dudan, baina kirolarekin lotuta jarraituko dut. Ikasketetan, orain, Psikopedagogia egiten dihardut eta lanean, hezkuntza arloan jardun nahi nuke.







IRATI AGIRREAZALDEGI

### PERTSONALA

**Herria?** Bergara. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak?** Hezkuntza Berezia; orain Psikopedagogia ikasten dihardut. **Maniarik?** Azazkalak jatea. **Biziorik?** Bitxiak: belarritakoak, lepokoak... **Musika talde bat?** Chambao. **Futbolari bat?** Zidaneren lasaitasuna nuen gustuko. **Bidaiatzeko toki bat?** El Salvador. **Bizitzeko?** Ez dakit. Edinburgo moduko hirien aniztasuna eta Bergara bezalako herri txikien xarma, biak ditut gustuko. **Amets bat?** Ikasketak amaitzea, egiten dudanarekin gozatu eta bizi izateko ilusioa ez galtzea.

# Saioen emanaldiak GOITBn



**NOIZ >** Abenduaren 25ean.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Irati Nafarrate, Jone Balanzategi, Julene Agirre eta Sara Larrabe.
**HERRIA >** Arrasate.
**ADINA >** 12 urte.
**ABESTIA >** *Lau teilatu*.



**NOIZ >** Abenduaren 25ean.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Danel Argoitia, Lia Garai, Max Eddleston eta Txomin Etxabe.
**HERRIA >** Arrasate.
**ADINA >** 8 urte.
**ABESTIA >** *Maite zaitut*.



**NOIZ >** Abenduaren 25ean.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Ainhoa Urrutia, Ane Elorza, Izar Isurra eta Sara Etxebarria.
**HERRIA >** Arrasate.
**ADINA >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Deabrutxo maitea.*



**NOIZ >** Abenduaren 25ean.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Ainhoa Eriz, Amaia Telleria, Erika Etxebarria eta Paula Vicente.
**HERRIA >** Arrasate.
**ADINA >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Nirekin.*



**NOIZ >** Abenduaren 25ean.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Amagoia Monionguren, Laura Bueno, Lorea Sanchez eta Uxue Zabaleta.
**HERRIA >** Arrasate.
**ADINA >** 12 urte.
**ABESTIA >** *Ilargia*.



**NOIZ >** Abenduaren 27an.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Aitor Rueda, Andoni Moñux, Beñat Loidi eta Mikel Larrañaga.
**HERRIA >** Bergara.
**ADINA >** 8 urte.
**ABESTIA >** *Deabrutxo maitea.*



**NOIZ >** Abenduaren 27an.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Ainhoa Olaziregi, Leire Ugalde, Maialen Mujika eta Nerea Fernandez.
**HERRIA >** Bergara.
**ADINA >** 8 urte.
**ABESTIA >** *Marea gora*.



**NOIZ >** Abenduaren 27an.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Amaia Elortza, Garazi Ibarra, Mireia Ibabe eta Oihane Larrion.
**HERRIA >** Bergara.
**ADINA >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Festarik festa*.



**NOIZ >** Abenduaren 27an.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Chaima Saraga eta Houda Aboubi.
**HERRIA >** Bergara.
**ADINA >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Itxaropena*



**NOIZ >** Abenduaren 27an.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Garazi Bengoa, Leire Agirre, Maddi Garcia eta Maria Aginagalde.
**HERRIA >** Bergara.
**ABESTIA >** *Nere herri*.

Kantari Debagoienean

# Saioen emanaldiak GOITBn



**NOIZ >** Urtarrilaren 1ean.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Ainhoa Igartua, Ainhoa Markinez, Ibis Inis Ugarte eta Nagore Redin.
**HERRIA >** Oñati.
**ADINA >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Festarik festa.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 1ean.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Haizea Igartua, Itziar Otamendi, Naroa Ugarte eta Nora Maiztegi.
**HERRIA >** Oñati.
**ADINA >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Amets bat.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 1ean.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Ana Bordes, Elene Arriaran eta Ana Arregi.
**HERRIA >** Oñati.
**ADINA >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Nere herri.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 1ean.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Nagore Iglesias eta Saioa Varela.
**HERRIA >** Oñati.
**ADINA >** 8 urte.
**ABESTIA >** *Katuen testamentue.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 3an.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Alaitz Aldai, Maialen Mendieta, Maider Fernandez eta Sara Aranzabal.
**HERRIA >** Aretxabaleta.
**ADINA >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Izar iheskorra.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 3an.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Eider Cuenad, Jilali Ghaibat, Jon Navarro eta Matilde Aizpurua.
**HERRIA >** Aretxabaleta.
**ADINA >** 9 urte.
**ABESTIA >** *Furra furra.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 3an.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Alba Etxeandia, Beñat Arizabaleta, Eider Gabilondo eta Irene Alvarez.
**HERRIA >** Aretxabaleta.
**ADINA >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Oriko xoria.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 3an.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Aitor Mugika, Ixak Sarasua, Jon Gonzalo eta Lander Astaburuaga.
**HERRIA >** Aretxabaleta.
**ADINA >** 8 urte.
**ABESTIA >** *Sarri sarri.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 3an.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Ainhize Barrainkua, Haizea Arrieta, Maite Perez eta Oihane Iturbe.
**HERRIA >** Aretxabaleta.
**ADINA >** 10 urte.
**ABESTIA >** *Bi minutuero.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 3an.
**ORDUA >** 20:15ean.
**TALDEA >** Leire Arribas, Maider Conde eta Saioa Berasaluze.
**HERRIA >** Aretxabaleta.
**ADINA >** 8 urte.
**ABESTIA >** *Ilargia.*

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## KONPONKETAK

**MULTIARREGLOS**
Arrasate
• Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
• Instalazioak; Geletan antenak, telefoneonkableak...
• Jartzeak: Koadroak, lanparak gordiank...
• Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
Tel: 699 60 97 08

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**DAVILA MARGOAK**
Aretxabaleta
• Margoak orokorrean
San Migel 7, 3d.
Tel.: 646 22 41 09

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Abenduak 21-urtarrilak 6

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

## Musikala



OÑATI

**> 'Jolasean' izeneko musikala egingo du Ganbara Txiki abesbatzak**

Hiru emanaldi egingo dituzte. Batetik, hilaren 27an, eguena, saio bikoitza izango da: lehena 17:00etan eta bigarrena 19:30ean. Bestetik, hilaren 28an beste saio bat egongo da 18:30ean. Emanaldi guztiak Santa Ana aretoan izango dira.

## Artisau feria



BERGARA

**> Gabonetako artisau feria antolatu dute lehenengoz**

Gaur, egubakoitza, hasi eta hilaren 24ra arte egongo da. Munibe plazan karpa handia egokitu dute eta han erakutsiko dituzte euren lanak 15 bat artisauk, 10:30-14:00 eta 17:00-21:00 ordutegian; egubakoitzean, arratsaldez soilik.

## Erakusketa



ARRASATE

**> Txotxongiloen artearen sekretuak ezagutzeko erakusketa Kulturaten**

*Txotxongiloaren artea* deitzen da Kulturaten ikusgai jarri duten erakusketa. Corrado Masaccik sortu eta bildutako lanetatik abiatuta, ibilbidea egin daiteke erakusketan txotxongilo artearen historian zehar. Gaurtik urtarrilaren 27ra arte.

## Musika

BERGARA

**> Musika Eskolako ikasleek kontzertua egingo dute**

Gabonetako kontzertua egingo dute. Hainbat taldek hartuko dute parte.

Gaur, egubakoitza, 18:30ean, Udal Pilotalekuan.

BERGARA

**> Belceblues taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza**

Bergarako taldeak blues kontzertua egingo du.

22:30ean, Galway's irish Pub-ean.

ARRASATE

**> Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua egingo dute**

Gabonetako kontzertua egingo dute. Hainbat taldek hartuko dute parte.

Gaur, egubakoitza, 18:30ean, Kulturaten.

OÑATI

**> Benito Lertxundik emanaldia egingo du Zubikoa kiroldegian**

Orioko kantaria duela lau urte egin zuen azkenekoz kontzertua Oñatin. Sarrerak 12 euro balio du.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

BERGARA

**> Gabonetako kontzertua egingo dute hainbat taldek**

Urteroko hitzordu garrantzitsuenetakoan parte hartuko dute Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoiak eta Gabero abesbatzak.

Bihar, zapatua, 22:30ean, Udal Pilotalekuan.

OÑATI

**> Oñati abesbatzak emanaldia egingo du**

Gabonetako kontzertua egingo dute.

Bihar, zapatua, 20:00etan, Agustindarren elizan.

ESKORIATZA

**> Musika Eskolako kideek kontzertua egingo dute**

Gabonetako kontzertua egingo dute, M. Cruz Oianguren eta M. Esther Oregi Musika Eskolaren fundatzaileen omenez.

Etzi, domeka, 19:00etan.

BERGARA

**> Gabon gaueko jaia egingo dute Go-Jam aretoan**

Disko jartzaile gaua egongo da. Sarrerak 10 euro balioko du, edari bat barne.

Hilaren 24an, astelehena, 01:00etan.

ARRASATE

**> Hainbat disko jartzailek saioa egingo dute**

Gaur, egubakoitza, Trampas disko jartzaileak jardungo du eta bihar, zapatua, Balzak. Biak ala biak, 04:00etan. Bestalde, hilaren 24an, astelehena, *Elektrogabongaua party* delakoa egingo dute.

3.60 aretoan.

ARETXABALETA

**> Aretxabaleta abesbatzak emanaldia egingo du**

Aretxabaletako kantariek Gabonetako kontzertua egingo dute.

Hilaren 28an, egubakoitza, 19:00etan, parrokian.

ARRASATE

**> Kontzertu bikoitza egongo da 3.60 aretoan**

Naiz Roxa eta Tugger Travis taldeek egingo dute kontzertua.

Hilaren 28an, egubakoitza, 23:00etan.

ARRASATE

**> Arrasate Musikaleko bandak emanaldia egingo du**

Arrasateko taldeak urteroko Gabon zaharreko kontzertua egingo du.

Hilaren 31n, astelehena, 13:00etan, Amaia antzokian.

## Antzerkia

ESKORIATZA

**> Txirene taldeak antzezlana egingo du**

Edurne Agirrezabala Txirene taldeko aktoreak *Ogirik gabe etorri zen semea* izeneko antzezlana egingo du.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, unibertsitatean.

BERGARA

**> Helduendako eta haurrendako ipuin kontaketa saio sorta**

*Kontu kontari* izena du ekimenak eta kontalari sorta egongo da. Nagusiendako saioetan kontalari hauek hartuko dute parte, 19:00etan: hilaren 26an, Koldo Amestoyk *Harriola Marriola* ikuskizuna egingo du; hilaren 27an, Joxe Mari Carrerek *Ipuin konferentzia*, eta hilaren 28an, Doro Zobaranen *Buhamea* entzuteko aukera egongo da. Haurrendako ipuin kontaketei dagokienez, 18:30ean izango dira: hilaren 29an, *Loti ederra* saioa egingo du Katiuska Hegalariak eta hilaren 30ean, Gorakada taldeak *Titirikontu-kontari*.

Guztiak Munibe plazan egokituko duten karpan izango dira, doan.

ARAMAIO

**> Doke antzerki taldeak emanaldia egingo du**

Iaz estreinatutako *Actto para la Noche Buena* izeneko antzezlana egingo du Arrasateko taldeak.

Hilaren 29an, zapatua, 20:00etan, kultura etxean.

OÑATI

**> Bertso jaialdia izango da Zubikoa kiroldegian**

Parte hartuko dute: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jexus Mari Irazu, Aitor Mendiluze, Iker Zubeldia eta Iñigo Manzisidor bertsolariek.

Urtarrilaren 5ean, 22:30ean.

## Hitzaldiak

OÑATI

**> Ilatargi astronomia elkarteak hitzaldia antolatu du**

*La evolucion del universo y el origen de la vida* izeneko hitzaldia egingo du Jesus Martin-Pintadok.

Hilaren 27an, eguena, 19:00etan, kultura etxeko zinema aretoan.

## Erakusketak

BERGARA

**> Beart elkarteko margolariek erakusketa jarri dute**

Bergarako artisten elkarteko kideek Aroztegi aretoan jarri dute urteroko erakusketa. Horrez gainera, elkarteko hamar artistak euren estudioa eta lana ezagutzera emateko ate irekien jardunaldia antolatu dute, Bearten egoitzan –Bolu auzoan–. Hilaren 23an izango da ate irekien jardunaldia, 11:30-15:00 ordutegian.

Gaur, egubakoitza, hasi eta hilaren 30era arte egongo da ikusgai erakusketa.

ARRASATE

**> Valentin Aranaren margo erakusketa**

Aranak Harresi aretoan jarri ditu ikusgai margolanak.

Hilaren 23ra arte.

PROPOSAMENA

ARRASATE

### > Santamas feria ospatuko dute arrasatearrek bihar, zapatua

Askotarikoak ikusteko aukera egongo da. Besteak beste egongo dira fruta eta barazki azoka, ganadu feria, artisau erakusketa, herri kirolak, bertso saioa, herriko trikitilarien, gaitarien eta dantzarien saioak, herri bazkaria eta pilota partiduak. Hori guztia herriko erdigunean ikusteko aukera izango da. Horrez gainera, txotxa izango da, eta baita taloa jateko postuak ere.

Goizean barrena.



OÑATI
**> Aloña Mendik argazki erakusketa antolatu du**
*Natura eta mendia* delako argazki erakusketa antolatu du. Ordutegia da 18:30-20:30.
Hilaren 14tik urtarrilaren 5era arte.

ESKORIATZA
**> 'Eskoriatzako mendi buzoiak irudita n'**
Horixe da Juan Luis Zubizarretaren argazki erakusketaren izenburua.
Abenduan egongo da ikusgai, Inkernun.

## Lehiaketak

ARRASATE
**> Inauterietarako kartela aukeratzeko lehiaketa**
Udalak deitu du lehiaketa hori. Edozeinek har dezake parte. Kartelaren neurriak 50x70 izan beharko du eta teknika, librea. Honako derrigorrezko testua eroan beharko du: *2008 inauteriak Arrasate*. Lanak Biztanleen Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharko dira.
Urtarrilaren 17a da lanak aurkezteko azkeneko eguna.

ARRASATE
**> Erakusleiho lehiaketa deitu du Udalak, Gabonen atarian**
Abenduaren 14a aurretik udaletxeko Kultura Zerbitzuan izena eman duten herriko denda guztiek hartu ahal izango dute parte. Kontuan izango dituzte, besteak beste, irudimena, orijinaltasuna eta mezu publizitarioaren baliogarritasuna. Erakusleihoetan dendako ohiko produktuek azaldu beharko dute. Sari ematea abenduaren 21ean egingo dute.
Hilaren 15etik 31ra egon beharko dira prestatuta erakusleihoak.

BERGARA
**> Aratusteetarako egitarauaren azala egiteko deialdia**
Bergaran bizi edo erroldatutako edozeinek har dezake parte. Kartelak kolore eta teknika librean egin daitezke eta aurkeztu beharko dira 40x60 cm-ko oinarrian. Eta ondorengo derrigorrezko testua eroan beharko dute: *Aratusteak 2008, Bergara*.
Lanak aurkezteko mugaeguna da urtarrilaren 4a, kultura etxean.

BERGARA
**> Amodiozko gutunen 16. lehiaketa deitu du Jardunek**
Ohikoa den moduan, lanek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dute. Lehiaketan, 1993an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN A-4 orrian, eskuz zein ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal izango dira. Luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Bestalde, SMS bidezko mezuen lehiaketa ere deitu dute. Argibide gehiagorako deitu Jardunera (943 76 36 61) edo jo *www.jardun.net* webgunera. Beti bezala, sari banaketa ekitaldia San Valentin egunean, otsailaren 14an egingo dute, kultura etxean.
Gutunak aurkezteko mugaeguna da urtarrilaren 6a.

## Bestelakoak

BERGARA
**> Gaztainak jateko aukera izango da San Martin plazan**
Jardun elkarteak antolatu du gaztaina erre jana.
Gaur, egubakoitza, 18:00etan, San Martin plazan.

BERGARA
**> Napar feria egingo dute San Antonio auzoan**
Gure Ametsa elkarteak antolatu du. 10:30ean irekiko dute eta egongo dira artisau produktuen mahiak. Horrekin batera, jaiotzen eta postalen lehiaketako sariak ere banatuko dituzte (13:00) eta Alai Taldeak kantu emanaldia ere egingo du (13:30). Bestalde, 12:00etatik 14:00etara bitartean, poniak, zezentxoak eta jolasak egongo dira umeendako.
Bihar, zapatua, goizean barrena.

ARETXABALETA
**> Herriko preso politikoen aldeko azoka antolatu dute**
Aretxabaletako preso politikoen aldeko topaguneak antolatu du azoka. Bigarren eskuko arropa eta bitxien azoka izango da. Udaletxe zaharreko atarian egongo da 17:00-20:00 ordutegian.
Bihar, zapatua hasi eta urte bukaera arte.

OÑATI
**> Haurrendako jolasparkea eta ur jolasak jarriko dituzte**
Ur jokoak abenduaren 26an eta 27an izango dira, 10:00-12:00 eta 16:00-18:00 ordutegian. Jolasparkea, berriz, urtarrilaren 3an eta 4an izango da, 11:00-14:00 eta 16:30-20:00 ordutegian.
Biak ala biak kiroldegian izango dira.

BERGARA
**> Haurrendako jolasparkea hilaren 26an, 27an eta 28an**
Kultura Zerbitzutik jakinarazi dute aurten berogailua egongo dela. Jolasparkearen ordutegia izango da 16:00-19:30. Prezioa da 3 euro
Labegaraietako kiroldegian.

ESKORIATZA
**> Haurrendako jolasparkea eta uretako parkea jarriko dituzte**
Hilaren 26tik 28ra jarriko dituzte. Jolasparkearen ordutegia izangoda: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Uretako parkearen kasuan, 12 urtetik gorakoandako ordutegia izango da, 11:00-13:00; 8 eta 11 urte artekoendako, 17:00-18:30, eta 4tik 7ra artekoendako, 18:30-20:00.

ELGETA
**> I. Gabonetako mus txapelketa antolatu dute**
Partidak jokatuko dira Espaloian, abenduaren 26tik 31ra bitartean, arratsaldez. Izenematea bikoteko 20 euro dira eta hiru sari egongo dira.
Izenematea bihar, zapatua, bukatuko da, Espaloian.




# Zinema

## Deseo, peligro ****

**Zuzendaria:** Ang Lee.
**Aktoreak:** Tang Wei, Tony Leung, Joan Chen.
Taiwán, Txina eta AEB. 2007.
157 min.

Urteari amaiera ederra emateko gure zinematan Ang Leeren azkeneko lana ikusteko aukera daukagu. Zuzendari taiwandarrak ekialdean eta mendebaldean egin du lan: *Comer, beber, amar, El banquete de boda, Tigre y dragón, Sentido y Sensibilidad, La tormenta de hielo* eta *Brokeback mountain*, eta oso ondo moldatu da bi kultura desberdinetako osagai interesgarriekin hartzeko. Hori oso ondo ikusten da orain estreinatu den *Deseo, peligro*-rekin.

*Deseo, peligro* argumentuari dagokionez burura ekartzen du Alfred Hitchcocken zinema eta bereziki *Encadenados* filma: espien mundua sartzen da eta maitasuna eta sexua, errealitatea eta errepresentazioa, nahastu egiten dira traizioarekin lotutako istorio honetan. Filmak badu emozioa, intriga eta anbiguotasun handia, baina erabilitako erritmoak eta tonuak –sexu eta biolentzia eztanda indartsuak izan arren–, erabilitako neurritasunak eta kontenplazioak zerikusi handia dute ekialdeko zinemarekin. *Deseo, peligro* sekuentziaz osatutako filma da; zuzendariak bere denbora hartzen du sekuentzia guztiak behar diren moduan kontatzeko: planoen errabilera, kamera mugimenduak, detaile guztien harrapaketa (ezpainbarrak edalontzian uzten dituen aztarnak), pertsonaien keinu eta begirada,... ekintza edo zer gertatzen den azaltzeko eta aldi bereean ekintzaren barruan pertsonaia bakoitzak dituen sentsazioak eta sentimenduak kaleratzeko balio dute. Ang Leeren filma ausarta eta neurritsua da, hotza eta sutsua. Bi alderdiekin jokatzen du, eta horrela, hilketaren sekuentziak, bitxidendako bi eszenek eta filmaren bukaerak ikuslea liluratuta uztea lortzen dute.

**Antonio Zabala**

### ARAMAIO
**KULTURA ETXEA**

**Sorgin bat etxean**
Domeka. 17:00.

### ESKORIATZA
**IBARRAUNDI MUSEOA**

**Perez sagutxoa**
Hilak 30: 17:30.

### ELGETA
**ESPALOIA**

**Mision imposible III**
Eguaztena: 21:00.

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**El orfanato**
Hilak 29: 19:30.

**Betizu eta urrezko zintzarria**
Hilak 29 eta 30: 17:00.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**Rec**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.

**Doraemon eta dinosaurio txikia**
Domeka eta hilaren 26a: 17:00.

**Lucio**
Urtarrilak 3: 20:00.
Urtarrilak 4: 22:30.

**Nocturna**
Urtarrilak 6: 17:00.

### EIBAR
**UNZAGA**

**La busqueda: el diario secreto**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Soy leyenda**
17:30, 20:00, 22:30.

**Winkyren zaldia**
16:30.

**Angeles SA**
18:45, 20:30, 22:30.

**El arca de Noe**
16:30, 18:30, 20:30.

**Fred Claus**
22:30.

**Alvin y las ardillas**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Encantada, la historia de Giselle**
16:30.

**La brujula dorada**
18:30, 20:35, 22:40.

**Mr. Magorium y su tienda magica**
16:30, 18:15.

**1408**
20:00, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Deseo, peligro**
16:40, 19:20, 22:15.

**Bee Movie**
16:45, 18:30.

**Once**
20:15, 22:30.

**Piccolo&Saxo**
16:45, 18:30, 20:30.

**August Rush (El triunfo de un sueño)**
22:30.

**Lejos de ella**
17:00, 19:45, 22:30.

**Irina Palm**
17:30, 20:00, 22:30.

**La Torre de Suso**
17:30, 20:00, 22:30.

**El espia**
17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Soy leyenda**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**La busqueda: el diario secreto**
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**Alvin y las ardillas**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**El arca de Noe**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

**Angeles SA**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15.

**La brujula dorada**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**1408**
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**Mr. Magorium y su tienda magica**
12:15, 16:05, 18:05.

**August Rush (El triunfo de un sueño)**
22:10, 00:15.

**Bee Movie**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20.

**Mr. Brooks**
20:05, 22:15, 00:25.

**Diario de una niñera**
12:15, 16:20, 18:25.

**El orfanato**
20:30, 22:35, 00:40.

**Donkey Xote**
12:15, 15:45, 17:30.

**Rec**
19:15, 20:50, 22:25, 00:05.

**Las 13 rosas**
22:15, 00:35.

**Ratatouille**
12:15, 16:05, 18:15.

**Promesas del Este**
20:40, 22:40, 00:40.

**Encantada, la historia de Giselle**
12:15, 15:50, 17:55.

**Hitman**
19:55, 21:55, 23:55.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**Soy leyenda**
16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

**El espia**
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**La busqueda**
17:00, 19:30, 22:15, 00:45.

**Alvin y las ardillas**
16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

**El arca de Noe**
16:30, 18:30, 20:30.

**Angeles SA**
16:05, 18:05, 20:10, 22:20.

**Mr. Magorium y su tienda**
16:15, 18:15, 20:15.

**Fred Claus**
16:30.

**1408**
20:20, 22:30, 00:45.

**El triunfo de un sueño**
22:25, 01:00.

**Deseo, peligro**
19:00, 22:05.

**La brujula dorada**
15:45, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

**Mr Brooks**
22:15.

**Donkey Xote**
16:15, 18:15.

**Bee Movie**
16:00, 18:20, 20:20.

**Rec**
22:20, 00:30.

**Encantada, la historia de Giselle**
15:50, 18:10.

**El orfanato**
20:30, 22:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Ratatouille** *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Brad Bird. Marrazki bizidunak.
110 min.
Remy sagu mokofina da, eta ez da konformatzen zaborrontzietako jakiekin. Parisko jatetxe onenetako baten chefa izan nahi du.

**Adios pequeña, adios**
AEB, 2007. Zuzendaria: Ben Affleck. Aktoreak: Casey Affleck, Michelle Monaghan.
114 min.
Patric Kenzie eta Angie Gennaro detektibeak bahitutako lau urteko haur baten bila dabiltza, Boston hirian. Ikerketaren ondorioz, beren harremana, printzipioak eta bizia arriskuan jarriko dituzte.

**El caso Wells** *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Andrew Lau. Aktoreak: Richard Gere, Claire Danes, Ray Wise.
101 min.
Errol Babbagek Gobernuarentzat lan egiten du, eta sexu delituak egin dituztenei gertutik jarraitzen die. 17 urteko neska gazte bat desagertu egin da, eta hori ikertu beharko du.

**El sueño de Casandra** ****
EB, 2007. Zuzendaria: Woody Allen. Aktoreak: Ewan McGregor, Colin Farrell, Tom Wilkinson.
108 min.
Ian eta Terry anaiek bigarren eskuko belaontzi bat erosi dute. Biak aktore gazte batekin maiteminduko dira. Bestalde, Howard osaba azalduko da eta legea haustera behartuko ditu. Horrek eragina izango du haiengan.

**El orfanato** ***
Espainia, 2007. Zuzendaria: Juan Antonio Bayona. Aktoreak: Belen Rueda, Fernando Cayo.
100 min.
Laura hazi zen umezurtz etxera itzuliko da, haur ezinduendako egoitza bat irekitzeko asmoz. Haren semea fantasiazko jokoetan sartuko da. Baina Laura ez da eroso sentituko, zerbaitek bere familia mehatxatzen duela pentsatuko baitu.

**Las trece rosas** *
Espainia, 2007. Zuzendaria: Emilio Martinez-Lazaro. Aktoreak: Pilar Lopez de Ayala, Veronica Sanchez, Marta Etura, Nadia de Santiago.
122 min.
1939. urteko apirilaren 1ean, tropa frankistak Madrilen sartuko dira. Errepresio luze eta gogorra pairatu beharko dute Errepublikaren aldekoek. 13 emakumek borrokan jarraituko dute, eta Francok haiek fusilatzeko aginduko du.

**Saw IV**
AEB, 2007. Zuzendaria: Darren Lynn Bousman. Aktoreak: Tobin Bell, Lyriq Bent.
108 min.
Kerry detektibearen hilketaren ostean, FBIko Strahn eta Perez agenteak ikertzen hasiko dira, Hoffman detektibearekin batera. Gauzak korapilatu egingo dira Rigg komandantea bahitzen dutenean.

**Stardust** **
AEB, 2007. Zuzendaria: Matthew Vaughn. Aktoreak: Claire Danes, Charlie Cox, Robert de Niro.
130 min.
Erresuma Batuko herrixka batek lurralde magiko batekin egiten du muga, baina inor ez da bertara sartzen. Gazte batek bere maiteari esango dio eroritako izar bat berreskuratuko duela, eta han sartuko da.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-12-21

# Aby-Kemen berriena salgai

**DANBAKAKO IRABAZLEA** Ibarreko azken Danbaka musika lehiaketako irabazlea da Aby-Kem taldea

**'AZKEN GUDA'** Diskoak 'Azken guda' du izena eta euskaraz abestutako sei kantuz osatuta dago

**HAMAR EURO** Kontzertuetan ez ezik, Goienan, tabernetan eta liburu dendetan saltzen da diskoa, hamar euroren truke

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Bergarako Aby-Kem taldeak *Azken guda* izeneko lehenengo diskoa aurkeztu du asteon, Donostiako Alde Zaharreko liburutegian. Goienak antolatzen duen Danbaka Debagoieneko II. Musika Lehiaketako irabazlea da Aby-Kem.

Lehiaketa horren saria izan zen egunotan aurkeztu duten diskoa grabatzea Arrasateko Shot! estudioan; horrez gain, Gaztelupeko Hotsak etxearen laguntzarekin disko hori kaleratzea. Hala, uztail hasieran sartu ziren bergararrak estudioan eta hilabete inguru eman zuten grabatzen. Ondoren, edizio lanetan hasi ziren eta azaroan amaitu zuten diskoa. Taldeko gitarra-jole Mikel Ilarduiak jakinarazi duenez, pozik geratu da boskotea emaitzarekin.

Bilduma thrash-metal estiloan oinarritutako sei kantuk osatzen dute: "Gehienbat thrash-metaleko kantuak diren arren, death eta hardcore ukitua ere badute, abesti bakoitzean erritmo aldaketa izugarriak daude", gaineratu du abeslariak. Euskaraz abesten dute. Azaldu duenez, mundu arabiarrari keinu bat egin gura izan diote diskoan: "Gureak egin ditugu haiek sufritzen dituzten miseriak eta duten askatasun egarria", esan du Ilarduiak.

**TALDEAREN IBILBIDEA**

2003an eman zuten bergararrek lehen kontzertua. Laukotea boskote bihurtu zen hurrengo urtean. Handik gutxira, demo bat grabatu zuten. Poliki-poliki, entsegu eta zuzenekoen bitartez taldea indartzen joan zen. Egindako lana ez da, bada, debaldekoa izan, Danbakako azken musika lehiaketa irabazi dute-eta.

Orain, estudiotik ateratako fruitua erakusteko momentua da, eta horrela egingo dute datozen kontzertuetan. Diskoa eskuratu gura duenak, batetik, eskaintzen dituzten kontzertuetan izango dute aukera, 10 euroren truke. Horrez gain, Goienako egoitzetan, ibarreko tabernetan eta Euskal Herriko dendetan ere aurki daiteke Aby-Kemen berriena.




**AURKEZPEN OFIZIALA** Aby-Kemek agerraldia eskaini du asteon Donostian, Danbakako arduradunarekin batera. I. TXINTXURRETA

## ahobero

### "Tabernetan ikusten dut jendeak bi kafe hartzen dituela eta euro bateko eskupekoa uzten duela"

**Pedro Solbes** > Ministroa

Horixe da Espainiako Ekonomia Ministro Pedro Solbesek aipatu duena. Hilaren amaieran larri ibiltzearen arrazoia euroaren balioa barneratuta ez dugula dio. Langileok ederto dakigu euro bat irabaztea zenbat kostatzen zaigun, eta, beraz, haren balioa zein den.

## iturri onetik

### Datorren urtarrilaren 25ean eta 26an autokarabana topaketa egingo dute Oñatin

Auto-karabana topaketa izango da urtarrilaren 25ean eta 26an Oñatin. Sorbeltz elkarteak antolatu du ekimen hori eta azaldu duenez, 20-30 autokarabana inguru bilduko dira. Egubakoitz arratsaldean iritsiko dira eta zapatuan, batzarra egin ostean, herria bisitatuko dute. Domekan Arantzazu eta Arrikrutz ezagutzeko aprobetxatuko dute. Baimena eskatuta dago dagoeneko eta baietza jaso dute.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Gose

Disko beltza erosi nuen eta asko gustatu zitzaidan. Orain zuria daramat jarrita autoan eta gozatzen ari naiz. Erritmoak, giroak, Inesen gordinkeriak... txapel!

*Arrasate Press*-en lehen aletako batean idatzi nuen trikiari buruzko artikulu bat, esperantzaz betea. Molde tradizionaletik berrikuntzara abiatua zen, Tapia eta Junkera ikur hartuta, eta etengabe zetozen esperimentuak. Hamabost bat urte geroago eta emaitza bikain askoren ondoren, trikia burgestuta ikusten dut. Tapiak ondo jarraitzen du, baina Junkera errazkerian erori da, eta gazte gehienek bikote ospetsu pare baten estilo ñoñoa hartu dute. Horregatik zait hain eder arrasatearron lana, bazterrak astintzera datorrelako.

Hurrengo diskoaren gose naiz dagoeneko. Gorria, ez?

## ai, ene!



### Silikonaz egindako teklatua dago eskuragai

Bi pilarekin dabil irudian azaltzen den teklatua. Silikonaz eginda dagoenez, malgua eta arina da. Garbitu ere egin daiteke.

http://www.pixelydixel.com

